



Ana Galarragak,
koronabirusaren
izurritea hizpide

Kirola Debagoiengan
azken hoge
urteetan



JOANDAKOEZ OROITZEKO SASOIA

Gero eta hildako gutxiago lurperatzen dituzte eta hutsago daude kanposantuak; aurten, hutsago, pandemiagatik. Dena den, gertukoez oroitzeko unean, lorez apaindu dituzte hilobiak / 4

Mari Verdejo eskoriatzarra, herriko hilerrian, senarraren hilobian, loreak jartzen eguaztenean. Domu Santu egunean urtero egin ohi du, azken 32 urteotan. XABIER URZELAI

Azken astean 306 positibo berri hauteman dituzte; aurreko astean baino 112 gehiago / 2

Astehenean irekiko dute Bergarako eguneko zentro berria, pandemiagatik edukiera murriztuta / 33

Neurri bereziekin bada ere, Beratu musika jaialdia egin egingo dute datorren astean Oñatin / 41



ETXEBIZITZA & DEKORAZIOA / 23

SINADURAK

	JOSU ZUGASTI / 12
	IDOIA PEÑAKOBA ETXEBARRIA / 6
	ALAZNE GURIDI / 36
	XABIER LIZAUR BEITIA / 8
	ANDER ETXEBERRIA / 48

Positiboek goia jo dute bailaran

Azken astean 306 positibo berri hauteman dituzte bailaran; aurreko astean baino 112 gehiago. Bestetik, alarma egoerari lotutako neurriak indarrean dira martitzenaz geroztik, eta ostalari, kulturgile zein bidaiari-saltzaileek "kezkatuta" bizi dute egoera

Maialen Santos ARRASATE

Domekan, alarma egoera ezarri zuen Pedro Sanchez Espainiako presidentek; esan zuen hasiera batean maiatzera arte iraungo duela, hamabost egunean behin "aztertzen" joango diren arren.

Martxoan ezarritako alarma-egoera ez bezala, oraingoa autonomia erkidegoetako buruek kudeatuko dute; eta, horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak izango du Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion erabakiak hartzeko eskumena. Hori horrela, Jaurlaritzako Osasun sailburu Gotzone Sagarduik astelehenean eman zuen alarma egoeraren baitako neurri murriztaileen berri. Batetik, azaldu zuen EAEko herritarrak ezin izango direla norbere udalerritik atera, baina jarduera sozioekonomikoak egiteko "udalerririk mugakideetara" mugitzeko aukera izango dutela. Horretaz gain, hiru lurraldeetatik –Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia– irtetea eta sartzea debekatuta geratu zen. Eremu publiko zein pribatuak bilerak gehienez ere sei pertsonako taldeetara mugatu zituen, "elkarrekin bizi diren pertsonak" izanik salbuespen bakarra. Azkenik, zehaztu zuen etxeratze-agindua 23:00etatik 06:00etara artekoa izango dela EAEn.

DATUEN BILAKAERA

ORAIN ARTEKO POSITIBO KOPURU HANDIENA BAIEZTATU ZUTEN ATZO: 52

Aurreko astean baino 112 kasu gehiago erregistratu dira oraingoan Debagoienean. Osasun krisia hasi zenetik erregistratu den positibo kopuru handiena erregistratu da astean, gainera;

eguaztenean egindako probek 52 positibo erregistratu zituzten.

Herriz herri, Arrasatek baieztatu ditu positibo gehien azken astean –109–. Gertutik jarraitu dio Bergarak, eta, hain zuzen, hori izan da gorakada nabarmenena jasan duen herria, aurreko astean baino 66 kasu gehiago hauteman dituzte-eta. Aretxabaletan, Eskoriatzan, Oñatin eta Elgetan ere gora egin dute positiboek azken egunetan. Aldiz, Antzuolan eta Aramaion behera egin dute, eta Leintz Gatzaga izan da intzidentzia daturik erregistratu ez duen herri bakarra. Bailaran, gainera, bi pertsona hil dira azken astean, eta atzora arte 1.869 debagoien-dar kutsatu ditu koronabirusak.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, martitzenara arte 12 gaixo zeuden koronabirusagatik ingresatuta.

Bestalde, azken astean Bergarako Mizpirualde egoitzako egoiliar bat hil da –denara, 8 hil dira–, eta lauk jarraitzen dute positibo emanda. Alarma egoeraren eraginez zaharren egoitzetako egoiliarrak ezin izango dira horietatik atera –bai, ordea, bisitak jaso–. Arrasateko Iturbiden, halere, gune hesitua egokitu zuten egoiliarrak kanpora irten zitezten, eta hori mantentzen dutela azaldu du bertako zuzendari Olatz Etxabek.

OSAKIDETZAKO SINDIKATUEN GREBA DEBAGOIENKO OSPITALEKO LANGILEAK, GREBA DEIALDIAREKIN BAT


Osakidetzako bederatzi sindikatuek hiru greba egun deitu dituzte, "eskubidedun" eta "ka-

Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

14 EGUNEKO TASA
100.000 biztanleko

- >=500
- 300-499
- 60-299
- < 60



litatezko" osasun-sistema publiko defenatzea izanik helburua. Hala, Gipuzkoan azaroaren 5ean egingo dute greba. Eskaerak dira: osasun publikorako aurrekontua handitzea eta murrizketak amaitzea, privatizazioa amaitzea eta langileen osasuna eta segurtasuna bermatzea. Debagoieneko Ospitaleko langileak ere batu dira deialdira, eta bi agerraldi egin dituzte asteon.

Dena den, sindikatuek argitu gura izan dute ospitaleetan bizi duten egoera ez dela "berria", eta pandemiaren aurretik ere premiak zituztela: "Izurriteak

argiagi utzi du osasun publikoan murrizketak egitea herritarren osasuna eta bizitza arriskuan jartzea dela".

OSTALARIAK, KEZKATUTA

OSTALARIEK ARDURATUTA ETA KEZKA HANDIZ BIZI DUTE EGOERA

Astelehenean iragarritako neurriek, hein batean, "arindua" eragin diete ostalari batzuei; izan ere, gune gorrian dauden herrietan 21:00etarako jarduera

Zer egin dezaket? Eta zer ez?

Hauek dira Jaurlaritzak emandako irizpideak:

Bizilekutik atera naiteke erosketak egiteko?

Udalerrian edo mugakideetan ematen ez diren zerbitzuetarako, salbuespen gisa, bizilekutik hurbilen dagoen gunera.

Udalerritik kanpoko adinekoen egoitzetara joan naiteke?

Bai, EAE barruan baldin badago.

Espetxeetara joan naiteke?

Bai. EAEtik kanpoko espetxea bada, lurralde horretako Gobernuak horretarako aukera ematen badu.

Autoa tailerrera eraman dezaket?

Bai, atzeraezina eta nahitaezkoa den kasuetan.

Zerbitzu erlijioso edo kultur-zerbitzuetara joan naiteke?

Bai; salbuespen gisa, bizi den udalerrian ez dauden, eta hurbilen dagoen lekura.

Joan al naiteke aireportura edo geltokira norbaiten bila?

Bai, bere bizilekura itzultzeko.

Mendekotasuna duten senideak bisitatu ditzaket?

Ez. Laguntza eta zaintza lanak egiteko bakarrik.

Barutzerara joan naiteke?

Bai. Udalerrian edo mugakide den herrian baldin badago.

Bigarren etxebizitzara joan naiteke?

Ez. Inguruko udalerrietan ez baldin badago.

Alderdi politikoei loturiko jarduerengatik lekualdatu naiteke?

Bai. Jarduera instituzionalak direlako.

Arrantzara edo ehizara joan naiteke?

Ez. Bizilekuan edo mugakideetan bakarrik egin daiteke.

Kultur etxeetako, kirol eskoletako... jardueretan parte har dezaket?

Bai. Udalerrian bertan edo mugakide diren udalerrietan baldin badira.

Bizilekutik edo ondoko udalerritik kanpo entrenatzera joan al naiteke?

Ez, kirolari profesional, erdi-profesional, Basque Team-eko edo goi mailako kirolari akreditazioa eduki ezean.

Joan naiteke beste herri bateko kiroldegira?

Bai, herri mugakidea baldin bada bakarrik.



Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak 1.000 biztanleko
Arrasate	109	69	778	35,27
Bergara	103	37	428	28,53
Oñati	41	39	281	24,75
Aretxabaleta	18	10	177	24,94
Antzuola	17	26	92	41,80
Eskoriatza	13	3	71	17,47
Aramaio	2	5	19	12,62
Elgeta	3	1	22	19,32
Gatzaga	0	0	1	4,00
GUZTIRA	306	194	1.869	28,90

OHARRA: EGUJAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

oro amaitzeko agindua bertan behera utzi zuten, eta etxeratze ordua -23:00- da orain muga. Horrenbestez, afariak eskaintzeko epe handiagoa dute orain.

Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxeko arduradunak "ziurgabetasunez" bizi du egoera, eta GOIENARI azaldu dio mugikortasunari dagozkion mugak kalte handiak eragin dizkiola. Hain zuzen, arduradunak azaldu du herriko bezeroak -Leintz Gatzagakoak- gutxiengoa direla, eta EAE osoko bezeroak hartzen dituztela jatetxean. Hori horrela, datozen asteetara begira zizutzen "erreserba guztiak" bertan behera geratu zaizkie: "Kontua ez da asteburu honetako erreserba bertan behera geratu direla; are gehiago, aste batzuetan nola egongo garen ere ez dakigu. Beraz, ezin dugu erreserba beteko diren bermatu".

OSTATUAK, ERRESERBA GUTXIREKIN OSTATUETAKO ERRESERBAK BERTAN BEHERA, HERRITIK IRTEN EZIN DELAKO

Bergarako Lamaino Etxeberri nekazari etxean eragin "nabarmena" izan du alarma egoera indarrean sartzeak, eta horrek dakarren guztiak. Hain justu, bertako arduradunak adierazi du asteburuko erreserba guztiak "bertan behera" utzi dituztela bezeroek: "Taldetxo bat hartzeak ginen, baina orain seikoa

da muga; eta, hori gutxi balitz, ezin dira beste herri batzuetatik etorri". Gaineratu du herriko jendeak har dezakeela bertan ostantu, baina, nork bere etxea duenez, landetxearen "beharrik" ez dutela.

Hala eta guztiz ere, azaldu du astean zehar langileak hartzen dituztela nekazari etxean, eta gutxiago izan arren mantentzen dituztela erreserba batzuk: "Aste honetan lau behargin ditugu gurean, norbere gelan eta segurtasun neurriak hartuta.

Oñatiko Soraluze hotela hila-bete batzuetan itxita egon da, baina arduradun berriek adierazi dute datorren astean irekiztea "aurreikusen" dutela. Hala, adierazi dute neurri murriztaileak "aukera" izan daitezkeela beraientzat: "Ez dugu ezer gaitzekorik. Egoera honetan irekiztea erabaki dugu uste dugulako aukera ona izan daitezkeela bezeroak pixkanaka hartzen joatea". Hala ere, aitortu dute oraindik ez dutela erreserbarik hartu. Hotela ez ezik, taberna ere irekiko dute, eta "ilusioz" bizi dute momentua.

KULTURGILEEN LANA, OZTOPATUTA KULTURA SEGURUA DELA ADIERAZI DUTE KULTURGILEEK, ENEGARRENEZ

Gure Zirkua azken ikuskizunak egingo dira asteburu honetan, Arrasaten, eta Iker Ga-

lartza pailazoak adierazi du aurrera doazela emanaldiekin, eta leihatilan sarrerak daudela salgai: "Emanaldia egin dezakegunez, egingo dugu. Hala ere, baja asko izango ditugu, eta ez datozenei dirua bueltatuko diegu. Asmoa da hasitakoa bukatzea". Kanpotik datozenen kasuan, zera adierazi du: "Zalantzan dagoena animatu egingo nuke, eta, ezezkoan dagoena, errespetatu". Eta gaineratu du herrigunetik "aparte" daudela, aparkalekua bertan dutela eta "segurtasun distantziak" errespetatzen dituztela zirkuan.

Potx eta Lotx pailazoei ere kalteak eragin dizkiete neurri berriek; besteak beste, asteburuan Lazkaon egitekoak ziren ikuskizuna atzeratuta geratu delako. Pailazoak eta lantaldea "haserre" daude; hori adierazi dute ohar bidez. Kultura segurua dela aldarrikatu gura izan dute enegarrenez, eta adierazi dute ez dutela ulertzen zergatik "tematzen" diren kultur ekitaldiak atzeratu edo bertan behera uzten: "Ez gara neurriak hartzearen kontrakoak; ez gara tranpa horretan eroriko. Baina hartzen diren neurriak kontraesankorrak badira, desorekatuak badira... zerbait arraroa dagoen seinale da hori". Gehitu dute kultur ekitaldiak modu egokian antolatzeke "aukerak badaudela".

BIDAIAK, BERTAN BEHERA AISIALDIKO BIDAIAK BERTAN BEHERA, ETA BIDAIA-AGENTZIAN ZIURGABETASUNA

Arrasate Bidaiak agentziako arduradunek egoera "gogorra" bizi dutela aitortu diote GOIENARI: "Uda ez da beste urte batzuetan modukoa izan, eta, hori gutxi balitz, neurri berriekin erreserba guztiak bertan behera geratu zaizkigu". Zehaztu dute, datozen bi asteetara begira bi erreserba zituzten Kanariar irletarako, "baina bezeroek ezin izango dute bidaiatu". Hala ere, bezeroen jarrera eskertu gura izan dute: "Bezero onak ditugu, eta asko eskertzen dugu izaten ari diren jarrera". Horretaz gain, aditza eman dute aurrerantzean telelanari ekingo diotela, eta, beraz, bezeroei telefono bidezko arreta eskainiko dietela. Horretaz gain, webgunea ere erabilgarri dute agentziakoek.



Iseako ikerlari Okina eta Artemaneko zuzendari Lagunilla, eguaztenean. ARTEMAN

STEM ikasketak bultzatu eta estereotipoak hautsi guran

EMEZTIM proiektua aurkeztu dute astean, 10-13 urteko gaztetxoei zuzendua; eduki interaktiboak erabiltzen ditu

M.S. ARRASATE

Emakumeen gaitasunei buruzko aurreiritzitako estereotipoak haustea eta Gipuzkoako gazteen artean -berezi, emakumeak-STEM ikasketak -zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika- sustatzeko helburuarekin aurkeztu zuten EMEZTIM proiektua, eguaztenean. Arteman Komunikazioak Isea zentroarekin eta Fulsion enpresarekin garatutako proiektua da.

ChatBot sisteman oinarrituta

Arantzazu Lagunilla Artemaneko zuzendariak azaldu du proiektuak "metodologia berritzailea" jarraitzen duela: "Proiektu osoa ChatBot sisteman oinarritzen da, adimen artifizialarekin funtzionatzen baitu". Hain justu, "modu dibertigarrian" erabiltzailearen eta robotaren arteko elkarrekintza ahalbidetzen duen erreminta da ChatBot. "Elka-

rrizketa sortzen du gaztearekin eta erantzunen arabera gidatu egiten du", dio. Gehitu duenez, gura dute ikasleek beren kabuz uler dezatela badirela emakumeen benetako estereotipoak ikasketak hautatzeko orduan, eta, beraz, euren etorkizuna "ez baldintzatzea" da helburua.

Beharretik sortua

"Argi ikusi dugu adin batetik aurrerakoak euren gaitasunak gutxiesten hasten direla, gizar-teak eta estereotipoek eraginda". Hori horrela, uste dute hausnarketa beharrezkoa dela erabakiak hartu ahal izateko. "Gizarte estereotipatua bizi gara, eta gazteek informazio desegokia dute STEAM ikasgaien inguruan. Zailak direla diote". Horiek berarek azaltzea "gakoa" dela uste dute. Arizmendi Ikastolak eta Kurtzebarri Eskolak ere hartu dute parte proiektuan.

Bergaran eta Oñatin elkarretaratzerik ez dute egingo gaur

Gaur arratsaldean egitekoak ziren mobilizazioak bertan behera uztea gomendatu dute Etxerate eta Sarek. Etxerat elkarrekin pertsonen zaintzari lehentasuna eman gura die, eta, beraz, Bergaran eta Oñatin egitekoak ziren elkarretaratzeak bertan behera utzi ditu. Arrasaten, osteraz, mantendu egingo dute elkarretaratzea. Hain zuzen, elkarreta-

ratze ibiltaria egingo dute, 19:30ean, Herriko Plazan hasi eta leku berean bukatuta.

Ekintzak bertan behera uzteko erabakia COVID-19ak sortu duen egoeraren ondorioz hartu duela adierazi du Sarek, eta, Eusko Jaurlaritzaren kolore-semaforoaren arabera, kolore gorri sailkatutako udalerriei eragiten die. Azarorako dauden elkarretaratze eta mobilizazioei dagokienez, aurrerago egoera aztertu eta horren berri emango dutela adierazi dute.



Mari Verdejo eskoriatzarra, Eskoriatzako hilerrian, lore sorta bat eskuetan eta maskara jantzita. XABIER URZELAI

Urtetik urtera husten doazen hilerriak aurten hustuago egongo dira

Hildakoei bisita egiteko neurriak ezarri dituzte udalek, eta soilik norbere herrira edo albokora joan ahalko da loreak eramatera; bailarako hilerri nagusiak aztertuta, agerikoa da geroago eta hustuago daudela, errausteek izan duten gorakadarengatik

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

COVID-19a eragina izaten ari da bizirik dauden pertsonen artean, baina jada hilda daudeneke ere igarriko dituzte birusaren ondorioak. Domekan ospatuko da Domu Santu eguna, eta, Jaurlearitzak berriki hartutako neurrien eraginez, gutxitu egingo dira hilerrietara egingo diren bisitak; batez ere, mugikortasuna mugatzeko ezarritako neurriengatik. Ertzaintzak zehaztu duenez, norbere herriko hilerria edo mugakide den herri-kora soilik joan ahalko da loreak eramatera; beraz, herritar askok ezin izango dute urteroko bisita egin. "Arrasatetik Aretxabale-tara joan ahalko da; baina Arrasatetik Eskoriatzara, ez".

Udalen neurriak eta gomendioak
Pandemiaren hedapena ikusita, neurriak hartu dituzte hilerrie-

tara segurtasunez joateko, eta ahal dela domekan ez joatea aholkatu dute.

Arrasaten, adibidez, hilerriaren eta bertako guneen gehieneko edukierak zehaztu dituzte, eta bertara joateko autobus zerbitzua indartu (Neurri zehatzei buruzko informazioa jakiteko, ikus 10. orria). Bergarari dagokionez, bisita laburrak egiteko gomendia egin dute eta hilerriko lurzoruan markak jarriko dituzte herritarra banaban eta segurtasunez mugitzeko (Neurri zehatzei buruzko informazioa jakiteko, ikus 33. orria). Oñatin, esaterako, hilerriko edukiera kontrolatuko da, sarrera-irteera ezberdinak jarriko dira, pertsonen zirkulazioa antolatuko da, eta 30 minutuko egonaldiak egitea gomendatu dute. Aretxabaletan antzeko neurriak hartu dituzte: 64 lagun

hilerrian, asko jota, eta 30 minutuko egonaldiak (Neurri zehatzei buruzko informazioa jakiteko, ikus 16. orria). Eskoriatzan, udaltzainak arituko dira hilerriko sartu-irtenak kontrolatzen eta jendeak segurtasun neurriak errespetatzen dituela ikuskatzen.

Bailaran, errausteak dira nagusi

Azken hamarkadan irauli egin da bailaran hildakoen trataera. Errausteak indarra hartzen joan dira urtetik urtera, eta gaur egun oso jende gutxi egiten du ehorzketen alde.

Arrasate Hileta Zerbitzuak ehorzketearen kasuan, ia bezero guztiak egiten dute errausteten alde. "Une honetan, bezeroen %95ek errausketa aukeratu dute, eta %5ek ehorzketa. Tendentzia aldaketa ez da aspaldiko kontua, eta azken urteetan irauli da. Hilerrian pan-

teoiak dituzten askok erraustea erabakitzen dute, hilobiratzeko erraztasunak izanda ere", azaldu dute bertako arduradunek. Errausketa aukeratzeko duten horien artean, oso gutxi dira errausketa hilerriko hezurtegitan uzten dituztenak. "Errausketa %10-15 inguru eramaten dira hezurtegitara. Kasu horietan, guk egiten ditugu tramite lanak. Baina bezero gehienek euren kabuz kudeatzen dituzte errausketa: leku kuttun batean gordezeko, hildakoarentzat berezia zen tokiren batean botatzeko...". San Felipe Elkarlaguntza Elkar-tearen kasuan ere, antzeko zifrak dituzte. "Gure bezeroen ia %100ek errausketa nahiago dute. Duela 10 urte inguru hasi ziren errausketak ugaritzen, baina azken bizpahiru urteetan tendentzia hori asko areagotu da. Gaur egun, hildakoen %95 errausten ditugu, eta horien artean oso gutxi dira hilerriko hezurtegitara eramaten direnak".

Bergararren artean oso gutxi dira hilobiratzeko aukeratzeko dutenak –ez dira %5era heltzen– eta ia denek erraustearen alde egiten dute. "Gure kasuan, bezeroen %3k hilobiratzeko dute hildakoa, eta %97k erraustea erabakitzen dute. Tendentzia aldaketa nabaria gertatu da azken bost urteetan, eta jada ia inork ez du ehorzketen alde egiten", azaldu du Oroilore ehorzketeko Marivi Mujikak. Erraustea erabakitzen duten bezeroei dagokionez, gehienek euren kabuz kudeatzen dituzte errausketa. "%60tik gora dira euren kabuz kudeatzen dituztenak, eta hilerriko hezurtegitara eramaten dituztenak ez dira %40ra heltzen. Hildakoaren adinaren arabera: gazteek ez dituzte errausketa hilerria eramaten; zaharrenek, orokorrean, bai".

Oñati, bailarako salbuespena

Oñatiko egoerak ez du zerikusirik bailarako gainontzeko herriekin. Herriko bi ehorzketak kudeatzen dituzten arabera, "duela bi urtera arte, bezeroen ia %100ek hilobiratu egiten zuten hildakoa". "Arrasaten eta Aretxabaletan ere ehorzketek bana dugu, eta han guztiz aurkakoa da; ia denek erraustea aukeratzeko dute. Tradizio eta kultura kontua da, baina Oñatiko egoerak ez du besteekin zerikusirik. Heriotza beste modu batera bizi izan du-

tela esan daiteke. Agian, kutsu erlijioso handiagoa dutelako edo... Horrez gain, tanatoriora bisitan, adibidez, askoz jende gehiago joaten da Oñatin, bailarako gainontzeko herrietan baino", azaldu du Eguzkilore ehorzketeko Espe Herrerak.

Oñatiko hilobiratzeko kopuru handia azaltzeko, badago faktore garrantzitsu bat: "Aipatu behar da panteoi asko daudela herrian, beste herrietan baino askoz gehiago, eta horrek asko baldintzatzen du oñatiar gehienek hilobiratzeko nahiago izatea".

Erraustea aukeratzeko duten gutxi horien artean, batzuek "behartuta" egiten dute. "Batzuek halabeharrez erabakitzen dute erraustea, nahiz eta hilobiratzeko nahiago izan. Oñatiko hilerriko panteoi batzuk hain dira zaharrak, non gaur egungo hilkutxak ez diren kabitzen; ezta estuenak ere. Beraz, kasu horietan, erraustea da aukera bakarra, ostean errausketa panteoian sartzeko".

Baina Oñatiren egoera berezia hasi da gutxika aldatzen, eta azken urteetan ugaritzen joan dira errausteak. "2019an eta 2020an errausteen gorakada igarri dugu, eta une honetan %10-20 artean daude. Joera aldatzen hasita dago, eta baliteke Oñatik beste herrietara hartutako bide beretik jarraitzea. Une honetan gutxiengo dira, baina urte batzuk barru... ikusi egin beharko".

Bailarako hilerriak, husten

Azken urteetan errausteek izan duten gorakada ikusita, hilerrietako okupazio mailak behera egin du. Bailarako herri nagusietako hilerriak gero eta hustuago daude, eta badirudi joera hori areagotzen joango dela datozen urteetan.

Arrasateren kasuan agerikoa da, hilerriko horma-hobien %84 hutsik dago eta; 1.128 horma-hobi daude, eta horietako 182 daude beteta une honetan. Panteoien kasuan, okupazio maila ia erabatekoa da: %97,12koa. 348 panteoi daude, eta horietako 338, beteta. Azken hamar urteetako datuen bilakaera ikusita, ehorzketak erdira jaitsi dira,

**AZKEN 10 URTEETAN
ERRAUSTEAK UGARITU
EGIN DIRA EHORZTEEN
ALDEAN; HILERRIAK
HUSTEN ARI DIRA**

eta errausteak, aldiz, bikoiztu. 2010ean, 22 hildako sartu zituzten horma-hobietan eta 105, aldiz, erraustu. 2019an, ordea, 11 hildako sartu zituzten horma-hobietan, eta 202 erraustu.

Bergarako hilerrian, adibidez, kolunbariotara eramaten diren hildakoek %50 egin dute gora azken bi urteetan, eta panteoietara eramaten direnak, aldiz, %33 gutxitu dira.

Oñati da hilobiratzeko tendentzia handiagoa duen herri bakarra. Hala ere, 2018tik 2019ra %15 jaitsi egin ziren hilobiratzak: 2018an, 112; 2019an, 96.

Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere nabaritzen ari dira hilerriak husten ari direla, pixkanaka. Aretxabaletakoan, 108 horma-hobi eta 28 kolunbario daude, eta horma-hobien %33 hutsik daude. Eskoriatzan, iaz bi horma-hobiak 10 urterako alokatzen dira, baina denbora igaro ostean oso gutxi dira horiek husten dituztenak".

Arimen Gaua edo Gau Beltza

Hildakoekin lotuta, Domu Santu eguna ez da gure inguruan dagoen erritu bakarra. Arimen Gaua edo Gau Beltza da beste bat, eta urtetik urtera indarra hartzen ari da aspalditik datorren ospakizun hau. Honela azaldu dute Txatxilipurdi eta Ttak! elkarteak jai honen jatorria: "Udaren amaiera eta neguko hotzaren hasiera markatzen duen aldi egiten zen erritu hau; urriaren 31 eta azaroaren 1a bitarteko gauean. Baratzeak kalabaza eta erbiak batu, itxurdatu, kalean zein etxeko leihoetan jartzen zituzten, barruan kandela bat jarrita. Argi xume horietan inguruko arimak islatzen zirela esaten zen".

COVID-19aren eraginez aurten jaitsi egin dira bailara mailan antolatutako ekintzak, baina badago zer ospatu. Arrasaten, asteburu osoko egitarau mamitsu lotu dute gaztetxean, Gau Baltzaren ukituarekin (Informazio osoa jasotzeko, ikus 12. orria), eta Aretxabaletan, aldiz, *scape room* jolasa egingo dute.

OÑATI DA BAILARAKO HERRI BAKARRA ERRAUSTEAK BAINO EHORZKETA GEHIAGO DITUENA

"32 urtez eraman ditut loreak; aurten ere lortu dut hori egiteko modua"

MARI VERDEJO ESKORIATZAKO BIZILAGUNA

Badaude Domu Santu eguna biziki bizi duten lagunak, eta, ez bairik gabe, Mari Verdejo eskoriatzarra da horietako bat. **Zenbat urte daramatzazu Domu Santu egunean kalerik egin gabe?**

Bada, aurtengoa 32. urtea izango da. Duela 50 urte heldu ginen senarra eta biok Kordobatik Eskoriatzara, eta handik 18 urtera hil zen bera. Ordutik, urtero-urtero eraman dizkiot lore freskoak. Niretzat galdu ezinezko hitzordu bat da. Duela urte asko, lagun batekin batera joaten naiz. Biak geratu ginen alargun une berean, eta gure senar ohien hilobiak elkarren alboan egon dira hilerrian. Lehen, ia zapatuero etortzen ginen biak, eta orduak egiten genituen gure senarren hilobi aurrean, berrikerian.

Aurten arriskuan ikusi duzu loreak eramateko aukera?



XABIER URZELAI

Bada, bai. Eskoriatzan ez dago loradendarik, eta azken urteetan Arrasateko denda batean erosi izan ditut. Baina herriatik irteko debekua jarri zutenean, asko urduritu nintzen. Enkargua eginda nuen, baina uste nuen ez nuela modurik izango horiek batzeko. Hala ere, martitzenean loradendatik deitu zidaten, lasai egoteko esanez; eurek ekarriko dizkirate Eskoriatzara. A zer-nolako lasaitua hartu nuen! Oso eskertuta nago.

"Asteleheneko arauak eromena izan dira guretzat, eta bezeroentzat"

EVA ROMERO BUART LORADENDA

2020an inoiz baino lan gehiago izan dute lore-saltzaileek.

Jauriaritzaren neurriek nola eragin dizute?

Zalantza asko izan ditugu, eta bezeroei arau berriak azaltzeko hamaika lan. Mugikortasuna mugatzeak hainbat buruhauste ekarri dizkigu guri, eta bezeroei, eta zerbitzu gehigarriak eskaini ditugu, inor lore gabe gelditu ez dadin. **Zein zerbitzu, adibidez?** Euren herriatik irten ezin diren bezeroei euren herrira eramango dizkiegu loreak, adibidez. Loreak norbere herrian jaso bai, baina beste herri bateko hilerria eraman ezin ditzaketan horiek, guk eramango dizkiegu eurek esandako hilerrietara.

Eskari asko geratu zaizkizue bertan behera?

Lauzpabost edo: Nafarroara joan behar zirenean,



XABI GOROSTIDI

Burgosera... Orokorrean, eskariak mantentzen ahalegindu dira bezeroak. **Domu Santu egunak zer-nolako pisua du zuen fakturazioan?**

Jendeak uste duena baino txikiagoa. Eskaria handitu egiten da, eta loreen kostua garestitu. Lan karga itzela da; mozkinak, oso txikiak. Pentsa, hiri handietako loradenda askok ez dute egun honetara begira lanik egiten. Parra geratzea nahikoa da guretzat.



Miriam Urkia, euskaltzain oso izendapena jaso zuen egunean. GOIENA

Miriam Urkia aretxabaletarra, Euskaltzaindiko zuzendaritzan

Lantalde horretan lau urtez aritzeko hautatu dute eta ikerketa lanak egingo dituen sailaren ardura hartuko du

X.G. ARETXABALETA

Urkiak berak GOIENARI adierazi dionez, "lanerako gogoz" hartu du kargu berria: "Lanean jarraitzeko laguntza eskatu dide, eta ni horretarako prest azaldu naiz". Hain zuzen, Iker saileko burua izango da Urkia-ikerketa lanetara bideratuta dagoen sailean arituko da. Euskaltzaindiaren mendeurren "aldaketa bat" ekarri duela sinetsita dago: "Balio izan du Euskaltzaindiaren irudia ezagutzera eman eta jendearengana hurbiltzeko". Hala, zuzendaritza taldean ere izan dira aldaketak. Andres Urrutiak jarraituko du akademiaren buru izaten, eta hauek izango ditu taldeak: Jean-Baptiste Coyos, Adolfo Arejita, Sagrario Aleman, Miriam Urkia eta Roberto Gonzalez de Viñaspre -azken hau ere berria da-. Aretxabaletarrak azaldu du digitalizazioa, nazioartekotzea,

profesionaltasuna, gizarteratzea eta gizarteari zerbitzu publikoa eskaintzea izango dituztela helburu datozen hilabeteetan.

Ibilbide luzea

Urkia Euskal Filologian doktorea eta Euskal Filologian lizentziaduna da. Lexikografia, corpusgintza, morfologia konputazionala eta hizkuntza-teknologiak dira bere lan-esparruak. UZEIko langilea ere bada, 1983az geroztik. Lexikografia saileko zuzendaria da 1992tik eta, teknologiei lotutako lan lexikografikoekin batera, bereziki Euskaltzaindiari lotutako lanetan dihardu. Hiztegi Batuko lantaldeko kide da 1999tik eta Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arduradun 2013tik. Euskaltzain urgazlea da 2003tik, euskaltzain oso 2018tik -Aretxabaletako Arkupen izendatu zuten- eta Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkaria 2017tik.

Gure Eskuren 'Altxa!' ekitaldi politikoa bihar, zapatua

Hamaika gara ekimenaren sustatzaileek *Altxa!* izeneko ikuskizuna eta ekitaldi politikoa eskainiko dute larunbat honetan; Internet bidez eta hainbat herritan antolatu dituzten proiektioetan ikusi ahalko da. Sustatzaileek, nazioarteko erreferentziako pertsonak eta hainbat kultur gilek parte hartuko dute ekitaldian: Erika Olaizola, Iraia

Elias eta Laura Penagos aktoreek, Amets Arzallus bertsolariak eta Eñaut Elorrieta, Ruben Caballero eta Dupla taldeko musikariek. Ikuslerik gabe grabatuko dute, Plateruena Kafe Antzokian, eta www.hamaikagara.eus webgunean egongo da ikusgai. Sarrera larunbatean eskuratu ahalko da, webgunean bertan, hiru euroren truke. Internet bidezko eskaintzaz gain, hainbat herritan proiektioak antolatu dituzte, segurtasun neurriak zorrotz betez.



ZABALIK

IDOIA PEÑAKOBA ETXEBARRIA

Bat-batean, hiztegi berria

Egunkari, aldizkari, telebista eta sare sozialetan, etxean, lanean nahiz lagun artean, nonahi eta une oro dago COVID-19aren gaia pil-pilean. Gaurkoan, beste gai bat aukeratzeko tentazioa izan dudana arren –jada guztiak nazkatuta gauden ziurtasunean–, inertiak aurre hartu dit eta azkenaldian informazio iturri horietan guztietan nabaritutako zerbait partekatzeraz nator: koronabirusak hiztegi berri bat ekarri digula, hain zuzen ere. Eta ez nolana hikoia, gainera. Neurri handi baten, polizia-hiztegi-jargoiarekin antzekotasun handia topatu diot. Gure eguneroko hizkuntzan gero eta ohikoagoak bihurtzen ari dira *konfinamendu*, *aislamente*, *etxeratze-agindu*, *murrizketa*, *susmagarri*, *muga-itxiera*, *alarma egoera*, *salbokondutu* eta halako terminoak, polizia edota gerra-filmetan maiz entzundakoak, edota osasun mundutik

DENBORA GUTXIAN ETA ARRAPALADAN, ALDAKETA UGARI BIZI BEHAR IZAN DITUGU GURE BIZITZETAN

kanpo askorik entzun edota erabili izan ez ditugunak: *hidrojel*, *maskara*, *pandemia*, *koarentena*, *kutsatze tasa*, *serologiko*, *asintomatiko*, eta abar, eta abar. Proba txiki bat egin besterik ez duzu! Albiste bat


aukeratu, eta zenbatu horrelako zenbat aurkitzen dituzun! Koronabirusaren terminoen glosarioa ere sortu dela irakurri dut nonbait, eta, egia esan, ez da gutxiagorako.

Denbora gutxian eta arrapaladan, aldaketa ugari bizi behar izan ditugu gure bizitzetan, lehen normaltasunez egiten genituen gauza asko bat-batean debeku bihurtu direnak, edota inoiz imajinatuko ez genituen ohiturak, egun batetik bestera gureganatu behar izan ditugunak –maskara, bilera, besarkada eta muxu birtualak, etengabeko garbiketa...–, eta hitz egiteko darabilgun hiztegia!

Honek ere izango du bere akabera, baina, hau guztia amaitzen denean, gure betiko bizimodu eta ohituretara bueltatuko al gara, sortu dugun glosario horrekin batera amesgaizto hau ere gure oroimeneko tarte urrun baten zokoratuta utziz, edota honek ere utziko digu bere arrastoa?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Lurrak askatasuna behar du

OSKIA UGARTE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

-Arantza! Lurrikara bat izan da hori?

Gauerdia zen eta sare sozialak herabeki piztu ziren. Harriduraren eta ustekabearen artean handiago izan zitekeen erreplika baten beldurra zabaltzen hasi zen. Bi ordu eta 8 lurrikara txikiagoren ondoren ikaratzeko moduko beste astindu bat iritsi zen.

-Miren! Beste bat!

Orain bai.

Oraingoan sareak sutan jarri ziren segundo gutxitan eta iritziak, beldurak eta

zalantzak –umore garratzarekin batera– hedatze-uhinen antzera zabaldu ziren.

Aitortuko dut koronabirusaren garaiotan osasun gaitetik ateratzen nauen edozer eskertzen dudala, lurrikara dela ere.

Aspaldian sentitzen ez nuen zirrara berezi batek zeharkatu ninduen.

Bizirik nagoela gogorarazi zidan.

Azkenaldian, eta erakundeak haurren modura tratatu gaituzten post-COVID gizarte honetan, gauza guztiak kontrolpean ez ditudala oroitarazi zidan.

-Haurrak gure ohera ekarriko al ditut?

Zerbaitek gorputza zeharkatzen didanean, gorputza zerbaitetan jartzen dudanean, guztiak dimentsio eta neurri zehatza hartzen du. Bizipen horrek nire gorputzaren forma hartzen du eta nire bihurtuneetara egokitzen da. Margaret Atwood-en *Neskamearen ipuina* eleberria irakurtzen nuenean ere pertsonaia ezberdinen larruan jartzen saiatu nintzen: nola sentituko nintzateke nire askatasun pertsonala modu bortitz honetan murriztuko balidate? Edo nire bizitza nola bizi behar dudana esan?

- Maitia, musukoa hartu eta goazen kalera. Han onik egongo gara...

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooparatiiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen

aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Sortu behar dira gazteak euskaraz bizitzeko aukerak"

ASIER BASURTO SOZIOLOGIA KLUSTERREKO KIDEA

Karme Uribesalgo ESKORIATZA
Euskal Soziolinguistika Jardunaldia egin zuten asteazkenean Eskoriatzan, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Gazteen eta nerabeen hizkuntza errealitatearen inguruan jardun zuten adituek, ikerlariek, profesionalak eta aktibistek. **Zein da euskararen erabilera maila gazte eta nerabeen artean?** Hamaika modu daude horri begiratzeko. Nerabezeroan oso ohikoa da gazteek aldaketa bat eman eta gaztelaniara pasatzea. Hori da, batetik, eskolak eta familiak gazteen bizitzetan zentralitatea galtzen dutelako. Eskolaz kanpokoek, lagunartek eta medioetatik iristen zaizkien *input* guztiek, berriz, beste garrantzi bat hartzen dute. Izan ere, badago eskolaren eta erakundeen aldetik iristen diren mezuen kontrako jarrera bat gazteen artean; horietatik bereizi nahi dute.



Asier Basurto, Eskoriatzan, Euskal Soziolinguistika Jardunaldian. TXOMIN MADINA

Izaera propioa eratu nahi izaten dute, beraz, eta ez dute hori euskaratik gertu ikusten. Gazte izateko modu bat bilatzen du pertsona bakoitzak nerabezeroan; haur izatetik heldu gazte izatera

pasatzerakoan, nor bere izateko eraren bila aritzen da. Batzuetan, hori lotuta dago errebeldiarekin. Horrez gain, funtsezkoa da erreferente bezala dituzten helduen papera. Eragin handia du

horrek. Beste faktore bat da egunerokotasunean egin ohi dituzten jarduerak zein hizkuntzarekin lotzen dituzten. Horiek euskarazkoak badira, euskaraz bizitzeko modua aurkitzen dute gazteek, eta, bestela, ez.

Behin nerabezeroa pasata, itzultzen dira euskarara?

Batzuk bai eta beste batzuk ez. Euskarari eusten dioten gazteak edo muda bat egin ostean itzultzen direnak izaten dira beraien gazte izateko moduan euskaraz bizitzeko aukera aurkitu dutenak. Horiek dira, azken finean, eremu bat topatu dutenak ahalbidetzen diona gazte identitatea euskararekin lotzea. Izan daiteke, esaterako, kuadrilla euskalduna eta euskaltzalea izatea. Eman ohi den beste kasu bat da giro hori aurkitzea aisialdiko jardura batean. Eskolaz kanpo gazte izanik euskaraz bizitzeko aukera horiek sortzea da orain ikusten den erronka nagusia.

Zertan eragin behar da gazteek eta nerabeek euskaraz bizitzeko ohitura izateko?

Eskolan badago hausnarketa bat egin beharra. D eredia nagusitu da, baina hor barruan sekulako aniztasuna dago, bai gazteen testuinguru eta ezaugarri

soziolinguistikoetan, baita eskolak eskaintzen duenean ere. Berrikuspen bat egiteko beharra dago. Urte asko pasa dira D eredia martxan jarri zenetik, eta gauza asko berri behar dira. Momentu honetan, funtsezkoa da eskolatik kanpoko arloa ere indartzea eta aukera batzuk lantzea. Eskolak bakarrik ezin du egin euskarari dagokion guztia. Eskolaz kanpo sortu behar dira gazteek euskaraz bizitzeko aukerak. Hori ziurtatu behar dugu. Hor ez du balio helduek gazteei esateak euskaraz hitz egin behar dutela; lortu behar dira gazte identitateari lotuta dauden euskaraz egiteko aukerak. Horretan taldetasunak dauka garrantzi berezia. Adin horretan oso zaila da ibilbide indibidualak egitea, eta talde ahalduntzea bultzatu behar da. Lortu behar dugu hizkuntzaren gaiak hitz egitea konfiantzaz eta lotsarik gabe.

Bide onetik goaz?

Hainbat esperientzia klabe egokietan kokatuta daude; esate baterako, berdinen arteko eztabaida bultzatu behar dela argi dute eragile gehienek. Optimistak gara zentzu horretan. Agian, egin behar dena da gako horietan sakondu.

ITURRI ONETIK

'Altsasu' telesaila grabatu dute Bergaran

Altsasu telesaila grabatu dute azken asteetan ETB1erako. Grabazio leku horietako bat izan da Bergara. Martitzenetik barikura bitartean izan ziren, joan den astean, Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Epaiketaren unea grabatu zuten han, udaletxea epaitegi bihurtuta. Oraingo astean amaitu dituzte grabaketa lanak, Sorian -aurretik, Nafarroan eta Oiartzunen ere aritu dira-. Jon Olivares - Urko, auzipetuetako bat- eta Mireia Gabilondo -Olatz- dira protagonistetako bi.

ALBISTE IZAN ZEN

2010-10-27

Enpresagintzaren campus berria inauguratu zuten

Ikerkuntzaren, enpresaren eta hezkuntzaren campusa izateko bokazioarekin inauguratu zuten Oñatiko MUko Enpresagintza Fakultateren campus berria. MIK zentroa -kudeaketa ereduak ikertzeko zentroa- ere toki berean kokatu zuten. 20.000 metro koadroko gunea eta 8.500 metro koadroko eraikina, 1.000 ikaste hartzeko diseinatuta. 13 milioi euro pasako inbertsioarekin. Inaugurazioan: Josu Urrutia, Isabel Zelaa, Markel Olano...



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Egoera berriaren aurrean, umorea

Sare sozialetan berriro ere umorearekin erantzun dute erabiltzaileek, alarma egoera berri honen aurrean:

@koldotxu: "Jai. Konfinatu (produzitzeko izan ezik). Hil".

@Bizigogoz: "Udazken-negua pasako da eta, zer aterako da leize-zuloaren ahotik datorren udaberria? Zoratuko gara! #metamorfosia".

@reddantza: "Martxa honetan denak zoratuko gara; ero-etxean konfinatu beharko gaituzte".

@jozulin: "Asteburuko konfinamendua baino neurri gaiztoagorik, nekez".

@asier_k: "Euskal Herrira itzuli da konfinamendua..."



D2030: IRITZIA

XABIER LIZAUUR BEITIA / EKITERMIK

Trantsizio energetikoa, tokiko eredu baterantz...

Orain dela pare bat aste, online saio batean, lurraren biokapazitatearen inguruan jardun genuen. Sortu dugun bizi eredu honetan, lurra eman diezazkigukeen baliabideak baino gehiago behar ditugu. Datu bat: munduko herrialde guztiak Euskadiko bizi maila berean biziko balira, 2,65 Lur planeta beharko genituzke *erritmo* honi eusteko. Ez da zaila gure planetaren etorkizunarekin defizit batean bizi garela ondorioztatzea. Gure ondorengoei utzi behar diegun ondorez hitz egiten ari gara.

Beste eredu bat posible da

COVID-19ak sortutako egoera honek zerbait positiboa eman badigu, pentsatzeko denbora izan da. Gelditu egin gaitu eta karreraren bizi garen beste bizi eredu bat posible eta beharrezkoa dela erakutsi digu. Ezinbestekotzat genituenak kolokan jarri eta egunerokoa, gertukoa, balioan jarri dugu. Bizi garen lekua erdigunean jarri eta etorkizun jasagarri baterako ibilbidea marrazteko beharra dagoela konturatu gara. Energia konbentzional baten oinarritutako eredutik energia garbi batera eman beharrek trantsizioa ibilbide horretako giltzarrietako bat da.

Nire ustetan, eredu energetiko jasagarria da sorkuntza, kontsumo, garapen ekonomiko, sozial eta lurralde-ingurumenarekin bat egiten duena. Horretarako, hiru elementu nagusi bermatu behar ditugu: energiaren kostu jasagarria, lehiakortasuna eta ingurumenarekiko eta inguruarekiko bat etortzea.

Kostu altuan

Orain arteko ereduak sortutako kostu ekonomiko eta sozialak trantsizio energetikoa azkartu egin du. Europak trantsizioa hasi du, eta garaiz gaude eredu berri baterantzko



RICCARDO ANNANDALE / UNSPLASH.COM

olatua hartzeko. Tokiko eredu bat, non bertako eragile, herritar zein enpresek, elkarlanean, bertako transformazio energetikoaren alde lan egingo duten.

Herritarrek indar

Hasierako *brindis* honen ondoren, trantsizio energetikoa herritarrek daukaten garrantzia azpimarratu nahiko nuke. Trantsizioak era naturalean gertatu behar du, herritarrek diseinuan eta aplikazioan parte hartu

**COVID-19AK
SORTUTAKO EGOERAK
ERAKUTSI DIGU BESTE
EREDU BAT
BEHARREZKOA DELA**

behar dute. Aldaketa handien aurrean beti dago ziurgabetasuna; bidea pertsona arruntek aurrera eramaten dituzten ekintza txikiez egiten da. Trantsizioa guk geuk emango dugu, egunerokoa ingurumenarekin jasagarriak diren aspektuak txertatzen baditugu. Horregatik, herritarrei trantsizio energetikoaren partaide izateko erremintak eman behar zaizkie. Jabetu behar dute energia ez dela bakarrik gure garbigailuak,

**ARGI IZAN BEHAR
DUGU ENERGIARIK
GARBIENA
KONTSUMITZEN EZ
DEN HORI DELA**

argiteria... martxan jartzen duen hori, partaidetza eta demokratizazioa ere badela.

Partekatu beharra

Informazio, formazio eta eztabaida taldeak beharrezkoak dira gaur egun bizi dugun egoera energetikoa azaltzeko eta aspaldidanik komunikazio foroek mitifikatu dituzten ideiei buelta emateko.

Ezinbestekoa da inguruan izaten diren proiektu pilotu eta lantaldeek aurrera eramanez ditzaketan inizatiba liderrak beste

**BAILARA HONEK
BADITU EZAUGARRIAK
TRANSIZIO
ENERGETIKOA ERA
EGOKIAN EGITEKO**

eragile batzuei gerturatzea. Faktura energetiko bat ulertzea, energia berriztagarrien bitartez sortutako energia komertzializatzaile kooperatibo baten partaide edota energia norberak bere lekuan sortzeko instalazio fotovoltaiko bat izatea. Iniziatiba hauek ingurukoak sentsibilizatu eta praktikan jarri den hori zabaltzeko baliagarriak dira. Beti kontuan izanda energiari garbiena kontsumitzen ez dena dela.

Nork bere ekarpena

Horregatik esaten dut trantsizio energetikoa maila desberdinetan gertatu behar dela eta bakoitzak bere ardurarekin jokatu behar duela. Ez gaitetzen iraganeko akatsetan erori; denbora beharko dugu, hau ez da egun batetik bestera egiten den gauza, ezta epe motzeko negozioa. Trantsizioa era natural eta ez inposatuan gertatzen bada, aukera asko zabal ditzake. Gure bailarari erreparatu, bertako jarduera ekonomikoan eta enpleguan eragina izan dezake. Bertan dagoen ezagutza balioan jarri eta modu askotariko jarduerak sortu daitezke, berriak edota dibertsifikatuak. Fabrikazio, salmenta, ingeniariaritzan, muntaketa, instalazioan jarduten duten *palanka* ekonomiko berri baten sustatzaile izan daitezke, eta protagonismo hori inguruari bueltatu diezaiokete.

Jabetu behar dugu norbanakoak dugula energia eredu berriaren giltzatakoko bat, tokiko kudeaketan eta sorkuntzan oinarritutakoa. Bailara honek baditu ezaugarriak eta esperientzia trantsizio energetikoa era egokian gertatzeko. Gaur egun bizi dugun testuinguruak horretara bultzatzen gaitu; aprobeztatu eta egin dezagun bidea.

Josemari Muxikari erantzuna

ELENA HERRARTE

DEBAGOIENA 2030 EKIMENENKO
KOORDINATZAILE OROKORRA
ARRASATE

Kaixo, Joxemari. Pasa zen asteko GOIENAn irekitako elkarrizketari zenbait argiketa egitea egokia iruditu zait. Batetik, zenioen testuan aipatzen nituela abstrakzioan geratzen ziren hari-muturrak. Halaxe da, bi arrazoigatik: bat, iritzi artikulua idazteko eskaerari erantzunez, D2030en balio nagusien inguruko mezu iradokitzailea izan nahi baitzuen testuak, ez aditu begiradatik idatzia; bi, D2030 ekimena bultzatzen dugunon posizioa ez delako erronka gai anitzen gaineko adituena. Kolaborazio espazioak sustatzea da gure lana, askotariko eragile eta herritarrek, esperientzia eta ezagutza arlo anitzetatik, erronkak ulertu eta haietan eragiteko proposamen adostua eraikitzeo aukera diseinatu eta garatzea. Eraldaketa sustatzeko modu berrien bila dihardugu, esparru espezializatuetatik sortutako diagnostiko eta proposamen teknikoki perfektuen logikek erronka konplexuetan sakonean eragiteko mugak dituztela este dugu. Ez gara hortik ariko, prozesu komunitarioan bilatuko dugu elkarrekin; beste beste, arrakala sozialen interpretazioa, ikerketa, esperientzia, balio, emozio eta bestelako elementuak uztartuz. Gutunaren bigarren zatian, faltan sumatu duzu euskal hiztunen bazterketa konpontzeko proposamenen bat. Beharbada, orain arte ez dugu ikusarazi, baina, batetik, D2030 taldean,

eskualdeko euskalgintzan diharduten eragileak badira: Goiena, Emun eta Txatxilipurdi; eta, zeharka, ekimenaren proposamena eragiten ari da euskararen normalizazioaren dinamiketan ere. D2030ek, bestalde, euskararekiko konpromiso irmoa dauka, eta, bere ekinbidearen barruan, euskararen presentzia eta trataera lehenesten dugu %100ean. Gainera, ondo begiratzen baduzu, bada 14 prototipoen artean tokiko komunikabideen zentzua berrasmatzea helburu duen bat ere, Goienak sustatua, eta hortik, euskaratik eta euskararako proposamen berriak irtengo dira, ziur. Agian, ikuspegia ere aldatzeko ordua da, eta galdera berriak izan daitezke euskaldunon eskubideak berma daitezen sormen berriaren sua pizteko behar dugun egurra. Eskerrrik asko zure ekarpenengatik, Joxemari. Kafe baten bueltan segi dezakegu berbetan.

Kezka

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

OÑATI

Euskaldunok oso musikazale izan gara. Aspaldiko esaera bat: *Euskaldun bat, txapela. Bi, pilota partida. Hiru, orfeoia. Eta lau, mus jokoa.*

Euskal musika popularra, tradizionala, ugaria eta musikalki oso aberatsa da. Duela gutxi jakin dugu Versailles-en, XVII. eta XVIII. mendeetan, euskal musikaren melodiak eta dantzak entzuten eta ikusten zirela; hango errege-etxea Europako kultura-gune garrantzitsuena zen. Hango musikari Marin Marais-ek (1656-1728) bi obra euskal izenez argitaratu zituen: *Le Basque* eta *Biscayenne*. Frantziako beste musikari ospetsu batzuen obrak, *Bourrée de basque* eta *Bourrée pour les basques*, euskal musika tradizionalan oinarrituta daude. *Bourrée* hitzak *dantza tradizionala* esan nahi du, eta dantzak bere musika darama. Francois

Marie Arouet *Voltaire* frantses idazle, filosofo eta zientzialari ospetsuak (1694-1778) hau esan zuen euskaldunetz: "Aunamendi, Pirinioetako alde bietan dantzatzen duen Herria". Manuel Larramendi idazle eta euskaltzaleak (1690-1766) zioen Euskal Herriko elizetako ospakizunek ez zutela katedraletan egiten zirenen inbidiarik. Espainian urteetan han eta hemen ibilia zen, Loiolara etorri eta euskararen munduan buru-belarri sartu arte. Wilhelm von Humboldt filologo alemanak, Berlingo Unibertsitatearen sortzaile eta lehen errektoreak (1767-1835), badu dokumentu bat non hitz egiten duen euskal musikaz.

Euskal Herriak musikagile, organogile, organo-jole eta abeslari bikainak eman ditu. Apaiztegiak, monasterioak eta komentuak izan dira musikaren harrobi. Egungo musika-harrobiak, berriz, musika-eskolak dira, baina

organo ikasketak ez dira ematen ia inon, eta, herri askotan organo bikainak izan arren, horien soinu zoragarriak entzuteko abagune gutxi dugu, gero eta organo-jole gutxiago dagoelako. Martxa honetan, laster, organo bat baino gehiago mutu geldituko da, ez bada zerbait egiten. Gazte gehienek ez daukate aukerarik organoa ezagutzeko. Musika tresna zoragarria eta hain tradizio luze eta bikaina duena. Gazteei ikasketak egiteko erraztasunak eman behar zaizkie. Musika mota eder hau entzutea merezi dugu, ematen diren kontzertu berezi batzuei itxoin barik. Ez diezaiogun uko egin musikaren historian hasieratik gaurdainoko tradizio garrantzitsu honi.

SQM gaixoeak janari ekologikoa bakarrik kontsumitzen dute

JOSU GARITONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT'
EGITASMOAREN ARDURADUNA
BERGARA

Sensibilidad química multiple edo *sentikortasun kimiko anizkoitza* gaixotasuna gero eta pertsona gehiagok sufritzen dute. Koloniek, pinturek, bernizek, garbitzeko produktu gehienek, autoen keak, uraren kloroak, eta abarrek kanporatzen dituzten produktu kimiko desberdinek gaixoarazten dituzte pertsona horiek. *Normaltasun* baten barruan min barik bizi nahi badute, neurri bereziak hartu behar dituzte; gehienetan, bakardadea ekartzen die horrek.

Beharbada, gitariko batzuek gaixotasun hau garatzen izan dezakegu, baina denok egin dezakeguna da elikagai ekologikoak kontsumitu; azken finean, gaixo horiei ondo joaten bazaie, guri ere ondo etorriko zaigu.

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali
gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

Gizarte zerbitzuak indartu, kulturari eutsiz

Udal Gobernuak "gizarte-babesa bermatu eta inbertsio-maila handitzen duen aurrekontu proposamena" aurkeztu die alderdi politikoei. 2021erako proposamenak, 2020koarekin alderatuta, %2,8ko igoera du: 35.800.000 euro, guztira

Eneko Azurmendi ARRASATE

Udal Gobernuaren esanetan, proposamena bi funts nagusi betetzera bideratuko da. "Herri-tarren babesa eta ongizatearen bermea, eta garapen ekonomikoa eta Arrasateren etorkizuneko zimendu eta proiektuen garapena", adierazi du Maria Ubarretxena alkateak. "Kontu aurrekoiak dira, eta erabat salbuesenezkoak, onartzen diren testuinguruagatik. COVID-19ak eragindako pandemiagatik Udalaren sarrerak murriztu diren arren, inbertsio publikoa herriaren traktore izatea dugu jomuga, ingurune sozial zein ekonomikoa berreskuratu arte".

Arrasateko Udalak sustapen neurriak ezarri ditu "lehen unetik", alkatearen esanetan: "Laguntza soziala indartu dugu, ehun ekonomikoari babes neurriak eman dizkiogu, sustapen kanpaina bultzatu dugu eta inbertsio oro mantendu". Hori, gaineratu duenez, 2019ko aurrekontuaren 3.000.000 euroko gerakina baliatuz gauzatu du Udalak. "Bide beretik jarraitzeko proposamena aurkeztu dugu".

Diru-sarrera gutxiago

2021eko aurrekontua osatzeko diru-sarrera aurreikuspena, Udal Gobernuaren esanetan, 32.800.000



1.600.000 euro bideratuko lirategi Juan Arzamendira eta Kulturolarra. J.B.

eurokoa da, "iaz baino 2.000.000 gutxiago". Hori dela eta, 35,8 milioi euroko aurrekontua osatzeko, 3.000.000 euroko mailuega eskatzea aurreikusit du.

Partidarik handiena, kulturara

Arloz arlo aztertuz gero, kulturara bideratuko litzateke diru partida handiena, "bereziki Kulturola eta Juan Arzamendi Musika Etxearen proiektuak amaitzeko diru partidak bertan ezarri direlako": 1.602.341,26 euro, hain zuzen. Aurtengoa baino %22 gehiago izango litzateke hori.

Era berean, gizarte zerbitzuak izango lirategi igoera handiena edukiko luketenak. "Pandemia dela eta, etxez etxeko zerbitzu zein pobrezia kontrako larrialdi planetarako aurrekontuek %40ko igoera izango dute. 1.229.000 euro bideratuko dira bi egitasmo horietara". Horrez gain, babesgabeko egoerei aurre egiteko zerbitzuaren aurrekontua 322.950 eurokoa izango litzateke eta tutoretzapeko etxebizitzien laguntza zerbitzua ere indartuko litzateke, sail osoa 60.000 eurokoa izanik.

Halaber, *Lan ere bai* programa indartzeko asmoa du Udal Gobernuak, 75.000 euroekin, eta dependentzia baxua duten pertsonen zuzendutako eguneko zentroaren obrak, Garibai Ieko lokalekoak, 50.000 euroko kostua izango luke.

Tokiko merkataritzari dagokionez, aurrekontuan igoera nabarmenak honako hauek izango lirategi: dirulaguntzetan 33.000 euro gehiago eta merkataritzako ekintzetarako 12.000 euro gehiago. Arlo horretara 250.180 euro bideratuko lirategi.

'Ekobulebar'-ak ere, zati handia

Hirigintzan, 2021eko urtarrilean hasiko dituzte *Ekobulebar*-a egiteko lanak, eta 1.250.000 euroko partida ezarriko litzateke funts hori betetzeko. Horrez gain, zuntz optikoaren ezarpena bultzatuko litzateke erdigunean zein baserrietan: "Zuntz optikoa erdialdean jartzeko proiektua egiteko 20.000 euroko partida sortzea proposatzen du Udalak, eta baserrietara bideratzeko Aldundiaren bitartez egingo da lana".

Leintzibar kalean bidegorria egiteko proiekturako, bestalde, 15.000 euroko partida hobetsi du Udal Gobernuak, "Araba etorbideko eta Arrasate pasealekuko bidegorri sareak lotzeko".

Horrez gain, Galizia kaleko igogailu publikoaren proiekturako 110.000 euro bideratzea ere proposatu du, eta baita beste bi diru partida egitea ere: "Gargartza auzoan fibro-zementuko hodiak aldatzeko 150.000 euroko partida ezarri da eta Obenerrekako frontoian parkour parkea egiteko, 120.000 eurokoa, Arrasate kirol-herria izatea bultzatuz".

Azkenik, Udal Gobernuak azaldu duenez, herri-autobus linea berria jarriko da martxan, "zu-

zenagoa", TAoren egitasmoaren baitan zentroa eta disuasio-parkingak konektatuko dituen *lanzadera* modura -217.500 euro-. Hala, herriko garraio publikoaren zerbitzura 747.500 euro bideratuko lirategi, eta, garraio publikoa "irabazi asmorik gabeko zerbitzua" izanik, 110.000 euro bideratuko lirategi horrek eragingo lukeen defizita estaltzera.

Arlo ekonomikoan, Udal Gobernuaren proposamena da 420.000 euro bideratzea langabeak kontratatzeko, enplegu planaren baitan. Horrez gainera, enpresa berriak sortzen laguntzeko 35.000 euro aurreikusten ditu, langabeen formakuntza hobesteko 30.000 euro eta langabeak kontratatzeko laguntzetara bideratzeko 87.500 euro.

Bi partaidetza prozesu

Udal Gobernuak 250.000 euroko diru partida ezarriko luke prozesu parte-hartzaileak bultzatzeko. "Hainbat egitasmoren artean, Jose Luis Iñarra kalean, Altamiran eta Altamirazpin zer egin erabakitzeko prozesu parte-hartzailea martxan jartzeko 15.000 euroko partida bat sortzea proposatu du Udal Gobernuak, eta herritarrek kiroldegi berria nolako izatea nahi duten irudikatzeko, 20.000 eurokoa".

Proposamena gainontzeko alderdiei aurkeztu ostean, Udal Gobernuaren helburua da abendu hasieran 2021eko aurrekontua onartzea.

POBREZIAREN KONTRAKO LARRIALDI PLANA ETA ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAK %40 IGOKO LIRATEKE

Hilerrriak 275 pertsonako edukiera izango du domekan

Domu Santu egunean, 275 pertsonako edukiera izango du Arrasateko hilerrriak eta klastro bakoitzean, aldiz, 75 pertsona egon ahal izango dira gehienez. Nitxoegunean, bestalde, 120 pertsonakoa izango da edukiera eta hezurtegian, familia bakarra -bost pertsona gehienez-.

Era berean, garraio publiko berezia egongo da hilerriraino,

10:00etatik aurrera, bihar orduero eta etzi ordu erdian behin.

Udaltzaingoa ezarritako neurrien arabera, ezingo da hilerririko sarreran aparkatu, eta ibilgailu partikularrek Jose Luis Iñarratik igo eta Meatzerrekatik jaitsi beharko dute.

Elizak adierazi du ez dela egingo Santu Guztien Egunean hilerrian egin ohi zen ekintza. "Arau-mugen eta COVID-19ren aurrean Udalak eta Arrasateko parrokoak gaia aztertu ondoren" hartu dute erabakia.

Musakolako erretiratuen etxeko taberna, lehiaketara

Taberna-aretoaren zerbitzua ustiatzeaz gain, instalazioaren garbitasuna egin behar da, eta erretiratuen etxeko atezaintza zein mahaletako zerbitzua ere emango da. Kontzesioaren epea urtebetekoa izango da, eta gehienez lau urte luzatu ahal izango da. Halaber, esleipendunak ez dio Udalari ordaindu beharko ustiatzetik sortutako kanonik.

Kontzesioduna behartuta dago erretiratuen etxe horretan lan egitera, eta herritarrei zerbitzua emateko prest egon beharko du, baita erretiratuen etxeak dituen zerbitzu guztiak emateko ere, honako ordutegi honetan: astelehenetik egubakoitzera 10:30etik 14:00etara eta 15:00etatik 21:30era eta zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan 11:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 22:00etara.

Izena emateko epea azaroaren 4an amaituko da, BAZen edo www.arrasate.eus webgunean.

Udalak berretsi du Grupo San Juango mantenduko duela

Aurreko astean GOIENAK jakinarazi zuen bezala, Grupo San Juango bizilagunak eta Udal Gobernuak ados jarri dira, eta Udalak erabaki hori berretsi egin du astean. "Proiektua berrikusi egingo da, eta saneamendu-aldagaia txertatu; horrela, azpiegitura osorik berretuko da, bizilagunekin lankidetzan", azpimarratu du.

Oroitzapen ekitaldia Maite Urzainen eskutik

San Felipe Elkarlaguntzako bazkide talde batek "modu boluntarioan" antolatuta, 'In memoriam' izeneko saioa egingo dute azaroaren 3an, Kulturateko areto nagusian, 18:30ean: "Itzaletan gelditu diren oroitzapenak argi eremura ekarri nahi ditugu"

Eneko Azurmendi ARRASATE

Saioaren helburua garbia da: "Bizi izan dugun hutsune horiei hitzak jartzea, gure barruan gertatzen ari dena ulertzea, sentitzen ditugun emozio eta sentazioekin bizitzen ikastea. Azken hau da batzuetan gehien kostatzen zaiguna. Azkenik, geure burua bizitzarekin lotzea", adierazi du saioa gidatuko duen Maite Urzain doluan adituak. "Alde batetik, hil direnei mezezi duten espazioa eta aitortza eman nahi diegu ekitaldian, eta, bestetik, hilabete hauetan babesa eta sostengua eman duten horien garrantzia azpimarratu nahi dugu", gaineratu du.



Maite Urzain, doluan aditua. M.U.

Topaguneari jarraipena emanaz

Otsailean hasi zuten hitzaldi ziklo baten baitako saioa izango da martitzenekoa. "Hitzaldi terapeutiko batzuk egiten hasi ginen otsailean, *Gertuko senidea edo laguna galdu dutenen topagunea* izenarekin, baina bakarra egin ahal izan genuen. Dolua modu komunitario eta natural bezala sustatu gura genuen, bai Arrasaten eta baita bailara mailan ere. Beraz, intentzioa zen hilean behin saio bat egitea, gertuko senideren bat galdu dutenen topagune", dio Urzainek.

San Felipen bertan egin zuten lehenengo saioa "oso ondo joan" zela dio, "oso intimoa" izan zela.

"Izan ere, ez dugu nahi maite izan ditugun senide edo lagunekiko sentimenduak desagertzea, baizik eta sentimendu horiek une partekatuen oroitzapenarekin bizitzen jarraitzea".

Urzainek dioenez, martxoan, apirilean eta pandemiaren hasieran, batez ere, pertsona batzuei bakarrik hiltzea egokitu zitzairen. "Beste batzuk agur errito barik agurtu genituen, eta, orokorrean, ezohikoak diren isolamendu eda bakardade momentuak bizi izan ditugu. Azaroaren laren bueltan, bestalde, egongo dira familia batzuk badaukatenak nora joan edo sentimenduak adierazteko moduren bat daukatenak, baina beste batzuek ez daukate dolua non partekatu. Beraz, horiei bide eman gura diegu".

Izena emateko aukera dago

Interesa daukanak 943 77 30 22 telefonora deituta edo funeraria@sanfelipe.eus helbidera idatzita eman dezake izena. "Komeni da esatea zenbat pertsona joango diren, ondo antolatu ahal izateko. Jende gehiegi egongo balitz, saioa errepikatuko genuke beste egun batean".

Artgazkiren ekimenarekin bat egin du Ibai-artek

Batutako dirua Asociacion Española de Raquitismos y Osteomalacia Heredados elkartearantzat izango da aurten. "Alberto Caballero lankidea dut eta bere semeak errakitismoa du, gaixotasun arraro bat. Beraz, aurten elkarte horri laguntzea erabaki dugu", azaldu du Anibal Carmona Artgazkiko kideak. Dirua batzeko, batetik, Artgazkik bi euro bideratuko ditu elkartera, aurkezten den argazki bakoitzeko, gehienez 750 eurorainoko ekarpena egin arte. Bestetik, Ibai-artek lagunduko du. "Argazki onenak inprimatu egingo dituzte eta Ibai-artek bere gain hartuko du kostu hori. Gero, dende erakuslehoetan ipiniko dituzte argazkiak, errakitismoa bistaratzeko eta herritarrak sensibilizatzeko". Gainera, argazkiak erosteko aukera ere izango dute herritarrek. Oraingoz, 30 bat komertzio egin dute bat ekimenarekin, baina azaroaren 30era arte edukiko dute horretarako aukera.



SAN FELIPE
ELKARLAGUNTZA

Alfonso X Jakintsua 3
Arrasate 20500

24 ordu: 943 532 910
Bulegoa: 943 773 022

www.sanfelipe.eus
funeraria@sanfelipe.eus

SAN FELIPE ELKARLAGUNTZA irabazi asmorik gabeko entitate da, duela 122 urte Arrasaten sortua. Gaur egun, 12.200 bazkide baino gehiagori ematen die estaldura.

Elkartasunaren, konfiantzaren, kudeaketa-gardentasunaren eta elkarrekikotasunaren printzipioen arabera antolatuta dago.

1898TIK
DEBAGOIENEN
ELKARLAGUNTZA



ZUZENDARITZA BATZORDEA

Lehendakaria	Iñaki Aranburu Agirre
Lehendakariordea	Iñaki Roa Bedia
Idazkaria	José Julio Heriz Iria
Diruzaina	Estibaliz Mendarozketa Ugarte
Bokalak	Arantza Azurmendi Urria
	Gustavo Carrero Díez
	Juan Cruz Igoa Irizar
	Isabel Gallastegi Madinabeitia
	Lourdes Lage Guridi
	M ^º José Madinabeitia Esnal

PRESTAZIOAK

Bazkide baten heriotzagatik hurrengo gastuak ordainduko ditu:

- Hildakoa hiltzen den tokitik bizi zen herrira eramatea –Espainia barne–.
- Atzerrian gertatutako heriotza-gastuak, gehienez 3.900 euroko estaldurarekin.
- Heriotzako osasun-ziurtagiria eta Auzitegiaren izapideak.
- Ehorzte-zerraldia.
- Eskelak jartzea.
- Hildakoen janzte lanak.
- Hileta ibilgailua.
- Tanatorioa eta errausketa-labea aukeran.
- Hainbat gastutarako 750 euroko ekarpena.

BAZKIDE IZATEAREN ABANTAILAK

- Heriotzaren gastuei elkarrekin aurre egitea
- Bere osotasunean, gure bazkideentzat merkatuko errentagarriena
- Bazkide izateko 40 urtera arte doako sarrera
- Heriotze une zailetan ohituta ez gauden zenbait kudeaketa saihestea
- Konfiantzako gertuko pertsonen babesa izatea

**INFORMATU ETA
EGIN BAZKIDE**

Herrigintza eta kultura hauspotzeko asteburua

Gaur, bihar eta etzi, askotariko ekintzak egingo dituzte gaztetxean, Herrixa Bizirik! egitarauaren baitan. "Arrasateko herrigintzari eta bailarako musikariei arnagune bat eskaini nahi izan diegu egitarau honen bitartez", nabarmendu dute antolatzaileek

Eneko Azurmendi ARRASATE

Arrasateko Txosna Batzordea, Arrasateko gaztetxea eta Arrasateko Euskaraldia dira egitarauaren antolatzaileak. "Lanean ibili garela genioen duela pare bat aste sare sozialen bitartez, eta gaur, lan horren fruitua aurkeztera gatzokizue. Urriaren 30a, 31 eta azaroaren 1a hartzen dituen asteburu honetarako hainbat ekintza antolatu ditugu. Asteburu zinez berezia da honako hau, gainera, Gaba Baltza ere urriaren 31n ospatzen baita", adierazi dute.

Halaber, azken hilabeteak "denontzat zailak" izan direla azpimarratu dute, "baita Arrasateko herri mugimenduarentzat eta herriko zein bailarako talde eta kultur gileentzat ere". Aldi berean, diote gaur egungo egoerak ere "mesede gutxi" egingo diola inori datozen hilabeteetan. "Horregatik, Arrasateko herrigintzari eta bailarako musikariei arnagune bat eskaini nahi izan diegu egitarau honen bitartez; herrigintzako eragileak eta talde txikiak bizirik irtengo badira, herri mailako erantzun kolektibo autogestionatuei esker izango da eta", gaineratu dute.

Bilkura "ibiltaria" gaur

Bestalde, hilabeteko azken egubakoitzetan Sarek antolatzen duen euskal preso aldeko elkarretaratzerara ere batuko dira. "Gurekin egon ezin direnak go-goan izango ditugu eta arrasatear oro hileko azken ostiralero egiten den bilkurara gonbidatu nahi genuke", azaldu dute. Hilero legez, gaur 19:30ean egingo dute bilkura, Herriko Plazan, baina oraingo hau "berezia" izango da. "Bilkura ibiltaria izango da, herriko kale eta plazetan zehar joango dena. Eta, noski, gu ere bertan izango gara euskal preso eta iheslari politikoekin etxeratzea aldarrikatzen. Ez gaude denok!", diote.



Rebel Noise taldeak kontzertua eskainiko du gaztetxean. R.N.

Asteburu osoko egitaraua

Egubakoitza

- **19:30** Presoen aldeko bilkura, plazan.
- **20:00** Indai taldearen kontzertua, gaztetxean.

Zapatua

- **10:30** *Historia ikuspegi energetikotik* hitzaldia, Aimar Uribealgoren eskutik.
- **12:30** Hekatombe taldearen emanaldi akustikoa.
- **18:00** Rebel Noise eta Txerrikumeak taldeen kontzertua.

Domeka

- **12:30** Bingo musikatua.
- **14:00** Kalabazaren lehiaketako irabazlea.
- **18:30** Kontzertu akustikoak: Leire Etxezarreta eta Aitor eta Pello.

Askotariko ekintzak gaztetxean

Gaurtik bertatik hasita, kontzertuez gozatzeko aukera izango da gaztetxean, herriko eta inguruko musikariek: Indai, Hekatombe, Rebel Noise, Txerrikumeak, Leire Etxezarreta eta Aitor eta Pello.

Bestetik, *Historia ikuspegi energetikotik* hitzaldia egingo du Aimar Uribealgok, Oñatiko Natur Eskolako hezitzaileak.

Bingo musikatua ere egongo da, eta asteburu osoan zehar kalabazaren lehiaketa egingo dute. "Kalabazaren pisua asmatu beharko dute parte-hartzaileek, eta domekan jakinaraziko dugu zenbat pisatzen duen eta, ondorioz, zeinek irabaziko duen".

Materiala salgai

Euskaraldian izena emateko aukera ere egongo da gaztetxean bihar arratsaldean. "Ea horrela Arrasate ere euskararen arnagune bilakatzea lortzen dugun denon artean". Bestalde, herriko hainbat eragileren materiala ere salgai izango dituzte. "Herri mugimenduak horren beharrezko duen sostengua lortzea izango da helburua. Animatu eta jarri zuen aletxo!".



TXATXILIPURDI ELKARTEA

Abestia eta bideoklipa egin dute

Txatxilipurdi eta Ttak! elkarteetako kide batzuek, Gaba Baltzaren harira, *Arimen biltzara* abestia sortu dute, eta bideoklipa. "Gustatuko litzaziguke abestia herrian sustraitzea eta datozen urteetan ere erabiltzea egun honen bueltan", azaldu dute. "Herrian, Debagoienan edota Euskal Herri osoan zabaltzea nahi dugu". *Goiena.eus*-en daude abestia eta letra osoa.



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Ez dira huskeria

Birusa. Birusa besterik ez. Elkarrizketak, albisteak, aisialdia... Guztia dabil biraka gai handiaren inguruan. Baina gai bakarraren burrunbak, zifren dantzak, komunikabideen alarmismoak eta etengabeko karrankak pentsatzeko gaitasuna kentzen digute; horixe da shockaren doktrina, zaparrada mediatikoak gure barruko ahots kritikoa isilaraztea; guztiok gai bakarraren bueltan obsesionatzea. Inor ez da kezkatzen, aurren, Euskal Herrian lanean hil diren 54 pertsonen, pobrezian bizi direnez, ustelkeria endemikoak, lanaren degradazioaz... Ez dago alarmerik hor. Noski, fokua non (ez) jarri erabaki politikoa da.

Azkenean, etxetik lanera eta lanetik etxera bizimodu distopikoa txalotzera eraman gaituzte; antolatzeke, biltzeko, protestatzeko, elkartzeko espaziorik gabea. Ahaztu egin zaigu antolatzea, biltzea, mugitzea, protestatzea, elkartzea... giza eskubideak direla, eta nire kezka da, hurrengo arazo soziala datorrenarako, sinetsita egongo garela eskubideak bertan behera utzi daitezkeen pribilegioak direla; segurtasunaren itzaletan desagertzen diren huskeriak.

'Egunean behin' jokoaren Arrasateko Herri Taldea, martxan

Astero bi sari banatuko dituzte. "Bat asteko lehen sailkatuarentzat eta bestea asteko parte-hartzaile guztien artean egingo dugun zozketaren irabazlearentzat". Astelehen goizetan jakinaraziko dituzte aurreko asteko irabazleak, sare sozialen bitartez. "Astebete izango dute saria jasotzeko, AEDn". Euskaraldiko materiala izango da saria.

OHARRAK

Kirol zerbitzuen etena

Arrasateko Kirol Zerbitzuek eskaintzen dituzten ikastaro guztiak bertan behera gelditu dira, berriz abisatu arte.

Bonuen azken egunak

Bihar, zapatua, da Ibaiarteren merkataritza bonuak eskuratu eta gastatzeko azken eguna. Bonu bakoitzak 30 euroko balioa du, 5, 10, eta 15 euroko zatitan banatuta.

Urratsez urrats, gazteenak oholtzara

Doke antzerki taldea Arrasaten antzerki eskola sortzeko oinarriak jartzen aritu da aurtengoz; zailtasunak zailtasun, haur eta gaztetxoentzako hastapen ikastaroak abiaraziko ditu azaroaren 9an, konpainiako antzezle Maider Alzelaireren eskutik

Hasier Larrea ARRASATE

Kosta bazaio ere, herriko antzerki konpainiaren aurtengo proiekturik garrantzitsuenak argia ikusiko du azkenean. Antzerki eskola sortzeko bidean, lehen ikastaroak jarriko ditu martxan Doke konpainiak azaroaren 9tik aurrera.

Oraingoz, 35 ikaslek eman dute izena bi adin-tartetan banatuko diren klaseetan: alde batetik, 8 eta 11 urte arteko haurrak egongo dira; eta, bestetik, 12 eta 15 urte arteko gaztetxoak. Segurtasun neurriak betetzeko asmoz, sei antzezle hasiberri osatutako taldeek jasoko dituzte eskolak, asteleheneratik asteazkenera bitartean. Ikastaroek azarotik ekainera iraungo dute, bakoitzari ordu eta laurdenero iraupena eskainiz; 16:45ean hasiko dira lehenak, eta 18:00etan bigarrenak.

Dokeko aktore Maider Alzelai arrasatearrak gidatuko ditu jardunaldiak, eta, antzezleak aipatu bezala, izen emateak zabalik jarraitzen du. "Urtarrilean, adibidez, interesaturen bat gerturaten bada, ez dizkiogu atea itxiko, guztiak dira ongietorriak gurera", adierazi du Alzelaiak. Udaltzainen egoitzaren alboan garatuko dira antzerki irakaspenak, Juan Arzamendiko obrak amaitzen diren arte. Telefonoz edota posta elektronikoz kontaktak daiteke informazio gehiago jasotzeko, 665 11 85 72ra deituta edo dokeikastaroak@gmail.com helbidera idatzita.

Joan den otsailean aurkeztu zuen proiektua Udalean Doke antzerki konpainiak, eta partida bat osatu zen egitasmoa aurrera ateratzeko. COVID-19ak azarora arte luzarazi du hasiera, baina hil horretan martxa hartuko duelakoan da Alzelai. Proiektuak esperotakoa baino erantzun hobea izan duela nabarmendu du, eta antzerkiarekin lotutako jarduerak ugariri bidea



Doke konpainiako kideak, Umezaintzako ikasleekin. DOKE ANTZERKI TALDEA

"ESPEROTAKOA BAINO ERANTZUN HOBEA" JASO DU ANTZERKI HASTAPEN IKASTAROAK

egiteko proba bezala ere balio izango duela gazteenekin abiatuko duen esperientziak: "Aurrera begira helduei zuzendutako antzerki eskolak ere antolatuko asmoa daukagu".

Ikasleek aurkituko dutena

Antzerki hastapenean zentratuko diren heinean, arte diziplina horrekin lehen kontaktua egitea izango da asmoa. "Neska-mutilek egin ohi dituzte antzerkiarekin zerikusia duten ariketak eskolan, baina guk astiroago landuko ditugu edukiak", dio Alzelaiak.

Jolasak eta inprobisazioak tresna baliagarriak izango dira lortsak ahaztu eta antzezlearen rolaz jabetzeko. Poliki-poliki, teknika desberdinak lantzen joango dira ondoren: itzal bidezko antzerkia, *kamishibai* edo paperezko antzerkia, txotxongioloak eta ipuin kontaketa, bes-

teak beste. Emanaldi xumeekin aurrez ikasitakoa jendartean, gurasoen aurrean kasu honetan, aurkeztuko dute azkenik. "Antzerki-obra baten prozesu guztia azaldu nahi diet aktore berriei, une oro taldean gustura egon eta gozatzen dugun bitartean", zehaztu du irakasleak.

Doke konpainia, 2021ari begira

Antzerki eskolaren proiektuan buru-belarri baldin badabil ere, antzezle taldeak badauka publikoari eskaintzeko obra bat esku artean, nahiz eta, momentuz, balazta jarri behar izan dioten; kulturak bizi duen egoera hobetzen den arte, behintzat. Anton Chejov dramaturgo errusiarren lan bat ontzen ibili dira, zehazki, 2020an zehar, datorren urtean taulartzeko asmoarekin. "Aktore-lanetan jarduten dugunez gero, osasun-krisiak zuzenean eragin digu antzezleoi, elkartzean eta harremanak egiterakoan, batez ere", aitortu du Alzelaiak.

Aurtengo urte makur hau antzerki ikastaroerik ezker zapo gozoarekin ixtea ez da albiste makala izango Doke antzerki konpainiarentzat. 2021ak emanango duena, ezin interpretatu.



¡Ave, osos! antzezlanaren momentu bat. EL MONO HABITADO

'Hartz' bikote batek familia eta maitasuna jarriko ditu kolokan

'¡Ave, osos!' antzerki obra interpretatuko du El Mono Habitado konpainiak domeka honetan Amaia antzokian

H.L. ARRASATE

40 urteko adina duen bikote batek hitz egiten duen baten bisita jasotzen du, zeinek esaten dien mesias berri bat helduko dela mundura eta eurak izango direla haren gurasoak. Modu bitxi horrekin hasten da gizarte eredu berri bat eztabaidatzea helburu duen antzerki obra, non maitasun eta familia moldeak une oro jartzen diren zalantzan.

El Mono Habitado konpainiako Raul Camino autore eta antzezlearen iritziz, "halako obra gay bat plazaratzea ezinezkoa izango litzateke duela 20 urte; beraz, badauka transgresio puntu bat". Lau protagonista arduratzen dira ikuslea komedia ero eta dibertigarri horretan murgiltzeaz: aitatasuna asumitzen duen gizona, profezien bitartez irteerak aurkitu nahi dituen bikotekidea, egoera kontrolpean eduki nahi duen apaiza eta gu-

rasoei laguntza eskaintzen dien bizilaguna. Guztien artean gizartearen errepresentazio murrizta daukaten kolektiboengana hurbiltzeko saiakera egiten dute obran zehar.

Lehen aldiz sala handi batean

¡Ave, osos! obrak ibilbide polita egin behar zuen aurtengoz inguruko antzerki zirkuituetan barrena, baina, emanaldi gehienak atzeratuta, lau aldiz baino ez da taularatu, oraingoz. Etxikoa areto handi batean aurkeztuko den lehen aldia izango da, beraz. Aurretik, beste hamabi emanaldi dauzka El Mono Habitado konpainiak, eta hurrengoa Basaurin eskainiko dute.

Kultura segurua dela aintzat hartuta, domekan barre egin eta hausnartzeko aukera izango da, 19:30ean hasita. Gaztelaraz interpretatuko da ikuskizuna eta sarrerak 10 euro balioko du.

Iraia Manikura

- Errasiar manikura
- Manikura erdi iraunkorra
- Shellac manikura
- Pedikara
- Makillajea
- Automakillajea
- Depilazioa:

ZABALDU BERRIA!

Bekainak / goiko ezpainak

Maalako Errabala 6 • Arrasate • Tel.: 627 07 45 92



Markel Arriolabengoa baso ingeniaria neurketak egiten, basoan. ERREZ KOOPERATIBA

Bestelako basogintza eredu baten alde egiteko beharra azaldu dute

Errez Kooperatiba Aramaioko mendi publikoen kudeaketa plana egiten dabil. Urte amaierarako idatzi behar dute plana, eta horretarako herritarren proposamenak jasotzen ibili dira. Egungo eredia bukatu egin dela diote: "Inflexio-puntu batean gaude"

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Aramaioko mendi publikoen kudeaketa plana egiten dihardu Errez Kooperatibak. Prozesu parte-hartzailea izan da; Udalarekin eta beste zenbait eragileekin bilerak egin ostean, martitzenean, herritarrei zuzendutako bilera irekia egin zuten, kultura etxean. Azken bilera izan zen, eta han jasotako proposamenekin idatziko dute plana, urtea bukatu baino lehen.

500 hektarea jabetzan

Errez Kooperatibako kide Markel Arriolabengoa eta Iñaki Etxebestek Aramaioko lurren egoera zein den azaldu zuten. Gaur egun, 500 hektareatik gora ditu Udalak jabetzan; eta beste 1.000 hektarea inguru Diputazioaren dira. Planak, baina, Udalaren jabetzako lurretan bakarrik eragingo du.

500 hektarea horietatik erdia hazkuntza azkarreko koniferoz osatuta dago eta beste erdia bestelako hostozabalek edo larreak osatzen dutela azaldu zuten. Urteetan, baso horiek ekoizpen modu ezberdinak izan dituzte herritarren uanean uneko beharrei erantzun ahal izateko. XX. mendean, esaterako, Udalaren behar ekonomikoei aurre egiteko pinu landaketa hedatu zen. "Udalak herri lurretatik etekin garrantzitsuak atera izan ditu urtero. Azken urteetan, baina, egurraren prezioa jaitsi egin da eta pinua ez da lehen

UDALAK HERRI LURRETATIK ETEKIN GARRANTZITSUAK ATERA IZAN DITU URTERO

bezala hazten... landaketa oso gazteak daude gaur egun eta hemendik urte gutxira etenaldi bat egongo da", azaldu du Markel Arriolabengoa.

Egun, basoa ez da errentagarria Ziurgabetasun egoera horren aurrean basoen kudeaketarako eredia zehaztea ezinbestekoa dela nabarmendu dute: "Ikusi da egungo basoak ez direla errentagarriak, ezta jasangarriak ere. Bertako basoa ekoizteko beste modu batzuk bilatu behar dira. Inflexio-puntu batean gaude".

Azken hogeitaz Aramaioko Udalak burutu dituen lanen etekina ere ebaluatu zuen Errez Kooperatibak: 1,2 milioi euroko balantze positiboa izan da. "Zifra horrek ez ditu kontuan hartzen aurretik egindako lanak. Lan guztiak eta dirulaguntzak kontuan hartuta, balantze erre-



Martitzeneko bilera irekia, kultura etxean. A.E.

Hogei urterako izango den plana

Dozena bat herritar elkartu ziren martitzenean kultura etxean. Orain idatziko den kudeaketa planak hogei urte iraungo du. Azkeneko kudeaketa plana 2007an egin zen; orduko legearen arabera, plan haren iraupena hamar urtekoa izan zen.

la 150 euro hektareako eta urtereko izango litzateke. Hori, pinu sailak 45 urterekin soiltsen baidira, eta dirulaguntzetan, eta, batez beste, inbertsioen %55 lortuta", azaldu dute.

Bestelako eredu baten alde

Errez Kooperatibak hiru aukera proposatu zituen batzarrean: bestelako basogintza eredu baten alde egitea, ohiko basogintza ereduarekin jarraitzea edo erdibideko eredu baten alde egitea.

Euren bestelako eredu baten aldeko apustua egin zuten: "Gaur egungo eredia ez da errentagarria ekonomikoki, ezta jasangarria ere. Horren aurrean, aurkezten dugu bertako basoa ekoiztea, eta, matarrasarekin egin beharrean, entresaka bidez egitea mozketak. Basogintza eredu hau oso zabaldua dago munduan zehar, urte askotako esperientzia dago. Euskal Herrian ere beste leku batzuetan egiten da, eta praktika horiek hona ekarri eta modu horretan ekoiztea proposatzen dugu".

Herritarrei aurkeztu zitzaizkien bestelako basogintza eredia bost printzipiotan oinarritua dago: bakantze bidezko mozketak egitea, soilik uanean uneko zuhaitzak


moztuz eta estaldura jarraitua bermatuz; espezie aniztasuna bermatuko duen eredia, bertako espezieek baino ez dute ziurgabetasunari aurre egiteko bioaniztasuna eta egokitzapen ahalmena; birsortze naturala, berez datozen zuhaitzak baliatuko dira etorkizunean ustiatuko diren oinak hautatzeko; estrukturalki askotarikoak diren basoak, adin eta espezie desberdinez osatutako basoak ekosistema zerbitzuak hobeto bermatzeko; eta esku-hartze bortitzi gabekoa, lur galerak eta baso ekosistemari sortutako kalteak gutxieneko mailara eramanez.

Gaineratu zuten Aramaio ingurunea malkartsua dela; hau da, lursailen %75ek %30etik gorako malda dute. Aldagai horrek basogintza eredia baldintzatzen du; izan ere, legez mugaturik dago mekanizazioa horrelako gunetan.

Ardurak eta proposamenak

Martitzenean batzarrean egon ziren herritarrek orokorrean bat egin zuten kooperatibak aurkeztutako proposamenarekin. "Orain arteko basogintza eredia bukatu egin da. Ez da egon erre-zelo handirik aurkeztu dugunaren aurrean. Egon dira ardurak abeltzainen partetik, larre gehiago sustatu beharko ote ziren, baso azalera larregi handitzen ote dabilen azken urteetan... Irten dira gai garrantzitsuak", dio Arriolabengoa, herritarren artean jasotako iritzien gainean.

INGURUNE MALKARTSUA DA: LURSAILEN %75EK %30ETIK GORAKO MALDA DUTE



Gora bihotzak ekitaldiaren aurkezpena, Bilbon. EITB

Idoia Asurmedi handien babesean arituko da

Bilboko Orkestra Sinfonikoak eta Bilboko Koral Elkarteak momentuko euskal musika taldeekin eta bakarlariekin 'Gora bihotzak' emanaldia eskainiko dute; tartean egongo da musikari aramaioarra. Abenduaren 12an izango da saioa, Euskalduna jauregian

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Abenduaren 12an, *Gora bihotzak* izena duen emanaldia eskainiko dute Euskalduna jauregian. Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin eta Bilboko Koral Elkartearekin batera joko dute momentuko talde handienek: Izarok, Zea Mais-ek, Zetak-ek, Eñaut Eloorrietak eta Idoia Asurmendi aramaioarrak, besteak beste.

Asurmendi pozik dago eman dioten aukerarekin: "Kontzertu horretako zuzendari artistikoa Fernando Velazquez musika konpositorea izango da. Kontua da konfinamendu garaian sare sozialetara igo nituen abestiak entzun zituela eta gustatu egin zitzaizkiola. Nirekin harremanetan jarri zen eta elkarrekin zerbait egiteko ideia proposatu zidan".

Aramaioarrak sortutako kanta
Asurmendik berak sortutako hainbat kanta bidali zizkion Velazquezi eta hark bat aukeratu zuen abenduko emanaldi-

rako: "Nik gitarrarekin jotzeko sortu nuen abestia, *Viejo refranero* izenekoa, da aukeratu duena. Velazquezek moldatu egin du orkestrarekin jotzeko. Esan behar da bertsio oso polita egin duela, berezia". Kanta bakarra eskainiko du Asurmendik. Dagoeneko hainbat entsegu egin ditu orkestrarekin eta aramaioarra gogotsu dago abenduko emanaldirako.

Gainontzekoen babes handia
"Izugarritzko babes jaso dut gainontzeko taldeen aldetik, eta baita Fernando Velazquezen aldetik ere. Egia esan, oso babestua sentitu naiz", nabarmendu nahi izan du Asurmendik. Izan ere, abenduko emanaldian

**GITARRAREKIN
JOTZEKO SORTU DUEN
'VIEJO REFRANERO'
ABESTIA ESKAINIKO
DU ARAMAIOARRAK**

oholtza gainera igoko dira gaur egun izen eta arrakasta handia duten musika taldeak eta bakarlariak, eta horien ondoan egotea ez da aukera makala izango Asurmendirendako. Kirmen Uribe idazleak eta Pascual Molongua bakarlariak ere emanaldian parte hartuko dute.

Sarrerak, azaroaren 4an
Sarrerak salgai jarriko dituzte azaroaren 4an, Euskaldunako leihatilan. Edukiera mugatua izango duenez, 400 sarrera bakarrik aterako dituztela azaldu dute antolatzaileek. Asurmendik dio kontzertura joateko aukerarik ez duenak *streaming* bidez ikusi ahal izango duela emanaldia zuzenean, *Fsnex.org* atarian, eta, gainera, EITBk grabatu egingo duela Gabonetan emateko.

Fair Saturday jaialdi solidarioari amaiera emateko ekitaldia izango da *Gora bihotzak*. Aurten, kulturaren inguruan lanean dihardutenei keinu bat egin nahi izan die jaialdiak.

Erretiratuen elkarteak ez du aurtengo kuota kobratuko

Elkarteko atek urrian zabaltzekoak ziren arren, azken erabakien arabera, egoitzak itxita jarraituko du

A.E. ARAMAIO

Alaiak erretiratuen elkartearen egoitzako atek itxita jarraituko dute; ondorioz, erabaki dute 2020ko urteari dagokion kuota ez kobratzea. Nabarmendu dute euren asmoa urrian elkarte zabaltzea zela, eta hori horrela egitea Udalarekin adostuta zutela. Azken egunetako egoerak, baina, ez du ahalbidetzen egoitza zabaltzea, eta itxita mantenduko dute, abisu berria jaso arte.

Salbuespena izango da podologia zerbitzua: hileko bigarren egunean joango da podologia

zerbitzua eskaintzera. Hitzordua hartu behar da zerbitzua erabili ahal izateko.

Alaiak elkarteko zuzendaritza batzordeak, bestalde, erabaki du loteria hartzea. Iaz jasotakoarekin hartu dute, bazkideko 3 euro: 84.296 da loteria zenbakia. Gainera, kantu tailerrarekin eta euskara ikastaroarekin aurrera egitea erabaki dute. Oraindik ere izena emateko aukera dago bi jarduera horietan.

Erretiratuen elkarteak, gainera, Euskaraldian parte hartzeko konpromisoa hartu du.

Gaba Baltz beldurgarria ospatzeko deia

Txirritola euskara elkarteak modu berezian ospatu gura du Gaba Baltza. Horretarako, herriko gaztetxoak animatu gura dituzte gaur, barikua, egingo duten jaian parte hartzera. Etxean izan ditzaketen kristalezko poteak hartu, gura duten moduan apaindu eta kultura etxera joateko dei egin dute. Kultura etxean kandela bat ja-

soko dute kristalezko potearen barruan jartzeko, modu horretan herriko kaleak apaintzeko. Gaurko, barikua, 17:30erako egin dute hitzordua kultura etxean.

Gainera, etxetik eramandako arropa edo izara zaharrekin mozorroa prestatuko dute.

Behin mozorroak eta kandelak prest dituztenean, Arabazan taldeak ipuinak kontatuko ditu herriko kaleetan; eta, bukatzeko, bideo lehiaketara aurkeztu diren lanen emanaldia eta sari bana-keta egingo dute kultura etxean.

GORA ETA BEHERA



Ibargoia kalean jarri duten baranda

Herritar batek pozik hartu du Ibargoia kalean jarri duten baranda. Espaloiairetan eta errepidearen artean muga egiteaz gain, erorketak saihesteko ere egokia izango da baranda berria. Udaltzainek adierazi dute hura margotzea falta dela oraindik.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus



Musikaz eta antzezlanek beteta dator azaroa

Kontzertuak eskainiko dituzte Amorante bakarlariak, Loyola Garmendia eta Iñaki Salvador bikoteak eta Bizarro eta Ro taldeek; azken bi horiek, Euskaraldiak antolatuta. Helduendako antzerkiari dagokionez, emakumeak izango dira oholza gainean

Mirari Altube ARETXABALETA

Kultur ekitaldiek ez dute etenik izango azaroan eta Arkupe bete egingo da; bereziki, musika kontuekin eta antzerkiarekin. "Gure asmoa da kultur emanaldiak antolatzen jarraitzea, horren gogoia ere badagoelako; betiere, egoerari aurre egiteko ezarritako segurtasun neurri guztiak beteta", adierazi du Ainhoa Cabero zinegotziak. Hala, edukieraren erdia, hau da, 50 jarleku bete ahal izango dira Arkupen. Eta, ohi legez, alde aurretik hartu ahal izango dira sarrerak ikuskizunetarako. Era berean, gogorazi dute maskara jantzita izan beharko dela, derrigor, kultura ekitaldi guztietan.



Skratx ikuskizunaren une bat. AMEZTU PRODUKZIOAK

Antzezlanak helduendako

Amezu Produksioak konpainiak emango dio hasiera azaroko egitarauari, domekan, umei zein helduei bideratutako *Skratx* ikuskizunarekin (17:00). Trebetasunak galdu dituen superheroi baten istorioa eskainiko diete.

Hurrengo egubakoitzean, ostera, *Me too* helduendako antzezlanarekin –euskaraz– etorriko dira Tessa Andonegi eta Ainhoa Aierbe aktore donostiarrak. Eta hilaren 15ean, domekan, Aitziber Garmendiak idatzitako *35 huts* bakarriketaren txanda izango da, Miren Gojenolak zuzenduta eta Esti Curielek antzeztuta. Hiru emakume horiek bat egin dute proiektu horretan, familien oinordetza emozionalak, amatasuna, heriotza eta halako gai sakonetan murgiltzeko, umorea lagun hartuta.

Bizarro eta Amorante

Musikari dagokionez, Bizarro talde oñatiarrak kontzertua eskainiko du azaroaren 7an; eta 20an, Azkoitiko eta Azpeitiko bost musikariek osatzen duten Ro taldeak hartuko du lekukoa oholztan. Biak dira Euskaraldiaren bueltako emanaldiak.

Egitaraua

Azaroak 1

• **17:00** Amezu
Produksioak: *Skratx*.

Azaroak 6

• **20:30** Ainhoa Aierbe & Tessa Andonegi: *Me too*.

Azaroak 7

• **19:00** Kontzertua:
Bizarro taldea.

Azaroak 8

• **19:00** Kontzertua:
Amorante bakarlaria.

Azaroak 10

• **19:00** Liburu
aurkezpena: *Miñan*.

Azaroak 14

• **19:00** Kontzertua:
Loyola Garmendia & Iñaki Salvador.

Azaroak 15

• **19:00** Bakarriketa:
35 Huts. Esti Curiel.

Horrez gainera, azaroaren 8an, Iban Urizar musikaria *Amorante* proiektuarekin izango da. "Ez da ohiko ekitaldia eta hori nabarmenduko nuke", dio Caberok. Eta hilaren 14an, berriz, Loyola Garmendia –Golden Apple Quartet taldeko abeslaria– eta Iñaki Salvador pianojotzailea izango dira Zariaia aretoko taula gainean.

'Miñan' liburuaren aurkezpena

Liburu baten bueltako solasaldia ere izango da azaroaren 10ean. *Miñan* liburuaren aurkeztuko dute Amets Arzallus bertsolari eta idazleak eta haren lagun Ibrahima Baldek. Lan horrek Balderen historia jasotzen du, 2018an Irunera iritsi zen migratzailearena; bere patua ez zen Europara iristea, baizik eta anaia aurkitzea.

Gurutze Mujikaren pinturak

Arkupeko erakusketa aretoan, ostera, Gurutze Mujika margolari aretxabaletarraren pinturak izango dira ikusgai, azaroaren 9tik 30era arte. Paisaiak marraztea gustuko duen margolariak aurretik ere erakutsi izan ditu lanak Arkupen.

Edukiera eta denbora mugak zehaztu ditu Udalak hilerrirako

Gehienez, 64 lagun egon ahal izango dira batera eta 30 minututik gora ez egotea gomendatu dute

M.A. ARETXABALETA

Neurri bereziak zehaztu ditu Domu Santu egunerako, hilerrirako, Aretxabaletako Udalak. Edukiera, gehienez, 64 laguneko izango da eta egonaldia 30 minutuko izatea gomendatu dute. Jendea pilatu ez dadin, bisitak azaroaren 1era bakarrik ez mugatzea eta edozein ordutegitan joatea ere eskatu du Udalak.

Hilerrira sartzeko eta irteteko zirkulazioa antolatu egingo dute: sartzeko, sarrera nagusiko eskailerak erabiliko dira eta irteteko, atzeko atea. Salbuespena

izango dira mugikortasun murriztua duten pertsonak; horiek atzeko ate horretatik sartu ahal izango dira.

Prebentziorako neurriak gogorazteko informazio kartelak jarriko dituzte, eta maskara nahitaez erabili beharko dela gogorazi dute. Distantzia mantendu beharko da gainerako bisitariarekin: 1,5 metrokoa, hain zuzen ere. Pitxerrak betetzeko edo beste erabilera batzuetarako ura behar izanez gero, etxetik eramatea gomendatu dute, hilerrirako iturriak erabili gabe.

Herritarren proposamenak eta ideiak jaso gura ditu EH Bilduk

Udalera bideratzeko izango da, 2021eko aurrekontuei begira, eta epea zabalik dago, azaroaren 11ra arte

M.A. ARETXABALETA

Aretxabaletarren parte hartzea gura du EH Bilduk, eta 2021eko udal aurrekontuei begira prozesu bat zabaldu du: "Aurrekontuak herritarren beharretatik gertuago egotea espero dugu". Horregatik, ekarpenak egitera animatu dituzte: "Guk, gure aldetik, modu batean edo bestean, proposamenak Udaleko dinamikan txertatzen joango garela ziurtatzen dugu".

Ideiak, proposamenak eta proiektuak aurkezteko epea zabalik izango dute azaroaren 11ra

bitartean. Proposamenek bi baldintza bete beharko dituztela adierazi dute: interes orokorrekoak izatea eta udal eskumenekoak. Hona hemen ekarpenak egiteko bideak: 688 82 65 81, *eh-bildu@aretxabaleta.eus* eta Herriko Plazako lokalean.

Ekarpenak baloratzeko erabiliko dituzten irizpideak dira: bideragarritasun teknikoa; kostua eta eragin ekonomikoa; eta ahalik eta herritar gehienei eragitea. Balorazioaren eta aukeratzeko proiektuaren berri azaroaren 25ean emango dute.

Unai Elkoro alkatea izango da 'Harira' saioan martitzenean

Aretxabaletako alkate Unai Elkoro elkarrizketatuko du Eneko Azkarate kazetariak *Harira* saioan azaroaren 3an (21:30 eta 23:30). Gaurkotasanari lotutako gaiak izango dituzte berbetarako gai eta herritarrek ere izango dute galderak egiteko aukera: Whatsapp edo Telegram bidez (688 69 00 07) edo posta elektronikoz (*berriak@goiena.eus*).

Terrazen ordenantza zehazteko ekarpenak egin daitezke

Bide publikoan mahaiak, aulkiak eta ostalaritzarekin zerikusia duten bestelako altzari batzuk jartzea arautuko duen udal ordenantza egingo du Udalak. Ostalariek eta herritarrek proposamenak egin ditzakete, Udalaren webgunearen bidez (*aretxabaleta.eus*) edo udaletxeko harrerara eramanda; azken eguna azaroaren 9a da.



Udalbatzako kideak, joan den egunean, osoko bilkuraren une batean. MIRARI ALTUBE

Egoera ekonomikoari egokitutako ordenantzak

Zerga eta tasa gehienak ez dituzte igoko 2021ean, zaborra bakarrik; hain zuzen, aho batez onartu zuen hori udalbatzak joan den egunean, eta merkatarientako eta ostalariendako maiatzetik indarrean dauden neurriek abian jarraituko dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Udal tasak eta zergak izoztea proposatu zuen EAJK osatzen duen Aretxabaletako Gobernu Taldeak, eta aho batez onartu zuten joan den egun iluntzean egindako ezohiko osoko bilkuran. "Presio fiskala ez handitzea" izan dute helburu, Unai Elkoro alkateak azaldu tako legez: "Bizi dugun egoera zaila eta COVID-19aren krisiak gizartean duen eta izango duen eragin ekonomikoa hartu dira kontuan. Ez da igoerak aplikatzeko unea". Hala, zaborraren tasa da igo duten bakarra, %5, "zerbitzuak Udalari eragiten dizkion kostuak estaltzen joateko".

Laguntzak zerbitzuei

Merkataritza eta ostalaritza zerbitzuei laguntzea du helburuen artean Udala Gobernu Taldeak, eta, ildo horretatik, maiatzean hartutako neurriei 2021ean ere jarraipena ematea onartu zuten udalbatzako kide guztiak. Horien artean daude, besteak beste,

terrazen tasa ez kobratzea, zaborraren hiruhileko ordainagiriaren zenbatekoaren erdia ordaintzea; eta ura establezimendu bakoitzaren kontsumoaren arabera kobratzea.

EH Bilduko Ion Albizuk aipatu zuen merkataritza eta ostalaritza zerbitzu batzuek beste batzuek baino behar handiagoa dutela: "Horregatik, laguntza beharra dutenei zuzenean ematea egokiagoa dela uste dugu".

Alkateak adierazi du Udalaren asmoa badela laguntzak bideratzea horiei. "Batetik dago Foru Aldunditik etorriko den laguntza bat inbertsioak egin dituztenentzako, eta Aretxabaletari 25.000 euro pasatxo dagozkio. Eta, bestetik, pentsatzen gabiltza

LAGUNTZAK BIDERATUKO DIZKIETE MERKATARIEI ETA OSTALARITZA ZERBITZUEI

gastuendako ere beste laguntza bat bideratzea", dio Elkorok. Udalak badu gordeta poltsa bat, 43.000 eurokoa, eta hori erabiliko dute. Aste pare batean erabakita izango dute zelan bideratu laguntzak: "Eta, seguru asko, Gabonetako bonuen kanpaina ere indartu egingo dugu". Gaineratu du aurten ere badutela azoka egiteko asmoa, eta hori antolatzen dihardutela.

Kiroldegiaren tasak, izoztuta

Udalaren diru-sarrerak %15,9 jaitsiko direla Foru Funtzari dagokionez azaldu du Elkorok, eta horiei beste batzuk gehitu behar zaizkiela; kiroldegiko diru sarrerak, esaterako. "Baina nik uste baino gutxiago jaitsi dira, inguruko herrietatik etorri delako jendea", azaldu du. Horri dagokionez, tasak ez igotzea onartu dute. "Datorren urtean, ikusi egin behar zein den egoera ekonomikoa. Gure kasuan, alde daukagu kiroldegiaren mailegua ordaintzen bukatuko dugula".

Plazeren eta desiren gaineko ikastaroa izango da hilaren 6an

Desmontando a la Pili kooperatibak bideratuko du eta izena emateko epea zabalik dago eguaztena arte

M.A. ARETXABALETA

Setem Hego Haizea GKEk eta Udaleko Berdintasun Sailak elkarlanean antolatutako jarduerak jarraipena izango dute azaroan. Hurrengo egubakoitzean, hilaren 6an, *Plazera eta desira. Ikuspuntu feminista eta ekonomia sozial eta solidarioaren ikuspegitik* saioa eskainiko dute Arkupen (17:00-20:00). Azaroaren 18an, ostera, Irantzu Varela kazetari eta aktibista feministak *No hay matriarcado ni en el supermercado* bakarrikzeta gidatuko du.

Plazera, ikuspuntu feministak

Ikuspuntu feminista eta antikapitalistatik sexuaren gainean berba egiteko aukera eskaini gura du ikastaroak, Setem Hego Haizeako kide Edurne Gallok azaldu duenez: "Gure hezkuntza sistema matxista eta kapitalista honetan sexuaren inguruan saldu dizkigutenak ezbaian jarriko ditugu; *koitoxentrismoa*, esaterako; penetrazioa ez badago ez dagoela plazerik dirudielako", eta gaineratu du: "Emakumeen plazera tabuzatzen hartu da gure heziketa prozesu horretan. Aldatuaz doaz kontuak, baina gura duguna da aldatzen jarraitzea

eta horretarako erremintak bideratzea. Horregatik, zalantzak eta iradokizunak erantzungo dira konfiantzazko giroan".

Hori bideratuko du Zaragozako Desmontando a la Pili sexologiako emakume profesionalen kooperatibak, eta, handik ezin direnez etorri, parte-hartzaileak Arkupeko bigarren solairuko gelan bilduko dira, saioa *streaming* bidez jarraitzeko -gaztele-raz-. Izena emateko epea azaroaren 4ra arte egongo da zabalik, Arkupen edo *berdintasuna@aretxabaleta.eus*-en.

Irantzu Varela hilaren 18an

Bestalde, azaroaren 18an, Irantzu Varela feminista ezagunak kontsumoarekin eta indarkeria matxistarekin zerikusia duten gai ezberdinen inguruan hausnarketa sustatuko du, umore garrazak lagun eginda. Estetika, energia eta telesailak izango ditu berbetarako gai, besteak beste. Gai horiek eta beste batzuk *Indarkeria kontsumitzen duzu I, II* ikerketan aztertuko ditu Setem Hego Haizeak, eta bakarrikzeta saio aurretik aurkeztuko dute. Izena emateko azken eguna hilaren 16a da.

Neurri berriak daude kiroldegian, COVID-19ari aurre egiteko

Berrantolatzen dihardute, eta taldeko kirol jardueretako parte-hartzaileen kopurua seira murriztu dute

M.A. ARETXABALETA

Koronabirusaren pandemiari aurre egiteko astean ezarri diren neurri berriak direla eta, egokitzen batzuk egin behar izan dituzte Ibarra kiroldegiko jardueren eskaintzan.

Taldea egiten diren jarduerak guztiak gehenez sei pertsonako multzoetan egin beharko dira. Eta adierazi dute kasu batzuetan balitekeela ikastaroa astean bi saiotatik saio bakarrera pasatu behar izatea. Horrela bada, ikastaroen prezioa ere erdira jaitsiko litzatekeela iragarri dute.

Bestalde, maskara unero jantzita eraman beharko da kirola egiten den bitartean, kardio-makinetan izan ezik. Eta, bide batez, gogorazi die erabiltzaileei txanda aldaketan bakoitzean harrerara jaitsi beharra dagoela eta fitness aretoan toallaren erabilera derigorrezkoa dela.

Berrantolaketa horren gaineko xehetasunak jakiteko edo informazio zuzena eskuratzeko, begiralearekin harremanetan jarri behar da, edo Ibarra kiroldegira deitu: 943 03 98 42.



Zarimutz eta Marin elizateen arteko bidegurutzearen azpian dagoen zubia ari dira konpontzen. IMANOL BELOKI

Zubia konpontzen dabilta Maringo bidegurutzean

Gipuzkoako Foru Aldundiak errepide sarean egiten duen estruktura ikuskapen sistematikoaren ondorioz, Zarimutz eta Marin arteko bidegurutzeko zubian lanak egiteko beharra ikusi dute, ur filtrazioak eta pitzadurek estruktura kaltetzen dutelako

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzatik Leintz Gatzagara bidean, GI-3310 errepideko 3,69. kilometroan, Marin elizateko bidegurutzearen parean, Gipuzkoako Foru Aldundia zubi bat konpontzen ari da. Errepidearen azpian dagoen zubia konpontzea derrigorrezkoa dela adierazi du Aldundiak, errepideari eusteko oinarritzko zutabea delako.

Gipuzkoako Foru Aldundiak errepide sarean egiten duen estruktura ikuskapen sistematikoaren ondorioz, zubi hori konpondu beharra ikusi zen, eta horretarako proiektu bat idatzi. "Era sistematikoan errepide azpian dauden estruktura guztiak aztertzen ditugu. Kasu honetan, ikusi genuen kalte estrukturalak zituela: alde batetik, zubiaren sarrera biak askatzen ari dira estrukturaerikiko, eta hor josten ari gara. Bestalde, horrekin batera, zenbait pitzadura agertu dira, eta morteroa injektatu eta harriak falta diren

lekuan osatzen ari gara", adierazi du Mikel Uribarrenek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura Saileko plangintza eta ustiapen zuzendariak.

Ur filtrazioak eta pitzadurak

Marulandako taberna alboan, Marin elizatera doan bidegurutzearen azpian dagoen zubia da konpontzen ari direna, bertatik Deba ibaia pasatzen dena. Zubia XIX. mendekoa da, eta denboraren poderioz hainbat pitzadura eta ur filtrazioek egindako kalteak igarri dituzte. Eskoriatzatik Gatzagara joan zaitezke Arlabandik bueltan, baina, errepide nagusia izanda, egin beharreko lanak direla adierazi du Aldundiak.

ERREPIDEARI EUSTEKO OINARRIZKO ZUTABEA DA BIDEGURUTZE AZPIAN KONPONTZEN ARI DIREN ZUBIA

Konponketa lanei dagokienez, berriz, pitzadura horiek garbitzea eta ur filtrazioek egindako kalteak konpontzea izango da egingo dutena. Lanak dagoeneko martxan daude eta aste pare bat iraungo dutela aurreikusten dute. Errepidetik ikusten ez diren lanak egiteaz batera, zubiaren gaineko errepideko zoruare ere konpondu egingo dute, eta, bertan ura ez batzeko, nolabait, batu egingo dituzte urak, estruktura ez joateko eta ez kalteztzeko. Obrak egiteko aurrekontua, bestalde, 90.000 eurokoa da.

Halako bost estruktura

Eskoriatzatik Leintz Gatzagara bidean halako bost estruktura daudela adierazi du Mikel Uribarrenek, baina beharra duen zubia Marulanda eta Maringo bidegurutzean dagoena soilik dela adierazi du: "Honako zubi honen moduko beste bost puntu ditugu markatuta, eta, guztiak aztertuta, hemen bakarrik ikusi dugu premia lanak egiteko".



Eskoriatza Bizirik bonuen kanpainaren hirugarren faseko bonuak. IBARRAUNDI MUSEOA

1.000 bonu urdin jarriko dituzte salgai azaroaren 2an

Funtzionamenduari dagokionez, Eskoriatza Bizirik bonuen kanpainako hirugarren fasea, aldaketa barik

I.B. ESKORIATZA

Osasun larrialdiak sortutako kalteak arintzeko, Udalak Eskoriatzako komertzio eta zerbitzu establezimenduetan gastatzeko erosketa bonuen kanpainaren lehenengo eta bigarren faseak abiarazi zituen uztailan eta irailean, hurrenez urren, eta dagoeneko urteko azkenengo faseari hasiera ematear dago.

Urriarekin batera bonu berdeak eta gorriak iraungiko dira. Hau da, urriaren 31tik aurrera ez dira bonu gorriak eta berdeak hartuko. Aldiz, azaroaren 2tik abenduaren 31 bitartean, bonu berriak, urdinak, onartuko dira.

Funtzionamendu berberarekin

"Guztira, 1.000 bonu urdin jarriko ditugu salgai Ibarraundi museoa, eta, funtzionamenduari dagokionez, ez da aldaketarik aurreikusten", adierazi du Nerea Arana Ibarraundiko teknikariak.

Hori horrela, 15 euroren truke 30 gastatzeko aukera emango zaie herritarrei. Bonuak 5, 10 eta 15 eurotan banatuta egongo dira, eta Eskoriatza Bizirik bonuen kanpainari atxikitako edozein establezimendutan erabiltzeko aukera egongo da; besteak beste, ostalaritzako establezimenduetan, fisioterapia eta osteopatia zentroetan, ile-apaindegietan, estetika zentroetan, janari denda batzuetan eta liburu dendan. Hala ere, bonuak hartzen dituzten komertzio edo zerbitzuetako establezimenduek bonuak hartzen dituztela identifikatzeko kartela izaten jarraituko dute eta Ibarraundin salduko dira astelehenetan eta egubakoitzetan 11:00etatik 13:30era eta eguaztenetan 17:00etatik 19:30era. Nortasun agiria eskatuko da momentuan, eta ordainketa kreditu txartelarekin egin beharko da.

OHARRAK

Beldurrezko zinema bertan behera

Gaur, egubakoitza, 19:00etan, *Noche de bodas* pelikula proiektatu behar zuten, Zaldibar antzokian. Bihar, zapatua, ordu berean, berriz, *El hijo* pelikula, baina ez dira izango.

Atxorrotx Kultura Elkartearen ardo dastaketa

Azaroaren 21erako aurreikusita zegoen XIII. ardo dastaketa ez dela egingo jakinarazi dute Atxorrotx Kultura Elkartearen kideek.

Buztinate elkarteko amantalak salgai

Buztinate elkarteari laguntzeko amantalak erosteko aukera dago. Haurren amantalak 10 euro balio du eta helduenak, 15 euro. Erosi gura duena Naira tabernara joan daiteke.

Pailazoen saioa aurrera, neurri zorrotzak hartuta

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Amaren intxaurrek' ikuskizunaren estreinaldia azaroaren 21ean egingo da. Sarrerak datorren astean jarriko dituzte salgai kultura etxean, goizetan, egunero, eta arratsaldetan, martitzen eta eguenetan, 17:00etatik 19:00etara bitartean

Imanol Beloki ESKORIATZA

Katxiporretakoek ez dute hutsik egingo, eta, urtero moduan, estreinaldia eskainiko dute Eskoriatzan. Izan ere, Pirritx, Porrotx eta Marimotots azaroaren 21ean *Amaren intxaurrek* ikuskizun berriarekin egongo dira, Manuel Muñoz kiroldegian.

Eskoriatzako Udalak adierazi du baldintzak zorrotz ezarrita egin daitekeela ikuskizuna eta lehentasuna eman zaiola ekintza egiteari. "Zaila da dauden arauen barruan ekintzak egitea edo ez egitea erabakitzea. Hala, baldintzak zorrotz ezarrita posible dela ikuskizuna egitea pentsatzen dugu", adierazi du Mari Karmen Arrietak, Euskara teknikariak.

Kultura seguruaren alde

1.200 lagun inguru sartu izan dira beste urte batzuetan egindako ikuskizunetan, baina ikusleen arteko distantziak ondo mantentzeko 300-350 lagun inguru sartuko dituzte, edukiera



Porrotx pailazoa. IMANOL SORIANO

%50 baino gehiago murriztuta: "Ate bakoitzak kolore bat izango du, eta datorrenak jakingo du ze koloretako atea dagokion. Sarrera erostean, norberak erabakiko du non gura duen jarri, eta sarreran bertan jarriko zaio

atearen, ilararen eta eserlekua- ren zenbakia".

Ikuskizun egunera begira, izan behar diren jarrerei dagokienez hainbat azpimarratu dituzte udal teknikariak: "Bakoitza bere aulkian egon beharko da eserita, maskara jantzita eduki beharko da une oro, 6 urtetik beherako haurrek izan ezik, eta ezingo da jan, ezta edan ere", adierazi du Arantza Unzuetak, Kultura teknikariak.

Sarrerak datorren astean

Sarrerak, datorren astean jarriko dituzte salgai kultura etxean, azaroaren 2tik 6ra bitartean. Egunero, goizetan, -09:00etatik 13:00ak arte-, eta martitzen eta eguen arratsaldean, -17:00etatik 19:00ak arte- salduko dituzte. Honekin batera, gaineratu dute, eskoriatzarrez gain, Aretxabaleta eta Gatzagako biztanleek ere aukera izango dutela sarrerak erosi eta ikuskizunaz gozatzeko.



Leintz Gatzagako Gatz Museoa. IMANOL BELOKI

"Herrikoentzat soilik irekita mantentzeak ez du zentzurik"

Osasun Sailak iragarritako neurri murriztaileak kontuan hartuta, gatz produkzioan eta salmentan indarrak jarrita

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Udazkeno zenbait lan egin behar izaten dituzte Leintz Gatzagako Gatz Museoa. Museo-ko errota martxan jarri ahal izateko errekan sartu eta ubidera ura bideratzen duen presa garbitu beharra izaten dute. Horrekin batera, museoko begogailua eta gatz produkzioak funtzionatzeko 26 tona egur batu zituzten -bi lote- auzolanean. Negurako ondo prestatu egon arren, Osasun Sailak ezarritako azken neurriekin ez dute ikusten bideragarri bisitekin jarraitzea bertako arduradunek.

Gatz salmenta

"Joan den asteburuan, bisitak mugatu zizkiguten; bost pertsona eta gidaria bakarrik egon zitezkeen. Orain, berriz, Osasun Sailatik ezarri dizkiguten neurri berri hauekin, gatzagarrendako soilik irekita mantentzeak ez du zentzurik. Hori horrela, gatz produkzioan eta salmentan zentratu beharko dugu... Hala ere, badugu stocka, eta, salmentaren arabera, beharra badago jarraituko dugu produzitzen, baina, gaur-gaurkoz, ez dugu beharrik", adierazi dute Gatz Museoko arduradunek.



J.B.

Konponketak Mazmelako elizan

Maiatzeko egun batean izandako haizeteak Eskoriatzako Mazmela elizateko Jasokundeko Ama elizaren elizpeko teilatu-hegal zati bat bota zuen. Hala, bertako aterpean egon gura dutenentzat eta frontoian esku-pilotan aritzen direnentzat segurtasuna bermatzeko, astelehenean hasi ziren konponketa lanak egiten.

Bi egunetan egongo da odola emateko autobusa, plazan

Azaroaren 9an eta azaroaren 16an, odola emateko autobusa izango da Fernando Eskoriatza plazan. 16:30etik 20:15era bitartean egongo dira Gipuzkoako odol emaleen elkarteko kideak bertan jarriko duten autobusean, eta azpimarratu dute odolak beharrezkoa izaten jarraitzen duela, eta emateko eskakizuna egin gura izan diete herritarrei. Gaineratu dute odola ematea ez dela arriskutsua, eta autobusean daudenak profesional espezializatuak direla.

COVID-19aren alarma egoeran segurtasun neurri guztiak hartuko dituzte, odola ateratzen ariko diren langile nahiz odol emaleen osasuna zaintzeko.

laz igo ez zutenez, zaborren tasa %5 igoko dute aurten

Leintz Gatzagako 2021era begirako tasa eta zerga guztiak izoztu dituzte, hiri hondakinena izan ezik

I.B. LEINTZ GATZAGA

Joan den egunean egindako osoko bilkuran, datorren urtean ordaindu beharreko zergak eta tasak izan zituzten aztergai Leintz Gatzagako udalbatzako kideek. Orokorrean, zerga eta tasa guztiak izoztea erabaki zuten, aho batez, 2021era begirako Ordenantza Fiskalen hasierako onarpenean. Hala ere, salbuespen gisa, zerga bakarra igotzea adostu zuten. Hain zuzen ere, hiri hondakinena, %5 igoko dutena.

"Leintz Gatzagako kasuan, gaur egun udalbatza osatzen

dugun kideon agintaldia beranduago hasi zen, eta gure aurretik egon zen udal taldeak ezin izan zituen zaborren tasak igo. Hala, oraingoan, %5 igotzea erabaki dugu. Beste tasa eta zerga guztiak, berriz, izoztuta geratu dira", adierazi du Eugenio Otsoak, Leintz Gatzagako alkateak.

Astelehen honetan Gatzagako zergen eta tasen Ordenantza Fiskalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, alegazioak aurkezteko epea 30 lane- gunekoa izango da.



Odriozola, udal zinegotziei artxiboko lana azaltzen. MAIDER ARREGI

Udal artxibo "aberatsa", herritarren esku-eskura

Antzuolako Udalak herriko ondareari balioa ematearen aldeko apustua egin du, eta udal artxiboaren zati bat berrantolatu, deskribatu eta katalogatu du Lourdes Odriozola historialariak; artxiboaren bigarren zatia antolatzen jarraitzeko asmoa du Udalak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Bi urteko lan mardularen ostean, Lourdes Odriozola historialari errenteriarrak Antzuolako artxibo historikoaren zati bat berrantolatu, deskribatu eta katalogatu du. Antzuolako Udalak herriko ondareari balioa emateko egin duen apustua izan da, eta etorkizunera begira berrantolatutako ondare hau geratu egongo litzateke digitalizatzeko. "Kalitatearen aldeko apustua egin duela" aitortu du Udalak. Gainera, ondarea gehiago zabal dadin, euskaraz ere badago sailkapen koadroa egina.

"Lan hau egiterakoan asko hunkitu naiz. Artxibo xumea, txikia eta bolumen txikikoa izanagatik, sorpresa handia hartu dut. Kontuan hartu behar dugu Antzuola ez dela herri independente bat izan betidanik. XVII. mendera arte Bergarako auzo bat izan da, eta hortik aurrerako dokumentazioa dago. Baina artxiboko dokumentazioaren serie guztiak denboran osatuta

daude eta hutsune gutxi dago. Edukia oso aberatsa da eta herriaren inguruko sekulako informazioa ematen diguna", aitortu du Lourdes Odriozolak.

Artxibo esanguratsua

Odriozola historialariak XVII. mendetik 1960. urtera bitarteko dokumentuak antolatu ditu, eta azaldu du artxibo historikoaren benetan aberatsarekin topo egin duela: "Frankismo eta Gerra Zibileko dokumentuak aurkitu ditugu, baita pederastia edo banandu gura zuen emaztearen eskaera kasua ere. Adierazgarria da herrian sindikatu bat zegoela eta errepublikanoek zuten indar handia. Noblezia eta kaparetasunaren espedienteetan,

ARTXIBOAREN ONDAREA GEHIAGO ZABALDU DADIN, EUSKARAZ ERE EGINA DAGO KATALOGOA

berri, kolorezko armarrak edo bat ere atera zaigu. Sekulako altxorrak daude artxibo honetan".

Alardearen gaineko ikerketa abiapuntu zuela sortu zen artxiboa antolatzearen beharra. Historialariak gertu daukela Alardearen ikerketa historikoa aurreratu du: "Herriaren lanagatik berpiztu da Alardea; oso polita izan da ikerketa. Adibidez, XX. mendean Marokora arropa erostera nola joan ziren jakitea, No-doa egin zen erreportajea, frankismo garaiko Alardea...".

Gaur egun baliagarria

Makina bat bitxikeria ez ezik, kalitate handiko informazioa ere batzen du artxiboak. "Gaur egun, artxiboa oso baliagarria izan daiteke, hirigintzako zalan-tzaren bat argitzeko, edo herritarrek euren familiaren gaineko informazioa iker dezaten. Informazio deigarri askorekin topo egin dugu; herritarrak animatu gura ditut artxibora jo eta ikerketaren bat abia dezaten".

Basogintzaren eredua eztabaidagai osoko bilkuran

Eukalipto landaketaren inguruko mozioa onartu dute, EH Bilduko botoekin; ez, ordea, EAJren kontramozioa

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Udalak eukalipto eta lurrarentzat zein bioaniztasunarentzat kaltegarriak diren gainontzeko espezie guztien landaketak saihesteko bere esku dagoen guztia egiteko konpromisoa hartu du urriko ohiko osoko batzarrean.

"Antzuolan azken urteotan, *Pinus insignis*-en gaixotasuna dela medio, epe motzean zehar landaketa eremu zabalak moztan ari dira; horrek ingurumenarekiko ondorio kaltegarriak dakartza. Izan ere, pinuak ordezkatzeko proposatzen diren espezie artean *Eucalyptus globulus* eta *Eucalyptus nitens* daude", azaldu zuen Ion Arangurennek, Lurralde zinegotziak. "Foru Aldundiari baso-politikak alda ditzala eskatzen diogu; gure lurraldeetan eukalipto gehiago landatu ez dadin, eta gaur egun

mendietan dauden eukalipto-sailen ordezkapen ordenatua planifika dezan".

Sektorearen plan estrategikoa

EAJko Miren Elgarresta zinegotziak aurkako botoa ematea arrazoitu zuen: "Ekarri duzuen mozioak soilik espezie bat aldatzearen debekua jasotzen du. Guk basogintzaren eredu osoa aztertu behar dela uste dugu, eta ez xehetasun soil bat. Politika eraikitzaileago baten aldekoak gara, eta ez debeku soil batenak. Antzuolako basogintzaren gaineko estrategia falta da mozio honetan".

"Baso jabeekin lanketa egiten eta lur-jabe txikiekin kooperatiba bat eratzea aztertzen bagabiltza jada. D2030 ekimenaren baitan jaso dugu, gainera, basogintzaren plan estrategikoa", argitu zuen Arangurennek.

OHARRAK

Gure Esku: ekitaldi nagusia

Eskolako patioan ikus-entzunezko emanaldia izango da bihar, 17:45ean. Sarrera eta eskumuturrekoa 5 eurotan sagai izango da.

EH Bilduren batzar irekia

Udal taldearen lan-ildo nagusiak elkarbanatu eta egoera orokorraren inguruan hausnartzeko batzarra azaroaren 3an, 18:30ean, Torresoroan.

Movember taldearen ekimena

Herriko Movember taldea domekan, 12:30ean, Zurrategin batuko da. Kalejira egingo dute eta maskarak salduko dituzte. Prostata eta barrabiletako minbiziaren gainean sensibilizatzea du helburu.

Alardearen ikerketa historikoa jasotzen duen liburua, prest

Lourdes Odriozola Oyarbide historialariak Alardearen historia ikertu eta jaso du *Antzuolako Alardea. Ikerketa historikoa* liburuan. Antzuolako Udalak eta Alardearen Elkarrekin estatuko ekimena azaroaren 5ean aurkezteko dute Torresoroan -gonbidapen bidez joan ahalko da-. Aurrerago, erakusketa jarriko dute herritarrendako.



Liburuaren azala. ALARDEAREN ELKARTEA

"Lasai itxaron, intxaur guztiak erortzen baitira"

JUAN MIGEL PAGALDAI BASERRITARRA

Joan den asteko haizete bortitzak zuhaitzetan zeuden intxaur guztiak bota zituen. Hala, intxaur-batzea zertxobait aurreratu dute Lizarraga auzoko Lizar-iturri baserrian

Maidar Arregi ANTZUOLA

Intxaurrendoei aurten gaitza sartu zaien arren, ez da uzta bilketa kaxkarra izan Lizar-iturri baserrian. Irailetik azaro erdialderaino irauten du intxaurrek batzeko sasoiak. Hala ere, Juan Migel Pagaldaik intxaur gehientsuenak batuta ditu.

Dagoeneko intxaur batzea amaitu duzue Lizar-iturri.

Aurten, aurreratu egin da uzta bilketa. Udaberri arina egin du eta horrek ere eragina izan du. Gainera, haize bortitzek zuhaitzetan zegoen intxaur hondarra ere bota egin dute.

Nolako uzta izan da?

Gurean ez da urterik kaxkarrena izan. Intxaurrendoei gaitza izan dute eta %30ean alea belztu egin da. Erdibideko uzta izan dela esango nuke.

Intxaurrendoa ugari dituzue.

Bai; etxe inguruan pinua kentzea erabaki genuen, eta intxaurre sartzea. Sute bat balego seguruagoa baita intxaurrendoa pinua baino. Inausketarik ere ez du behar, eta ez du aparteko lanik eskatzen.

Azoketara joan izan zarete.

Betidantik, Lizar-iturri intxaur dezente egon da. Azokara joan izan da emaztearen familia sa-soiko produktuak saltzera; tartean, intxaurre. Gaur egun,



Pagaldai, intxaurrek batzeko tresnarekin. MAIDER ARREGI

"ERRUGBIKO BALOIAREN FORMA DUEN SISTEMAREKIN ERRAZAGO BATZEN DITUGU INTXAURRAK"

ordea, etxean kontsumitzeko, lagunei emateko eta nahi duenari saltzeko ekoizten dugu.

Intxaurrek batzeko sistema berezia duzue.

Bai; orain dela hiru bat urte deskubritu genuen. Errugbiko

baloien forma du eta lurrean dauden intxaurrek xurgatzen ditu. Baina intxaurre behar den moduan batu dezan, lurak laua eta garbia behar du izan; inolako zulorik gabea. Egia esan, ordu askoan aritzeko egokia da; batez ere, gerriko mina saihesteko. Nire aholkua da erori ahala batzea, ondoren lehortzeko eta intxaurre hezetasunarekin lurrean hondatu ez dadin. Denak erortzen dira, eta ez duzu jardun behar zuhaitza astintzen eta botatzen. Lasai itxaron, erortzen dira-eta guzti-guztiak.

Gazte txokoa berrituta eta egoerara egokituta dator

COVID-19aren osasun larrialdi egoerak bete-betean jo du herriko gazte txokoaren lan jarduna. Aurrera egitea erabaki dute, ordea, egoerara egokituta; berriro bueltan dira ekintzak. "Gazte txokoarekin zer egin hainbatetan pentsatu eta gero, formatua aldatzea erabaki dugu. Lokalean bertan ezin dira segurtasun neurriak bete; beraz,

formatu berriarekin gatzoz", azaldu du Zumaia Elkoro koordinatzaileak. Hala, Hileroko ekintza bat antolatuko dute, eta lehena azaroaren 15ean eta 22an egingo dute, Torresoroan. Drogaren eta mendekotasunaren gaineko tailerra izango da, 17:00etatik 19:00etara bitartean.

Izena udaletxean, liburutegian eta Xinkonan eman daiteke, azaroaren 1era arte. Gurasoen zalantzak, berriz, honako helbide honetan argituko dituzte: adolazgatzetxokoa@gmail.com.

GORA ETA BEHERA



Arduragabekeria Ondarreko iturrian



Herritar batek Ondarreko egoera zein den jakinarazi digu: "Umeak iturriaren inguruan ibiltzen dira eta zikin-zikin uzten dute. Okerrena, gurasoen aurrean gertatzen dela guztia".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



IKER AIZKORBE

Aizkorberen argazkia ederrena

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2021eko egutegiko portadarako Iker Aizkorbe argazkilararen erretratu bat aukeratu dute. Guztira, 1.115 argazki aurkeztu dira eta denen artean gailendu da Urkuluko Goroeta auzoari ateratako neguko argazki ederra; mila euroko saria eskuratu du Aizkorbek, eta "aitortza oso pozik" jaso duela aitortu du.

Ondo lehortzea da gakoa

Eguraldiak lagunduz gero, bi aste inguru behar ditu intxaurrek ondo lehortzeko. Eguzkitan jarri eta egoki aireztatutako kaxetan tarteka intxaurrek mugitzea dela gakoa kontatu du Juan Migel Pagaldaik. "Intxaurre ondo lehortzea komeni da; bestela, hezetasunaren zaporea hartzen du. Nik intxaur kaxak eguzkitan jartzen ditut, tarteka, ondo lehortu daitezten".



Intxaur kaxak eguzkitan. MAIDER ARREGI

Maila laranja kokatu da dagoeneko Elgeta

Aste bakarrean hiru positibo atzeman dira herrian, eta intzidentzia maila da 351,19 ehun mila biztanleko. Zaintzeko eta zentzuz jokatzeko eskatu du Udalak. Dekretuz ezarritako neurriak aplikatzeko herri mailako protokoloak berraztertzen ari dira

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetan ere hainbat aldaketa eragin ditu urriaren 26ko Eusko Jaurlaritzaren dekretuak. Egoera epidemiologikoa ez da inguruko herrietan besteko larria, baina aste bakarrean hiru positibo atzeman dira eta intzidentzia maila da 351,19 ehun mila biztanleko –eguen eguerdiko datuak–. Elgeta, beraz, maila laranja egongo litzateke.

Kirol instalazioetan aldaketak

Elgetako kirol instalazioetan egiten diren jardueretan aldaketak egongo dira. Aurrerantzean, bakarka bakarrik egin ahal izango da kirola. Programatutako ikastaroak izango dira salbuespena: spinninga, zumba, pilatesa, tai txia, yoga, eta abar. Kasu horietan, gehienez ere, sei laguneko taldeak elkartzeko daitezke, eta, orain arte ez bezala, maskarak jantzita egin beharko dute kirol jarduera.

Hain zuzen ere, zumba eta pilates saioak etenda izan dira aste honetan, erabiltzaileetako batek positibo eman eta gero. Bina PCR egin diete zumba taldeko erabiltzaileei, eta emaitza guztiak negatiboak izan dira. Ez da, beraz, kutsatzerik egon eta jarduera biak martxan dira berriz ere.



Neurri bereziak, hilerrian, Domu Santuko bisitetan jende pilaketak saihesteko. E.S.M.

DEBEKATUTA DAUDE SEITIK GORAKO TALDEAK ETA KIROLA MASKAREKIN EGIN BEHARKO DA

Arimen Gaua, bertan behera

Egoerak horrela eskatuta ez da aurten Arimen Gauarekin lotutako ekintzarik izango herrian. Guraso elkartearen babesarekin eta Nerea Villaren ekimenez egiten den antzezlan ibiltariak

hurrengo urtean izango du jarraipena, gauzak ondo bidean. "Ludotekan Arimen Gauarekin lotutako jarduerak egingo ditugu, baina zerbitzuko erabiltzaileendako izango dira", azaldu du Villak.

Bigarren hezitzailea ludotekan

Zortzi erabiltzaile ditu ludotekak eta Udalak bigarren hezitzaile bat kontratatu du COVID-19arekin lotutako segurtasun neurriak bermatzeko. Aurretik ere zerbitzu horretan egondako Nerea Erdabide da bigarren hezitzailea.

Domu Santu eguneko bisitak hilerriara

Egunotan hilerriara egindako bisitetan ere ezingo dira sei pertsonatik gorako taldeak elkartzeko, metro eta erdiko distantzia mantendu beharko da eta maskarak derrigorrezkoak izango dira. Udalak jakinarazi du noranzko bakarreko ibilbidea dagoela jarrita hilerrian, eta kartelen bidez adierazita dagoela; ezkerretik sartu behar da eta eskumatik irten.



Elgetako hilerria, eguzten arratsaldean. E.S.M.

EUSKARALDIA



L.Z.L.

Eman izena Euskaraldian!

Goiena komunitatea / Euskaraldia batzordea / ELGETA

Gogoratu Euskaraldia badatorrela eta zabalik dela *ahobizi* zein *belarriprest* izena emateko epea. Horretarako, erabili *Euskaraldia.eus* webgunea edo jaitsi Euskaraldia *app*-a. Jakin, bestalde, informazio mahaia jarriko dugula gaur, 18:00etatik aurrera, plazan. Zalantzak argitzeko izango gara bertan.

Udalari oharkabean pasa zaio areto futbol txapelketan gertatutakoa

Neskak txapelketatik kanpo geratu izana aurretik jakin izanez gero neurriak hartuko zirela azaldu du alkateak

L.Z.L. ELGETA

"Legez ezin da halakorik gertatu. Berdintasun Legeak garbi esaten du ekitaldi publikoetan ezin daitekeela diskriminaziorik egon. Kasu honetan, ekitaldi publikoa zen, kartelak jarri zizuten kalean", esan du Iraitz Lazkano alkateak. "Egoera berezia izan da eta oharkabean pasa zaigu", gaineratu du. Alegia, gertatu eta gero ohartu dela Udala. Alkateak dio Elgetako Udalak ez duela gai honekin lotutako ez ordenantzarik ez arautegirik: "Baina baditu iriz-

pideak. Heltzen bada protokolo bat, proposamen bat, kartel bat... baldintza batzuk bete behar ditu: ezin da ez genero estereotiporik bultzatuko, ez diskriminaziorik egon, eta komunikazioa ezin da gaztelania hutsean egin. Kasu honetan, ez da aurretik halako ezer egon". Bestela, neurriak hartuko zirela azaldu du. "Udalak antolatutako ekitaldietan emakumeen parte hartzea bermatzen da, eta karteletatik genero estereotipoak kentzen saiatzen gara". Pilota txapelketako kartelak jarri ditu adibide.

Ipuin kontalaria izango da gaur liburutegian

Ipuinen Ordua dago gaur liburutegian. HH-5, LH-1 eta LH-2ko neska-mutikoendako da, 17:00etan. Gogoratu, bestalde, azken egunak direla marrazki lehiaketara lanak aurkezteko. Jakin, baita ere, Liburutegiaren Egunarekin lotutako sariak egokituta daudela. Enaitz Apraiz Basaurik eta Mari Baglieto Rejadok liburu bana jasoko dute.

Lapurreta aparkatuta zeuden bi autotan, eguaztenean

Aixola auzoan eta Domingo Iturbe kalean aparkalekuan zeuden auto banatan sartu dira lapurrak. Salaketak ipinita daude. "Bi autoetako batean indarrez sartu dira, eta argitzeke dago oraindik nola lortu duten bestea zabaltzea. Bietan falta dira gauzak. Ikerketa zabalik dago eta ezin dugu informazio gehiagorik eman", esan du Ertzaintzak.

ETXEBIZITZA & DEKORAZIOA



ARRASATE
URIBESALGO



ANTZUOLA
KALEBARREN



BERGARA
LORENTXOKO

Pandemia garaian ere, Debagoiengan badira etxe berrien promozioak



ARRASATE
GELMA



ARETXABALETA
ERDIGUNEA



- Eraginkortasun energetikoak geroago eta inportantzia handiagoa etxeetan
- Igogailuak: berria jarri edo zaharberritu, ondo hausnartu beharreko zalantza
- Etxea barrutik atontzeko hainbat aholku azken joeren gainean



bastida
sukaldeak



Bergara · Ibargarai 36 · 943 767 058
Zarautz | Azpeitia | Donostia
bastidasukaldeak.com

20 urte baino gehiago
egia bihurtzen zure
ametsetako sukaldeak

Etxebizitza irekiak, debagoiendarrek gehien estimatzen dutena

Higiezin agentziak bat datoz herritarrek bizitzeko espazio zabalak lehenesten dituztela baieztatzen orduan. Eraiki diren eta eraikitzen dauden etxeak barnebiltzen dituzten promozio ugariarekin dihardute lanean gaur egun; kalitatea bermatuz, betiere

Etxean denbora luzea pasatzea tokatzen den garaiotan, bere egungo bizitokiaren gaineko iritzia aldatu zaio bati baino gehiagori. Eraikuntzaren sektorean ideia bat gailendu da beste guztien gainetik: kanpoaldearekin konektatutako espazio irekiak dira bizitzeko lekuri aproposenak. Luxua izatetik urrun, Debagoienera lanean diharduten higiezin enpresek profil askotariko herritarrei bideratutako etxe berrien kataloga zabala dakarte.

Uribesalgon, urbanizazio berria
Grupo Sorelor-ek, Gipuzkoan 50 urteko esperientzia daukan Azkoitiko eraikuntza enpresak, promozio berri bat jarriko du martxan Arrasateko San Andres auzoaren sarreran kokatuta dagoen Uribesalgo industrialdean. Azken urteetan abandonatuta egon den fabrika bat eraitsiko dute horretarako.

Bertan 28 etxebizitza libre eta 21 etxebizitza tasatu eraikiko dira; azken horietan interesik dutenek Etxebiden eman behar-

ko dute izena. Eta 28 libreak, berriz, Bibai etxe-agentziak salduko ditu.

Toki laua denez gero, irisgarritasun maila handia eskaintzen du zona horrek. Azpimarratzekoa da Arrasateko espantsio-gune handia dela San Andresko sarrera hori. Ondorioz, datozen urteetan auzune horretan zabalduko da Arrasate, eta bertako bizilagunek gaur egun baino zerbitzu eta ekipamendu gehiago izango dituzte eskura. Etorritzunean pentsatzen ari diren



Uribesalgo urbanizazioko egongela baten maketa.



Gelmako etxebizitzetako egongela bat.

Teiltupekoak solariumarekin

Terrazak

Orientazio bikaina eta ikuspegi garbiak

Gimnasioa eksklusiboak egotillarentzat

2 eta 3 logela

3 logela 178.000 €-tik aurrera

lorentxoko

P23 · bizigune berria

%70a salduta

Bizitzaren mamia

BERGARA · www.lorentxoko.com

Merkatuaren joerei jarraituz, **GRUPO EIBAR** entzun egin du, eta azken edizio honetan: **Lorentxoko P23k kalitate bikainari, pertsonalizatzeko aukerei eta terrazai eusten jarraitzen du, baina aurreko edizioetan baino etxebizitza estuagoak ditu metroetan eta prezioetan. Horrez gain, zure ongizaterako espazio komunak ere barne hartu ditu, hala nola egotillarentzako gimnasio eksklusiboa, plazak eta haur-parkeak. Zatoz Bergarako gure bulegora! Eta ezagutu itzazu.**

grupo eibar
inmobiliario
www.grupoeibar.com

E: comercial@grupoeibar.com

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA: 943 31 66 11
Ernai ,1 + 20570 BERGARA. **650 44 21 59**

familientzat interesgarria izan daiteke, beraz, auzo horretara bizitzera joatea, gaur egun itxuraz urrun dagoena urte batzuk barru erdigunean egon daitekeela kontuan hartuta.

Bibai agentzia dagoeneko salmenta akordioak ixten hasi da, eta, dagoen interesa ikusita, proiektua aurrera aterako den konfiantza osoa dute. Dena ondo bidean, aurtengo abenduan eraisketa makinak izango dira Urribesalgoko fabrika zaharrean.

Goi mailako isolamendu teknikoaz eta akustikoaz ekipatuta egongo dira Urribesalgoko etxeak. Erosotasunok bat datoz Grupo Sorelor enpresaren filosofiarekin, garrantzi handia ematen baitie zoru erradiatzaileak eta fatxada aireztatuak eskaintzeari.

Garajeak ere ez zaizkie faltako. 42 plaza egongo dira, eta etxea erosten dutenek izango dute eskuratzeko lehenasuna.

Gelmako etxeak, oraindik salgai
Fase ezberdinetan eraikitako etxe horietan, azken faseko batzuk gelditzen dira salgai oraindik. Bibai higiezin-agentziak hurrengo urtean espero du pro-

mozio honi bukaera eman eta etxe guztiak saltzea.

Eraiki zirenetik hamabi urte pasa diren arren, Gelmako etxebizitzetako zahartze paregabea nabari zaie, berri-berri baitaude oraindik. Kalitate oneko sei etxebizitza erosteko aukera dago oraindik, 80 garaje-plazarekin batera.

Lorentxokon, aukera ugari

Grupo Eibar higiezin-agentziak Bergarako Ernai kaleko bi atartetan dauzka hamar etxebizitza salgai. Gune eguzkitsua da, adineko pertsonentzat eraiki berri duten eguneko zentroaren ondoan kokatuta. Azken urteetan urbanizazio prozesu handia egin du Grupo Eibarrek Ernai kalean; ondorioz, seme-alabak dituzten familia gazteentzat bizitoki egoki bilakatu da auzunea. Toki lasaia eta familiarra da,

ARRASATEN, URIBESALGO ETA GELMAKO ETXEAK SALTZEN DITU BIBAI ETXE-AGENTZIAK



Lorentxoko urbanizazioko terraza baten maketa.

haurrek jolasteko parkea ere eskaintzen duena.

Bi bloke horietatik bat, 23. zenbakiari dagokiona, oraindik ez dago eraikita, baina, salmentak bizkor joan direla eta, obra egiteko lizentzia eguna aurreratu egingo du Grupo Eibarrek; hala, otsailaren 28a baino lehenago emango diote baimena.

Bertan, gaur-gaurkoz, zazpi etxebizitza bakarrik daude salgai, gainontzekoak hitzartuta dauzkatelako. Etxe horiek bi eta hiru logelakoak izango dira, norberaren gustura moldatzeko

modukoak, behin bertara sartuta aldaketarik ez egiteko. Logelak handitu nahi dituztenentzat, esate baterako, trabarik gabeko etxebizitzak izango lirateke. Sukaldea ekipatuta ekarriko dute etxebizitzok. Eta atiko zoragarriak erosteko au-

BERGARAKO ERNAI KALEAN AUZUNE LASAIA ERAIKITZEKO LANAK HARTU DITU GRUPO EIBARREK

kera ere badago, terraza handi eta guzti.

Garajeak ere egingo dituzte etxebizitzetako azpian. Hiru motatako aparkalekuen artean egin daiteke hautua: garaje indibidual irekia, garaje bikoitz irekia eta garaje bikoitz itxia.

Bloke horrek badauka abantaila bat Bergarako gainontzeko atarteekin alderatuta: sarreran bizilagunentzako gimnasioa izango du. Lanetik irten ostean edo asteburuetako lasaitasunean izerdi pixka bat ateratzeko aukera izango du, beraz, eraikin

Erreserbatu zure etxebizitza!

28 etxebizitza URIBESALGON (San Andres - ARRASATE)

3 logelako baxua: 255.000 €-tik + BEZa
3 logelako etxebizitza: 245.000 €-tik + BEZa
2 logelako atikoa: 275.000 €-tik + BEZa

SUSTATZAILEA



SALTZAILEA



☎ 943 253 821
✉ info@inmobibai.com
🌐 www.inmobibai.com





Aretxabaletako erdigunean kokatutako etxebizitza blokeak.



Antzuolako Kalebarren kaleko blokearen maketa.

horretan bizitzea aukeratzen duen herritar orok.

Eraikita dagoen blokean, Ernai kaleko 21. atartearen, alegia, estreinatzeke hiru etxe daude salgai oraintxe bertan, beste guztiak saldu egin dituztelako jada. Hiru logelako etxebizitzak dira horiek, eta lehen hiru urteetan alokatzeko aukera eskaintzen dute. Gainera, alokatu ostean bezeroak etxea erosi nahiko balu, alokairuan ordaindutako diruarekin ehuneko ehuneko amortizatuko luke erosketaren zati bat. Hau da, ez luke gastu gehigarririk egin behar, kasu askotan gertatzen denaren kontrara.

Etxe horiek bi seme-alaba dituzten familiei daude zuzenduta, batik bat, balkoi eta terraza zabalak eskaintzen dituzte, eta

BIZITOKI GOXOAK PROMOCIONES ORTUZAL SL-REN ESKUTIK ANTZUOLAN ETA ARETXABALETAN

baita individual eta estilo bikoitzeke garaje irekia ere.

Ernai kaleko 21 eta 23. atarteak ez dira Grupo Eibarrek Lorentxokon egingo dituen azken blokeak izango, aurrera begira etxebizitza gehiago egiten jarraituko du eta.

Aretxabaletan ere salgai

Ortuzal Promociones SLk salmenta eskaintzak plazaratu ditu Aretxabaletako erdigunearen ondoan, kiroldegiko bidegorriaren alboan kokatuta dagoen urbanizazioko bost atartetan.

Etxebizitzok bi fasetan daude: azken ukituak ematen ari zaizkie 9 eta 10 atarteetako 23 etxebizitzei, eta Aste Santura begira entregatu nahi dizkiete bezeroei. 11, 12 eta 13. atarteak, berriz, eraikuntza fasean daude orain; eraikinaren egitura-lanak has-tear, interesdunen eskaeraren arabera finkatuko dira proiektu osoa gauzatzeko epeak.

Bi eta hiru logelaz osatutako etxebizitza horiek eraikitzeke orduan, Ortuzal Promociones SLk hasieratik pertsonalizatzeke aukera ematen die erosleei,

eta horrek denetariko profilen arreta piztea ekarri du: familia daukaten edo osatu nahi duten 30 eta 40 urte arteko bikoteak, 30 urtez azpiko gazte abenturazaleak, etxebizitza handi batetik txikiago batera pasa nahi duen adineko jendea... Lasai bizi nahi duen pertsona orori zabaltzen dizkio ateak urbanizazio horrek.

Eraikin berria Kalebarrenen

Antzuolan ere toki paregabearen egingo ditu obrak Ortuzal Pro-

mociones SLk, Altzarte dastaketa-denda zegoen tokian eraikiko du-eta, 2021 hasieran, ha-maika bizitokiz eratutako eraikina. Kalebarrenen bihotzean, Zurrategi plazaren alboan, gainontzeko etxebizitzetatik isolatuta egongo da bloke hori.

80-90 metro karratu inguruko azalera eta hiru logela izango dituzte etxeek, baxuak terrazarekin joango dira eta gainontzeko etxebizitzak, balkoiarekin. Interes handia piztu du proiektu

horrek, bezeroentzat produktu goxoa eskaintzen duelako, jende gazteak eta familiek aprobetxatzeko modukoa.

Hasierako misioarekin bat eginda, Ortuzal Promociones SLk bezeroen beharrak asetzen dituzten kalitate oneko etxeak promozionatzen jarraitzen du. Bertako langileak beti daude interesatuek proposatutako al-daketak egitera irekita, eta faktore hori espazio zabalak eraikitzearen abantailatako bat da.

Pandemiak merkatua astindu du

COVID-19ak sektore ugari baldintzatu ditu, eta etxebizitzarena ez da salbuespena izan. Ziurgabetasunez egin zieten aurre higiezin agentziek martxoaren osteko hilabetei, bezeroek nola jokatu zuten jakin ezinda.

Era guztietako erreakzioak jaso dituzte etxe saltzaileek: gazte askok aurrekaririk gabeko

interesa erakutsi dute etxetik alde egiteko, hainbat bikotek aurrerapauso bat eman dute etxe txiki bat erosteko orduan, geroago berriro saldu edo alokairuan jar dezaketela pentsatuz.

Jende askok bere betiko etxea berritzatzeko intentzioz hasiko zuen urtea, baina, hilabeteak nola igaro diren ikusi eta gero, ideiaz aldatu eta etxe

berria erostearen aldeko hautua egin du, zaharra salmentara bideratuta.

Eta, noski, ekonomiak kolpe gogorra jaso duenez, badago jendea inbertsio handiak egin nahi arren gerrikoa estutzearekin konformatu behar izan duena.

Ondoriorik ateratzekotan, argi dagoena da balkoirik gabeko etxeek balioa galdu dutela, eta bizitokiaren kalitateak sekulako garrantzia hartu duela.

24/7 **24 ORDUKO ZERBITZUA**

**GSM LARRIALDI TELEFONO INSTALAZIOA
ETA KUOTAN TELEFONO LINEA BARNE**

**LED ARGIEKIN ETA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOA**

bertako
Igoailuak | ascensores

PIEZAK BARNE

**INDUSTRIAKO IKUSKAPENAK ANTOLATU
ETA ATENTZIOA EMATEA**

**ESKULANA ETA
JOAN-ETORRI GUZTIAK**

OROTARIKO ZERBITZUA

100 €-tik / hileko

Arrunta 70€-tik / hileko

Euskal Herria hobetzeko prest?

Bertakan emakumezkoen kirola, gubergoia, egokitua eta inklusiozkoa babesten dugu, elkarrekin Euskal Herri hobea erokituzko.

Garaia Berrikuntza Gunea

20.500 Arrasate

943 903 450

info@bertako.eus

www.bertako.eus



**ERALDAKETARAKO
AZKEN FASEA**
Informa zaitez

Cerrajería Valle Leniz izandakoa



Informazioa
www.grupoortuibar.com
Telf. 943 761 118



**Ortuzal
Promociones S.L.**

ANTZUOLAKO ETXEBIZITZEN HURRENGO SUSTAPENA

Hurrengo promozioa
3 gelako 11 etxebizitza





Arrasateko erdigunean efizientzia energetiko handiko azken etxebizitza dago salgai.

Eraginkortasun energetiko handiko etxebizitzak

Apenas energiari kontsumitzen duten etxebizitzak eraikitzen edo egokitzen ditu Ekitermik enpresak. Arrasateko Olarte kalean gisa horretako bi etxebizitza egin dituzte. Bi etxe horietako bat erosita dago jada, baina bestea salgai dago

Eraginkortasun energetiko oso handiko etxebizitzak egiten ditu Arrasateko Ekitermik enpresak. Ahalik eta energia gutxien kontsumitzen dutenak dira etxeok. Arrasateko Olarte kalean lokal bat egokitu, eta modu horretako bi etxebizitza eraiki dituzte Ekitermikekoek. Horietako bat salduta dago jada, baina bestea erosgai dago.

Ekitermikeko arkitekto tekniko Andoni Altubek azaldu duenez, hainbat faktoreren birtartez lortu dute etxebizitza horiek ia energiari ez kontsumitzea. Alde batetik, isolamendu handia dute, 17 zentimetro ingurukoa. Ohiko etxebizitzak, berriz, hiru eta zortzi zentimetro arteko isolamenduaren bueltan egoten dira. Leihoeak beira

hirukoitza dute eta hermetikotasun maila oso handia daukate. "Etxe bat oso ondo isolatuta dagoenean, barruan sentitzen duzun goxotasuna guztiz ezberdina da bestelako etxebizitza batean nabari duzunarekin alderatuta; adibidez, ez duzu korronte hotzik sentitzen", nabarmendu du. Horrez gain, energia berriztagarriak erabiltzen di-

tuzte Ekitermikek egokitutako etxebizitzek. "Batez ere, aeroterminia eta plaka fotovoltaikoak erabiltzen ditugu, baita aireztapen sistemak ere", azpimarratu du Altubek. Azken horrekin lortzen dutena da etxebizitzaren barruko aire kalitatea ahalik eta onena izatea, kontaminazioz gabea. Aireztapen sistemaren bitartez egiten da, polena eta bestelako partikulak iragazita. Betiere, energiari galduta gabe.

Aeroterminiari dagokionez, airetik lortutako energia aprobeztatzen dute berogailua martxan jartzeko eta ura berotzeko, besteak beste. "Galdara bat bezalako da, baina gasa erabili beharrean energia berriztagarriak erabiltzen ditu", nabarmendu du Ekitermikeko arkitekto teknikoak. Gauzak horrela, energia apur batekin energia kopuru handia lortzen da, Altuberen hitzetan.

Horrez gain, zoru erradiatzailea ere jartzen dute Ekitermikekoek etxebizitza jasangarrietan. Altubek azaldu duenez, zoru horren abantaila garrantzitsua konfort termikoa da: "Bero hori oso uniforme da eta azalera guztian dago". Horretaz aparte, eraginkortasun energetikoa ere bermatzen du, eta, energiaren aldetik, efizienteagoa da beste edozein sistema baino. Gainera, udan, zoru freskagarria jartzeko aukera ere ematen du.

Domotikaren aldeko apustua

Erreminta horietaz aparte, domotikaren aldeko apustua ere egin du Ekitermikek. "Olarateko etxebizitzetan berokuntza sistema osoa zentralizatuta dago, eta dena kontrolatu daiteke mugikorretik", adierazi du arkitekto teknikoak. Gainera, pertsi-
anek

ere motorrarekin funtzionatzen dute Olarteko etxeetan.

Alde ekonomikoari dagokionez, nahiz eta hasierako inbertsioa handiagoa izan, urte batzuen buruan, errentagarri bilakatzen da bezeroentzat. Hala ere, Altubek aitortu du herritarrei oraindik kosta egiten zaiela pauso hori ematea. "Erakutsi nahi diogu jendeari nolakoak diren etxebizitza hauek eta zer abantaila dituzten", gaineratu du. Edozein motatako etxebizitzetan egin daitezke gisa horretako zaharberritzeak: "Askotan, uste da baserriak bakarrik egokitu daitezkeela modu horretara, baina pisuetan ere egin daiteke". Olarteko etxebizitzak berriak diren arren, edonoren etxean egiten dituzte berritzeak Ekitermikekoek. Horretarako, eurekin harremanetan jartzea besterik ez da behar.

Etorkizuneko etxebizitzak

Arautegiari aurre hartzen ari da Ekitermik, eta etxebizitzentzat ezarritako dauden betebeharrak baino gehiago eskaintzen ditu Arrasateko enpresak. "Hemendik urte batzuetara etorriko den arautegiak gu ezartzen ari garen prestazioetara eramango gaitu", erantsi du Altubek.

Ekitermikek Arrasateko Olarte kalean egokitu duen etxebizitza eskuratzeko interesa dutenek eurekin harremanetan jarri besterik ez dute. Bi logelako etxebizitzaren prezioa 165.000 euro da, BEZik gabe.

AIRETIK LORTUTAKO ENERGIA APROBETXATZEN DUTE BEROGAILUA MARTXAN JARTZEKO

carrascaladapt

sukaldeak bainuak armairuak

**ZEURE NEURRIRA,
ZEURE GUSTURA**

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Urbarri Auzoa • 20500 Arrasate
Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

<http://carrascal.arotzgi.net/>



Igogailu zaharrak: aldatu ala konpondu?

Igogailu bat arazoak ematen hasten denean erabaki egin behar izaten da zer den hobe: konpontzea edo berria jartzea. Horretarako, egoera zein den aztertu behar da, eta horren arabera hausnarketa sakon bat egin, aukera onenaren alde egiteko

Igogailuak ere zaharkitu egiten dira, eta denborarekin arazoak ematen hasten dira. Une hori iristean, zer da hobe? Aldatzea ala berria jartzea? Baten ala besteren alde egin aurretik kontuan izan beharreko gomendio bat egin du Bertako igogailu enpresako ordezkari komertziala den Iban Sanchezek. Azaldu duenez, erabaki hori hartzeko "ziklo" bat dago. Aro hori hasten da igogailua arazoak ematen hasten denean. Momentu horretan hartu behar da igogailu berria jarri edo zaharra konpontzeko erabakia. Sanchezen ustetan, hausnarketa sakona egin behar da hasieratik.



Aurrekontuak eskatzea interesgarria da igogailuan aldaketak egitean.

Igogailuek 30-40 urte inguru iraun ohi dute, nahiz eta fabrikatzailearen arabera gorabeherak izaten diren. Normalean, jendeak ez du izaten etxean 40 urteko garbigailu bat, eta, era berean, komeni da igogailuak aldatzea urte batzuk igaro ostean.

Hori horrela, orokorrean, igogailu zahar batek arazoak ematen dituen berria jartzea aholkatzen du Bertakoko ordezkari komertzialak: "Konponketak egiten hasten bazara, diru pila bat gastatu, eta igogailu zahar bat izaten jarraitzen duzu". Konponketekin sarri suertatzen den arazo bat da fabrikatzaileek behar diren piezak egiteari utzi diotela. Ondorioz, jendea behartuta egoten da diru asko gastatzera erreparazio horiek egiteko.

Gauzak horrela, erreparazio handiak egin behar direnean, bezeroek 7.000-9.000 euro inguruko inbertsioa egin behar izaten dute, eta igogailu berri batek, berriz, bost geldiene dituenak, 24.000-25.000 euro bitartean balio ohi du.

Dena den, bezero batek edo etxebizitza bloke bateko komunitate batek erabakitzen badu

ez duela nahi igogailu berria jartzea, bada alternatiba bat: maniobra aldaketa egiteko aukera dago. Horrek esan nahi du igogailuaren elektronika osoa aldatzen dutela. Horren alde eginez gero, igogailua zaharra izango da, baina barruko osagarri guztiak berriak izango dira. Hori dela eta, maniobra aldaketa egitea irteera ona izan daiteke igogailua aldatzea nahi ez duen bezero batentzat. Oso emaitza onak ematen ditu horren alde egiteak.

Aurrekontuak eskatu

Igogailua aldatzean edo konponketa bat egitean, oso garrantzitsua da sektoreko hainbat enpresari aurrekontua eskatzea. Izan ere, oro har, sarri bultzatzen dute bezeroa konponketak egitera, aldaketak balio duenaren eta enpresaren artean diferentzia handia baita.

Hori kontuan izanda, interesgarria da bezeroarentzat hainbat ate jo eta prezioak konparatzea, batez ere, konponketa handiak egin behar direnean. Hori egin da, aukerarik onenaren alde egin ahal izango du.



efizientzia energetikoa

ETXEBIZITZA BERRIZTU BEHAR AL DUZU?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Gu arduratuko gara guztiaz



ekitermik@ekitermik.com
www.ekitermik.com
 688 870 219

AZKEN AUKERA!

Efizientzia energetiko altuko
azken etxebizitza salgai
Arrasateko erdigunean

2 LOGELA
165.000€+BEZ



Azken tendentziak etxeko txoko guztietarako

Etxea atontzeko orduan, azken joeren arabera kolore ilunak indarra hartzen ari dira. Berde kolorea oso modan dago, eta sukaldeetarako geroz eta gehiago erabiltzen da beltza. Dena den, bezero gehienek kolore neutroen aldeko hautua egiten dute

Etxe berria erostean edo obra bat egin nahi denean, interesgarria izan ohi da azken tendentziak zeintzuk diren jakitea. Etengabe doaz aldatzen, baina badaude zenbait joera beti modan daudenak eta oso erabiliak direnak. Bergarako Ugarte Aroztegiko barne dekoratzaile Rosa Muradasek azaldu du koloreei dagokienaz, azken tendentzien arabera, berdeak indar handia hartu duela; esmeralda berdetik hasi eta menta koloreraino. Dena den, bezeroak normalean kolore neutroagoetara joaten direla azpimarratu du. Horrez gain, formak jada ez dira "hain koordinatuak", Muradasek azalpenen arabera: "Altzari asko kurbatuak dira, forma geometrikoekin". Horren aldeko hautua egiteak espazioari estiloa eskaintzen diola uste du Ugarte Aroztegiko barne dekoratzaileak.

Horretaz aparte, Muradasek azaldu du geroz eta gehiago erosten direla altzari funtzionalak. "Sofa bat izan daiteke, zainari besoa igotzean entxufe bat eta bi USB portu izan ditzakeen", adierazi du. Motibo naturalak dituzten altzariak zein osagarriak protagonismoa hartzen ari dira; besteak beste, koadroak palmondoekin edo animaliekin. Ehuna ere ari da azaltzen dekorazioan.

Belusa erabiltzen hasi da jende asko kuxinak egiteko, baita sofetarako eta gortinetarako ere.

Muradasek azaldu du beste tendentzietako bat dela objektu "bereziki handiak" jartzea etxeetan; hala nola 60-70 zentimetroko diametroa duten erlojuak. Koadro, buruko eta ohe handiak jartzeko joera ere badago.

Tendentziak tendentzia, Muradasek erantsi du bezeroek ateporala den dekorazioaren alde egiten dutela: "Siplea baina elegantea denaren bila joaten da jendea".

Sukaldeetan, kolore ilunak

Antzekoa gertatzen da sukaldeetan. Bergarako Bastida Sukaldeak dendako Eli Madinagoitiak azaldu du gehien saltzen diren sukaldeak nordiko estiloa dutenak direla; zuriak, egurrarekin nahastuta. Carrascal Adapteko Gemma Carrascalek bat egin du horrekin. Uste du zuri kolorea edo gris antrazita egurrarekin

BATEZ ERE, OSAGARRIETAN ANIMATZEN DIRA BEZEROAK KOLOREA SARTZERA

konbinatzeak "goxotasuna" eskaintzen diola espazioari.

Hala ere, tendentzia nagusia da kolore ilunak erabiltzen hastekoa. Carrascalek azaldu du azken urteetan altzari berdeak zein urdin ilunak iristen ari zaizkiela dendara. Horrez gain, aipatu du osagarri beltzak sartzen hasi direla sukaldeetan, baita kolore horretako altzariak ere. "Konbinazio ausarta da, baina estilo handia eskaintzen dio sukaldeari", azpimarratu du. Hori horrela den arren, Madinagoitiak ohartarazi du kasu batzuetan "arriskutsua" izan daitekeela oso sukalde iluna jartzea, normalean ez baitira oso handiak izaten bezeroen etxebizitzak.

Batez ere, osagarrietan animatzen dira bezeroak kolorea sartzera. Eskulekuetan kolore beltza erabiltzeaz aparte, urre kolorea ere badabil lekua hartzen. Madinagoitiak nabarmendu du geroz eta ohikoagoa dela txorrotak ere kolore horietan jartzea. Horrez gain, Carrascalek adierazi du oso modan dagoela sukaldeko tresnak bistan uztea. Horretarako erabiltzen dira apalak, aluminiozko estrukturak edo beira-arasa duten armairuak.

Azken urteetan bezeroek bilatu izan duten beste joeretako



Geroz eta ohikoagoa da altzari beltzak dituzten sukaldeak ikustea.



Koloreei dagokienez, berdea da azken tendentzia.



Sukaldeko tresnak bistan uztea ere modan dago.

bat da espazio irekiak sortzerena, sukalde, jangela eta egongela batera jarrita, esaterako. Horretarako tabikeak botatzeko tendentzia egon da.

Komunetan ere, Madinagoitiak adierazi duenez, geroz eta leku handiagoa ari da hartzen kolo-

re beltza. Sukaldeetan gertatzen den bezala, komunetako txorrotak ere izan ohi dira beltzak, baita manparen estrukturak ere. Hala ere, oro har, komunetan ere kolore liso eta neutroen alde egiten dute bezeroek, Madinagoitiak azaldu duenez.

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com



"Edadetu askok ez daki zer egin edo nora jo"

JOSE ANTONIO ETA PELLO OJANGUREN XALBADORPE ERRETIRATUEN ELKARTEA
Elkarteko presidenteordea eta presidentea dira. Lanerako gogoz daude eta ideiarik ez dute falta zuzendaritzan, baina pandemia egoerak dena eten duela adierazi dute

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Hamar lagunek osatzen dute Xalbadorpe elkarteko zuzendaritza batzordea. Martxoan berri zuten, gainera.

Zuzendaritza berritzea ez da gauza erraza izan, ezta?

Ez. Inguruko herrietan ere berdina gertatuko da, baina ate asko jo ditugu, eta ezezko asko jaso ditugu. Latza izan da.

Sumatuko da aldaketa?

Lau kide berri sartu dira, eta sentsibilitate eta kezka berriekin datoz. Uste dugu gauza berriak egiteko aukera eta indarra eman digula horrek.

Pandemiak badu eragina, ezta?

Bai, noski! Jarduera asko geldirik daude. Gure inguruko herrietan ere bai. Arrasaten eta Oñatin badihardute elkartzen, baina gainerakoetan esango nuke ez direla elkartu ere egiten. Elgetan hileroko podologo zerbitzua da mantentzen dugun bakarra, eta horri ere buelta batzuk eman behar dizkiogu segurtasun neurriak zorrozteko, eta ordutegiei neurria hartzeko. Podologo berria hasi da eta egokitzapen batzuk egin behar ditugu. Gainerakoan, irten da kakorratz eta puntu lanak egiteko egitasmoa. Ikusiko dugu egitea posible izango den. Aldiz, ezin da ez irteerarik, ez bingo



Jose Antonio Ojanguren presidenteordea da, eta Pello Ojanguren presidentea. L.Z.L.

saiorik, ez karta joko txapelketarik egin. Badugu kezka. Halako egoeretan edadeko jendea etxe zuloan sartzen da, eta adin batetik aurrera ez da komeni izaten.

Hori da elkarrekin bete behar duen funtzioetako bat?

Jende edadetu asko dago zer egin eta nora joan ez dakiena. Jende horri aukerak eskaini behar dizkiogu. Tailerrak, kultura astea, gaztaina-erre jana... Halakoetara erretiratu asko etortzen dira. Helburua da entrenitzea eta etxetik ateratzea,

baina orain ezin da ezer antolatatu, eta badugu kezka horrekin.

Jendeak egiten du eskaerarik?
Ez. Gauzak antolatzen badira denak pozik, baina, gainerakoan, ez dago interesik. Aldiz, zerbait antolatu eta gaizki irteten bada, orduan bai etortzen dira kritikak.

Eta egoitzarekin, Ozkarbi elkarteko instalazioekin, gustura zaudete?
Ez dugu beste aukerarik eta ontzat ematen dugu, baina noski gustatuko litzazukeela edukitzea lokal bat gure kontrolpean. Hemen lotuta gaude, eta edozer gauza egiteko baimena eskatu

behar dugu. Ez da arazorik egoten, baina lotu behar dira erabilgarritasun aukerak eta beste. Arrasateko, Oñatiko edo Antzuolako egoitzak ikusi egin behar dira! Elgetako Udalak dirulaguntza ematen digu, baina lokalik, oraingo, ez.

Noiz jasotzen du erretiratu batek Ozkarbi elkarteko giltza?

Elgetan erroldatuta dagoen pertsona batek 65 urte betetzen dituenean jasotzen du giltza, eta hartzen ditu erabilera eskubide guztiak. Ez daukana da botorik batzar orokorrean. Egun, 164 bat erretiratu gaude elkartean.

Gainerakoan, nola ikusten duzue herriko erretiratuaren egunerokoa? Gabezia handiak daude edo ez?

Zaila da Elgetan pertsona nagusia izatea. Kutxabank bulegoaren itxiera, esaterako, kolpe gogorra izan da, premiazko zerbitzu bat zelako. Alde batetik, edadetuendako hain garrantzitsua den aurrez aurreko arreta galdu dugu. Bestetik, bizpahiru aldiz gertatu zaigu pertsona nagusi batek laguntza eskatzea, kutxazain automatikoarekin ondo konpontzen ez delako. Ez dakielako, ikusmen arazoak dituelako... Beste batean, kreditu txartel bat aurkitu genuen kutxazain automatikoan ahaztuta lagata. Ezagutu genuen izena eta itzuli genion jabeari, baina pentsa! Eta hemen dugun beste arazo bat mugikortasunarena da. Bergarara joan behar da aurrez txanda hartuta... Ez da erraza!

Elkarrekin estatutuak aldatu dituzue azken batzar orokorrean.

Bai. Urteetan aldatu gabeko estatutuak genituen, eta bi aldaketa nagusi onartu genituen martxoaren 12an egindako urteko batzar orokorrean. Lehenengo aldaketa da Xalbadorpe elkartean sartzeko Elgetan erroldatuta dagoen pertsona batek 65 urte betetzen dituenean jasotzen du giltza, eta hartzen ditu erabilera eskubide guztiak. Ez daukana da botorik batzar orokorrean. Egun, 164 bat erretiratu gaude elkartean.

datuta egon behar dela. Ez da horrela izan orain arte, baina kontuan hartuta Udalak dirulaguntza ematen duela elkarteko sozio bakoitzeko, puntu hori aldatu egin dugu. Bestetik, aurreko estatutuekin zuzendaritza batzordeak erabakitzen zuen eskaera egin duen pertsona onartzen zen edo ez, eta hori ere aldatu egin dugu. Nor da zuzendaritza batzordea hori erabakitzeko? Gaur egungo estatutuekin, Elgetan erroldatuta dagoen edonork egin dezake eskaera eta sartu egiten da, inongo oztoporik gabe.

Garai zailak dira, eta jende nagusiarendako, zer esanik ez. Ze mezu duzue Elgetako edadetuendako?

Egoera ez da ona eta badirudi gaiztotzera doala. Aurreikusten dugu itxi egingo digutela Ozkarbi, eta auskalo noiz arte. Pazientzia eskatuko dugu. Aukera zabaldu bezain laster prest izango gara lanean hasteko eta jarduera berriak martxan jartzeko. Gabonetan, hori bai, bazkideen artean hainbat otarre zozketatu nahi ditugu. Kuota kobratu dugu derrigorrezkoa zelako, eta zerbait eskaini nahi dugu orain.

Ozkarbin duzuen bulegoa berritze-ko asmoa duzue, ezta?

Bai. Lehen solairuan dago, eta 1.200 bat euroko aurrekontua dugu lanak egiteko; besteak beste, ordenagailua berritzeko eta agiriak txukun artxibatzeke. Joango gara udaletxera ere, ea laguntzarik jaso dezakegun lan horiek egiteko. Garrantzitsua da.

"GABONETAN BAZKIDEEN ARTEAN HAINBAT OTARRE ZOZKETATZEKO ASMOA DUGU"

LED argiak pilotalekuan

Hamaika proiektore berri jarri ditu Udalak. 5.100 euroko inbertsioa izan da, eta 800 euroko laguntza eman du Energiaren Euskal Erakundeak. "Argindarrean %70 aurrezteko aurreikuspen dugu", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak. "Argi azterketa teknikoak egiten ari gara orain, ikusteko proiektoreak lekuz aldatu behar diren edo besteren bat jarri behar den".



ELGETAKO UDALA

Hiru antzezlan eta argazki lehiaketa, azaroa girotzeko

Domeka kulturalak 2020 egitarauaren baitan Udalak iragarritako lehen ikuskizuna *Esnatu naiz* kabareta da. Andoni Mutiloak egingo du, azaroaren 8an. Hurrengo domekan, Zirika Zirkus taldearen *Eolo68* haur ikuskizunaren txanda izango da. Eta azaroaren 22an Naita Produktzioak taldearen *Adela eta Martirio Bernarda Albaren etxean*

antzezlanarena. Hiru saioak Espaloian izango dira, 18:30ean. Sarrerak doan dira, baina, lekua mugatua denez, aurrez egin behar da erreserba, <https://labur.eus/domekakulturalakerreserbak> helbide elektronikoan. Argazki lehiaketa ere iragarri du Udalak; lau gai argitaratuko dituzte *Elgeta.eus* atarian azaroaren lehen, eta azaroaren 30erako aurkeztu behar dira lau argazki *dano-nartian@elgeta.eus* helbidera. Elgetan erabiltzeko 50 euroko bonua jasoko du irabazleak.

2021erako zergak eta tasak izoztuta, aho batez

COVID-19ak baldintzatutako ordenantzen proposamenak zero igoera aurreikusten du, bereziki familiei, merkatariei eta ostalariei begirakoak direlako; EAJren eta PSE-EEren babesa izan arren, jeltzaleek partaidetza eta gardentasun gehiago eskatu diote Gobernuari

Jokin Bereziartua BERGARA

2021erako udal zergak eta tasak izoztea erabaki du udalbatzak, aho batez. "COVID-19a Bergarako familiak nola astintzen ari den ikusita, haiei begirako ordenantzak behar genituela argi genuen, eta hobariak hobetzeko ahalegina egin dugu. Orokorrean, zergak eta tasak izoztu egingo dira. Bestetik, merkatariei eta ostalariei begirakoak ere badira", esan zuen, asteleheneko osoko bilkuran, Gorka Artola alkatea.

Hobariak sektore zaurgarrienei

Pandemiaren okertzeak eraginda formatu mistoan egin zuten bilkura, eta 2021erako ordenantza fiskalen proposamena izan zen gai nagusia; ezaugarri orokorra zero igoera da. Hobariak dagokienez, enpresa txikiak laguntzeari begirako bi hobari nabarmendu ditu Ogasun zinegotzi Aitor Arantzabalek: enplegua sortzeagatik jasoko dituztenak eta COVID-19aren ondorioz kalteak izan dituztenak laguntzeko bideratuko direnak; lokalak egokitzeko lanak egiten dituzten merkatariei begira, %90eko hobaria aplikatuko zaie. Eta ostalaritzan, ez da kobratuko mahaiak edota aulkiak jarzteagatik zerga urte osoan; hala ere, maiatzean berrikusiko da



Terraza bat udaletxe atarian: hasierako asmoa da urte osoan tasa ez kobratzea. J.B.

eta egoeraren arabera erabakia hartuko da. Euskara ikasleko erraztasunak ematea ere aurreikusten du proposamenak, Arantzabalen arabera: "Euskaltegiko matrikularen tasa orokorra %15 jaitea proposatzen da; eta bekadunen, langabeen eta tarifa sozialaren tasa, %25".

Hobariak Agorrosingo abonuan

Pandemiak gogor astindu du Agorrosin kirola egiteko aukera; aste honetan bertan, alama egoerako azken neurriak aintzat hartuta, Larrialdi

informazio guztia dago *Ztbergara.eus* webgunean. Gogora ekarri behar da jardunaldion helburua dela teknologia, zientzia eta berrikuntza gizarteko esparru guztietara zabaltzea. Pandemia egoeran ere, "ahalik eta egitaraua aberatsena" osatu nahi izan dute eta euren ahalegina egin dute hitzaldi interesgarrienak online jarraitu ahal izateko.

Hori bai, jardunaldiotako klasisikoetako bat den Wolfram Encounterra ez da egingo, jende pilaketak ekidin nahi direlako.

ZTB jardunaldietarako komeni da izena alde aurretik ematea

Martxan dira azaroaren 26ra arte iraungo duten Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldietako hitzaldiak, erakusketak eta ikastaroak. Bereziki hitzaldietarako, alde aurretik eman behar da izena: 943 76 90 03 telefono zenbakira deituta edo *laboratorium@bergara.eus* helbide elektronikora idatzita; egitaraua eta ekitaldien gaineko

Mahaiak erabaki du talde jarduerara presentzial guztiak bertan behera uztea, eta "ahalegin berezia" egingo dute modu telematikoa kirol jarduerak eskaintzeko. Banakako kirola baimenduta dagoenez, igerilekua, fitness aretoa, bideo areto txirringulartza eta padela eskaintzen jarraituko dute. Horrela, 2021ean Agorrosingo urteko abonamendua egiten dutenek bi hilabeteko hobaria izatea onartu dute. Eta udalekuak "bergarar guztientzat" izan behar direnez, datorren urtean ere tarifa soziala ezartzea erabaki dute.

EAJ alde, baina kritikekin

Agintaldi honetan lehen aldiz onartu dira ordenantza fiskalak aho batez. Gobernuaren proposamena jaso ostean, hiru emendakin multzo aurkeztu zituen EAJk; tartean, besteak beste, 2021era arte terraza jartzearen zergarik ez kobratzea. Jeltzaleen proposamenak aintzat hartu direla eta Maite Agirrek eskertu egin zuen ordenantzaren bultzan akordioarako borondate politikoa erakutsi izana. Hala ere, bilkuraren ondoren Elena Letek

GOIENARI adierazi zion borondate hori beste arlo batzuetara ireki beharko luketela, eta ez dutela egiten: "Ekarpenak egin genituen eta horien bueltan egin dugu lan; badakite gure proposamenak Bergararen aldekoak direla. Entzun digute eta gure proposamenak aintzat hartu dituzte; horregatik gure aldeko botoa. Baina behin eta berriro salatu behar dugu ez dutela partaidetza eta gardentasuna bilatzen".

Ekaitz Aranberriren liberazioa

Osoko bilkuran hartu ziren beste erabaki batzuen artean, EH Bilduko zinegotzi Ekaitz Aranberri %35eko dedikazioz liberatzea erabaki zuen udalbatzak, urteko soldata gordina 13.924 eurokoa izanda eta 14 pagatan ordaintzeko. EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren.

2020A URTE FISKAL GOGORRA IZANGO BADA ERE, FAMILIEN ZAMA ARINTZEA LEHENETSI DUTE



Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzea:

Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzea:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena.
2. Ekonomia jardueren gaineko zerga arautzen duena.
3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena.
4. Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duena.
5. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena.
6. Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.
7. Zerbitzuak eskalari eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituena.
8. Zerbitzuak eskalari eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden prezio publikoak arautzen dituena.

Erabakia udalbatza osoak 2020ko urriaren 26ko bileran hartu zuen. Erabaki hori behin betiko bilhurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, behin-behineko erabaki hau 30 lanegun jarriko da ikusgai jendaurrean Udaletxeko iragarki taulan, interesatuek espedientea aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal dituzten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinaraziko zaio jendeari, eta iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arauzko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berriak hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2020ko urriak 27
ALKATEA



Udaleko, Diputazioko eta Aita Menniko ordezkariak, eguneko zentro berrira egindako bisitan, urriaren 23an. BERGARAKO UDALA

Ernaiko eguneko zentroa, azaroaren 2an martxan

Urte eta erdiko atzerapenarekin eta pandemiagatik edukiera erdira murriztuta bada ere, astelehenean irekiko dute zentro berria; alkateak balioa eman dio hirugarren adinekoen lanari: "Gure helduei esker ditugu egun ongizatea bermatzen dizkiguten tresnak"

Jokin Bereziartua BERGARA

Aurreikusitakoa baino ia urtebete eta erdi geroago eta COVID-19aren ondorioz edukiera erdira murriztuta, baina astelehenean, azaroak 2, irekiko ditu ateak Ernai kaleko eguneko zentro berriak.

Udalaren arabera, Ernai kaleko eraikin berriko azken lanak amaitu berri dira eta azaroaren 2an zabaltzea aurreikusita dago. Udalak hitzarmen bidez lortutako eraikina Diputazioak kudeatuko du. 50 urterako zesoia egin da, eta gauza bera eraikin zaharraren kasuan, Udalaren esku geratuko dena. Gorka Artola alkatea, Ongizate zinegotzi Ainhoa Lete, eguneko zentroko zuzendaria, erizainen ardura-duna eta Aita Menniko kudeatzaile Irune Galarraga -EAJko zinegotzi ere bada Bergarako Udalean- egon ziren bisitan.

Edukiera erdian, pandemiagatik
Orain arte, Boni Laskuraingo zentro zaharrean eta pandemia

heldu aurretik, 25 plaza eskaintzeko aukera besterik ez zegoen, eta, COVID-19 dela eta, 18 plaza soilik eskaintzen zituzten. Obra berriarekin, 40 plazara heltzeko gai izan dira, baina, izurriaren ondorioz, 24 plaza bakarrik eskaini ahalko dituzte, oraingoz. Pandemiaren bilakaeraren arabera izango da 40 plazako edukierara heldu ahal izateko baimena; Udalak espero du lehenbailehen eskaintzea zerbitzu osoa.

"Aspalditik" datorren beharra

Gorka Artola alkateak adierazi du "aspalditik" zetorren beharra zela Ernai kaleko zentroa irekitzea: "Aspalditik espero genuen zerbait zen hau, ahalik eta pertsona gehienei zerbitzua ematea

2019KO MARTXOAREN 25EKO BILKURAN ONARTU ZEN EGUNEKO ZENTRO BERRIRAKO HITZARMENA

nahiko genuke. Une egokian dator, COVID-19aren eraginez are gehiago murriztu behar izan delako eskaintza. Gure herriko pertsona helduek behar dituzten zerbitzu guztiak eskura izan ditzaten nahi dugu. Haiek egin dako lanari esker ditugu guk gaur egun ongizatea bermatzen dizkiguten tresnak. Guri dago-kigu, orain, hirugarren edo laugarren adinean dauden pertsonen ongizatea bermatzea".

Urte eta erdi geroago

Ia urte eta erdiko atzerapenarekin dator zentro berriaren irekiera. Hirigintza hitzarmena 2019ko martxoaren 25eko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak Urartetxe enpresarekin, eta orduan adierazi zuten 2019ko maiatzean martxan jartzea aurreikusten zutela. Urartetxe izan da, Lorentxoko etxebizitzekin batera, eguneko zentroaren solairua eraiki, Udalarari utzi eta lokala bera egokitze lan guztiak egin zituena.

Hilerrira domeka aurretik joatea eskatu dute, pilaketak ekiditeko

Kanposantuko oharrei kasu egitea eskatu du Udalak: "Seinaleak egongo dira, eta banakako ilaratan mugitu"

J.B. BERGARA

Domekako Domu Santu egunaren bueltan (Ikus 4. orria) hainbat irizpide zehaztu ditu Udalak, pandemiak eragindako egoerara egokituta: "Azaroaren laren bueltako testuinguruan jende emaria asko handitzen da hilerriarren inguruan, eta, horregatik, hainbat gomendio zehaztu ditugu". Hasteko eta behin, herritarrei gomendatzen zaie loreak eraman eta garbiketa lanak egin behar izatekotan, ahal dela, azaroaren 1a baino lehen egitea. Eta domekan bertan, jende pilaketak saihesteko, kanposantuan bisita laburrak egitea eskatu dute: "Seinitartekoak ikustera baino ez joan, eta hilerriarren bisita hurrengo egunetarako laga".

Seinaleak hilerrir barruan

Ura botatzeko txorrota ukitu aurretik ezinbestekoa izango

da eskuak garbitzea, eta ura botatzeko ontziak norberak eroan beharko ditu etxetik. Gainera, Udalak hilerrir barruan ibiltzeko norabideak markatuko ditu: "Jarraibideak segi eta mugimenduak jarraituz egin. Banakako ilaran mugitu beharra dago". Horrez gain, Udalak gogora ekarri du maskara erabiltzea eta metro eta erdiko elkarren arteko distantzia mantentzea derrigorrezkoa izango dela.

Udaltzainak ere egongo dira

Hilerrria 08:00etatik 20:00etara egongo da zabalik domekan. Hilerririko langileek eta udaltzainek zaintza lanak egingo dituzte, pilaketak egon ez daitezten eta bisitak osasun neurriak zainduz egin daitezten bermatzeko: "Haiek emandako oharrei kasu egin, mesedez".

Bertan behera, espetze politikaren aurkako Azken Ostirala

Bertan behera geratu da, COVID-19agatik, Gure Artera Sarek gaurko deitutako Azken Ostiraleko elkarretaratzea berezia. "Eskatzen ari gara ez da inongo pribilegiarik ematea. Salbuespeneko espetze politika bertan behera gera dadin eskatzen ari gara, euskal presoei lege arrunta ezartzea" esan dute Saretik, zapatuan *Resolution* leloarekin

Donostian egin zen mosaiko erraldoiaren ondoren. Urtarrilean Bilbon egin ohi den manifestazioa ez dakite egingo den, pandemiagatik, baina data zehaztuta dute: "Argi eta ozen esan nahi dugu kaleak duintasunez, giza esku-bideen defentsaz eta elkarbizitza eta bakearen aldeko aldarriz betetzen jarraituko dugula. Hala egingo dugu datorren urtarrilean ere. Gorde zuen agendetan urtarrilaren 9a, modu batean edo bestean Euskal Herriko kaleetan elkartuko gara eta" esan dute.

OHARRAK

Erretiratuen eta pentsiodunen elkarretaratzeak

Alarma egoeran egonda ere, asteleheneroko protestekin aurrera egitea erabaki dute. Bestalde, urriaren 31n Donostian egin behar zuten manifestazioa atzeratu egingo dute, azken neurriengatik.

Azken eguna hika ikastaroan izena emateko

Begarako hitanoa ikasteko saioan izango dira azaroaren 3an, 5ean, 10ean, 11n eta 12an, 18:15etik 20:15era. Udal euskaltegian emango dira eta gaur da azken eguna izena emateko: 943 76 44 53.

Labegaraietako taberna ustiatzeko esleipena

Kontratuak urtebete iraungo luke. Izena emateko edo argibide gehiagorako: www.bergara.eus/eu/Udala/kontratazailea.

Emakume sozialisten Itaia sarea aurkeztu berri dute

Itaia emakume sozialisten sareko taldea sortu dute Deba bailaran, eta 30 gazte inguru batu ziren zapatuan egindako aurkezpeneko hitzaldian. "Emakume langileen problematikari panorama politikoan lekua egitea" da sarearen asmo nagusia

Jone Olabarria BERGARA

Duela bi urte sortu zuten Itaia emakumeen antolakunde sozialista sarea, eta, aurreko aste bukaeran, Debagoieneko eta Debabarreneko kideak batuko dituen Deba bailarako Itaia taldea aurkeztu zuten Bergarako UNEDen egoitzan. "Emakume langileen problematikari panorama politikoan lekua egitea" da Itaia sarearen asmo nagusia. Kideek azaldu dutenez: "Gaur egungo testuinguru ekonomikoari erreparatuta, emakume langileen zapalkuntza areagotu egin da atzeraldi ekonomiko gogor honen aurrean. Itaia emakumeen antolakunde sozialista da, genero problematika klase ikuspuntutik lantzen duena. Bere helburu edo norabidea zapalkuntza bako gizartea sortzeko asmoarekin emakumeak bere askapena lortzea da".

Harrera positiboa

Berrogei bat lagun batu ziren zapatuan egindako aurkezpenean, eta antolakuntzak ontzat jo du izandako harrera: "Oso ondo baloratzen dugu; azkenean, 25 bat pertsona batu ginen, jende ezberdina etorri zen, herri ezberdinetako jendea, eta, hala, gure partetik oso positiboa iruditzen zaigu".



Zapatuan egindako aurkezpeneko irudia, Bergarako UNED-en. JOSU BILBAO

Osasun krisia, kezka iturri

Osasun krisialdiak atzeraldi ekonomikoa bizkortzea eragin du, eta, horrekin, emakume langileen bizi baldintzak ere kalte direla azaldu du Itaia sareko kide Eneritz Arizmendiarretak: "Momentu honetan bizi dugun egoera krisi sanitario honek bizkortu egin du jada lehenagotik zetorren krisi ekonomiko eta soziala. Horrek langile klasearen bizi baldintzak okertu ditu; are gehiago, emakume langilearenak. Guretzat oso garrantzitsua eta beharrezkoa da

antolakuntza politikoa, egoera honi aurre egin eta gure bizi baldintzak hobetzeko".

Egungo egoerari lotuta

Momentuko gertakari eta auzi politiko-teorikoen analisi kritikoa lanaren erdigunean jarri nahi izan dutela azaldu dute: "Hori ulertzen baitugu proposamen eraginkorrena osatzeko beharrezko jarduna. Egoera ekonomikoak sorturiko testuinguruak eta horri aurre egiteko mahai gaineratu diren proposamenetan ikusten ditugun hutsu-

neek, ordea, antolakuntza politikorako saltoa egiteko urgentzia markatu digute, eta, horren ondorioz, eskualdez eskualde dugun indar militantea batzeko hautua egin dugu".

Bat egiteko deia

"Bergaran egin dugu aurkezpena, baina Deba bailara osoko talde bat gara eta gurekin bat egitera animatzen dugu ezagutu nahi gaituen hori. Sare sozial bidez edo nahi den moduan gurekin harremanetan jarri, eta prest egongo gara jendearekin

"Isolamendu politikek indarkeria testuingurua errazten dute"


MADDI ALDAZABAL ITAIA SAREKO KIDEA

Noiz eta nola erabaki zenuten Itaia Sarea sortzea?

Emakume langileen problematika egungo panorama politikoan txertatzea zen. Momentu hartatik, jasaten ditugun zapalkuntzak identifikatu eta hauei aurre egiteko proposamen politikoa garatzen aritu gara. Gaur egungo testuinguru politikoan azaleratu diren egoerei aurre egiteko ikusten ditugun hutsuneek antolakuntza politikorako saltoa egitea behartu dute.

Nolako ekintza edo asmoak ditu etorkizunerako?

Emakume langileen antolakuntzarako bitartekari politikoak sortzera eta bizi eta lan baldintza desberdintasunei aurre egitera bideratuko dugu gure jardun politikoa.



GOIENA

Nola aurreikusten duzue langileen etorkizuna?

Garai ilunak dauzkagu aurretik. Osasun krisialdiak atzerapen ekonomikoaren bizkortzea eragin du eta emakume langileen bizi baldintzak modu agerian kaltetu dira. Asko eta asko dira egun batetik bestera lan eta diru-sarrerarik gabe geratu direnak. Gainera, ezin dugu ahaztu isolamendu politikek indarkeria gauzatzeko testuingurua errazten dutela, emakumea inolako irtenbiderik gabe utziz eta bakardadera kondenatuz.

hitz egiteko". Deba bailarako taldeak sare sozialen bidez emango du ekintzen berri -Twitter @itaia_deba eta Instagram @itaia_debabilara-, eta herritarrek gerturatu eta taldean parte har dezaten dei egin dute.

"EMAKUME LANGILEEN ZAPALKUNTZA AREAGOTU EGIN DA ATZERALDI GOGOR HONEN AURREAN"

Benita Arruek, ehun urte

Astlehenean ospatu zuen urtebetetze eguna, familiako kideekin eta zaintzan laguntzen dioten pertsonekin batera. Bere bizitza luze eta oparoaz berba egiteko tartea izan zuten. Seguran jaio eta haurtzaroa Ataunen pasa ondoren, gaztetan iritsi zen Benita Arrue Bergarara. Gorka Artola alkateak bisita egin dio Udalaren izenean, omenaldi gisa.



BERGARAKO UDALA

Euskarazko hitzak, erromatar garaiko Soriako izkribuetan

Heriotzarako erromatar ohiturak Soriako Tierras Altas eskualdean. Euskararen aztarnak antzinako epigrafian erakusketa gaurtik abenduaren 20ra arte egongo da ikusgai Bergaran. Zehazki, Soriako Tierras Altas eskualdean, probintziaren iparraldean, euskarazko izenak dituen erromatar garaiko hainbat inskripzio aurkitu dituzte, hileta esteletan,

eta horien lekuko den erakusketa iritsiko da gaur Laboratorio museora. Inaugurazio ofiziala 17:30ean egingo dute eta bihurtik aurrera, hilak 31, publiko orokorarentzat zabalik egongo da erakusketa.

Udaletik azaldu dutenez, Pirinioez hegoaldera aurkitutako multzo handiena da, aurkituntza "bereziki garrantzitsua". Izan ere, antzinateko euskarazko hitzen bat duten inskripzio gehienak Akitanian topatu dituzte.

"Istorio unibertsal bat kontatu nahi genuen"

GARBIÑE INSAUSTI KULUNKA KONPAINIA

Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen Mostraren baitan, Kulunka euskal konpainiak 'André eta Dorine' lana eskainiko du bihar Seminarixoan, 19:00etan

Jone Olabarria BERGARA

Hainbat urtez nazioartean aritu ostean, bakardadea eta adinekoak protagonista dituen lanarekin dator Kulunka konpainia.

Zer topatuko du bihar Seminarixo-ra gerturatzen den ikusleak André eta Dorine lanean?

Bizitza osoa elkarrekin pasa ostean alzhemerraren gaixotasunari aurre egin beharko dion bikote baten istorioa du ardatz lanak. Umorearekin eta sentsibilitate askorekin kontatuta dago, eta gaixotasunak behartuta iraganeko uneak gogoraztera behartuta ikusten dute euren burua: nola maite zuten elkar, igarotako uneak... Horrek



Garbiñe Insausti aktore eta Kulunka konpainiako kidea taula gainean. KULUNKA

euren arteko harreman berri bat sortuko du.

Alzhemerra eta bakardadea ditu ardatz; hala ere, ez da lehen aldia gai hauek lantzen dituzue.

Alzhemerraren gaia tratatzea ez zen hasierako erabakia izan. 80 urtetik gorako bikote batek bere buruaz beste egitea erabaki zuela irakurri genuen, elkarrekin hiltzeko, elkarrekin egoteko. Lanean ez da haien historia kontatzen, baina, bertatik abiatuta, adineko pertsonen amodiozko istorio bat kontatzeko beharra sortu zitzaigun. Adineko protagonistak ez dira oso maiz ikusten agertokian, eta guk sentsibilitate handia izan dugu beti halako kontakizunekiko. Kulunkaren *Solitudes* lana ere familia batean kokatzen da eta protagonista aitona da. Bere bakardadea eta etxeko kideen arteko inkomunikazioa da ardatza, nahiz eta gainerako kideen historia ere kontatzen duen, nor bere problematikarekin.

Hitzik gabe eta maskarak protagonista dituen lan bat da...

Historia unibertsal bat kontatu nahi genuen, eta horretarako argi genuen hizkuntza unibertsal

bat erabili behar genuela. Jendeak, agian, maskara eta hitzik gabeko ikuskizuna entzun eta zenbait aurreiritzi izan ditzake, ulertuko ez duelakoan edo... Herritarrak animatu nahiko nituzke aurreiritzi horiek alde batera laga eta gerturatzerara; oso garbi ulertzen den istorio bat da, oso erraz sentitu gaitzeko identifikatuta edozein pertsoniarekin. Hogeita hamar herrialde ezberdinetan izan gara lan honekin eta harrera oso gozoa izan dugu.

Hain zuzen, Txotxongilo Mostrakoek aitortzen zuten pandemiak eragin da izan dela posible zuek aurten Bergaran egotea...

Duela hamar urte estreinatu genuen lana eta ordutik hona herrialde askotan egon gara, ia 600 funtzio eskaini ditugu. Egia da etxean aritzeko ez dugula aukera askorik izan, baina guretzat beti da pozgarria gurean aritzea. Hemen aritu ginenean 2012. urtea zen; orain, hainbeste urteren ostean, gurean berriz aritzea oso berezia da. Etxean sortu genuen obra hau ere, eta berriz ere dena hasi zen lekura itzuliko dela sentitzen dugu.

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,
%100 EMATEN

GOIENA
20 URTE
ALBISTE

**KIROLEAN
IZAN DIREN
MUGARRIAK
AZKEN BI
HAMARKADETAN**

GOIENA: 20 URTE 20 ALBISTE,
ERREPORTAJE SORTA

URRIAREN 30EAN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN



goiena
20 URTE ZUEKIN.



Espaloiak zultzen hasita daude Olakua auzoko lanetan. O.E.

Olakuako beste gune bat eraberritzen ari dira orain

Txiki Txoko haur eskolaren eta auzoko autobus geltokiaren arteko ibilbidea irisgarria izateko ari dira lanak egiten. Espaloiak zabaldu eta bi zebra-bide berri egingo dituzte, eta zintarria jarriko dute berdegunean, ikusmen urria dutenei orientazioa errazteko

Oihana Elortza OÑATI

Olakua auzoko irisgarritasun planaren beste fase bat egiten hasita daude dagoeneko. Auzoaren hasierako gunean egingo dituzte oraingoan, eta asmoa da 2021eko urtarrilean amaitzea.

Eraberritzeko proiektua

Olakuako 2 eta 3. zenbakidun etxe-blokeen inguruko urbanizazioa berritzea da lan horien helburua, A2B Arquitectos enpresak idatzi zuen proiektuaren arabera. Hilaren hasieran ekarri zuten materiala eta langileek erabiltzen dituzten aldagelak dauden kasetak, eta urriaren erdian, 15ean, hasi zituzten lanak.

Eremu horretan dauden atarien ondoko oinezkoen ibilbideak egokituko dituzte, irisgarri bihurtuko, zebra-bideak egin eta mugikortasun urria duten pertsonentzako aparkalekuak berri-tuko dituzte, irisgarritasun arauetara egokituko edo, araua guztiz bete ezin denean, gaur egungo egoera nabarmen hobez-

tzeko. Hau da, Txiki Txoko haur-eskolaren eta auzoko autobus gergalekuaren artean ibilbide irisgarria egokituzko, Olakua auzoko 2A-2B eta 3A-3B etxe arteko eremua eraberritzea aurreikusten duen proiektua ari dira orain gauzatzen.

Espaloiak zabalduko dira, batez ere, 3-A eta 3-B atarien aldean. Mantendu egingo dituzte handuden aparkalekuak, berri-tu egingo dituzte alde bateko zein besteko eserlekuak, eta zintarria ipiniko dute berdegunearen bueltan, ikusmen urria dutenen orientazioa errazteko. Gainera, 2-A eta 2-B etxeen aldameneko ibilbideak ere berri-tuko dituzte, zoladura berria jarriz eta bidea oztopatzen duten bide-seinaleak

**URRIAREN 15EAN
HASI ZITUZTEN LANAK,
ETA ASMOA DA
URTARRILEAN
AMAITZEA**

eta farolak tokiz aldatuz. Altxatutako plataforma erako bi zebra-bide berri egingo dituzte, Txiki Txokora eta autobus geltokira doazen oinezkoen bide-kiko lotura modu seguru eta irisgarrian bermatzeko.

Ur saneamendua ere bai

Dagoeneko hasi dira eremu horretako espaloi batzuk zultzen. Zulo sakonak egin dituzte; izan ere, irisgarritasun lanekin batera ur saneamendua berri-tzeko ere aprobeztatuko dituzte obrak. Gipuzkoako Urak SA enpresak eskatu du lan horiek egitea, eta lanok euri urak eta ur zikinen saneamendua berri-tzea aurreikusten dute. Ugarte eraikuntza enpresari esleitu dizkio Udalak, 139.909,92 eurotan –BEZa kanpo–.

Orain egiten ari diren obra horiek lehen auzoko janari dendaren inguruan egindakoaren jarraipena dira eta ez dira azkenak izango. Oraindik fase gehiago gelditzen dira egiteko.

Hilerriko bisita ahalik eta motzena izatea da gomendioa

Gehienez, 358 lagun egon ahal izango dira batera barruan eta pertsona bat egongo da hori zaintzen

O.E. OÑATI

Egungo egoera aintzat hartuta, neurri bereziak egongo dira Oñatiko hilerrian domeka honetan, Domu Santu egunean. Edukiera mugatua izango da, arauari kasu eginez, eta sartzen den pertsona kopuruaren erdia baino ez da sartuko: 358 lagun. Hiru gune ditu Oñatiko hilerriak: erdikoa, eskuinetara dagoen lehen handitze fasea eta ezkerretara dagoen bigarren handitzea. Kanposantu osoko gehiegizko edukiera izango da hori. Udal langile bat egongo da sa-

rreran edukiera zaintzen. Sarrera-irteerak ondo adierazita egongo dira eta barruan derri-gorrezkoa izango da maskara jantzita erabiltzea. Barruan egoteko denbora, baina, ahalik eta laburrena izateko gomendioa egin du Oñatiko Udalak; ordu erdi ingurukoa, gehienez. Ahal izanez gero domeka aurretik joatea ere aholkatu du.

Udaltzaingoa, bestalde, egun horretan lapurretekin kontuz ibiltzeko oharrak jarriko ditu hilerri inguruan, eta areagotu egingo dute zaintza.

Arantzazuko autobusak neguko ordutegia izango du

Domekan, azaroak 1, neguko ordutegiarekin hasiko da zerbitzua ematen Oñati eta Arantzazu lotzen dituen autobus zerbitzua: 07:30ean izango da lehenengoa, Oñatin, eta 18:00etan azkena, Arantzazun. 10:30etara eta 14:00etara Arrikruzen ere geldituko dira. Ordutegi hori martxora arte izango da.

Euskaraldiko poltsak eta banderatoxak eros daitezke

Euskaraldiko poltsak eta banderatoxak salgai daude herriko hiru puntutan: Txokolateixan, Turismo Bulegoan eta Euskaraldiari buruzko informazioa emateko zabaldu duten gunean, Euskaldun Berria gelan astelehen eta asteazkenean, 18:00etatik 20:00etara. Bost euro dira poltsa eta banderatoxa.



NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI

Ezina buruz gain

Lagun bati entzundako istoriotxoak da ondorengoa: bazen asto zahar bat estropezu egin eta zulora erori zena. Lagunak haren bila irten ziren eta laster aurkitu ere, astoaren arrantzak aldameneko herrian entzuteko modukoak baitziren. Zuloa sakona zen, eta ia inork ez zuen hura handik ateratzeko biderik ikusten, eta gainera, zaharra zen eta aspaldian makal zebilen, eta azkenean, bertan lurperatzeko erabakia hartu zen.

Buruz gain lurra botatzen hasi ziren, eta astoa larri, zer gertatzen ari zen ulertu ezinik zegoen. Beltza baino beltzagoa ikusten zuen egoera, baina halako batean, indar biziz, goitik zetorkion lurra hanka azpian hartu eta sarjentuek baino jenio handiagoz lurra zapaltzen hasi zen, eta horrela, gora eta gora egin zuen zuloan. Ez dakigu lagun guztiak poztu ziren edo ez, baina asto zaharra handik irteteko gai izan zen.

Elkar zaintzen buru-belarri gabiltzala pentsatu nahi nuke, baina gure gizartera begiratuta, ez dakit zer esan. Beharbada, burua betiko lepotik dugula?

Urtarrilean igerilekuak eta martxoan kirol gelak

Goiena telebistako 'Harira' saioan egon da Izaro Elorza alkatea, eta hantxe izan du hizpide, besteak beste, kiroldegiko proiektua. Pandemiaren eraginez ere egin du berba, eta gaur egungo eta datorren egoerari erantzuteko Udalak gaitasuna duela esan

Oihana Elortza OÑATI

COVID-19aren indize tasa altua edukitzearen eremu gorrian sartzen Debagoieneko lehen herria izan da Oñati, baina horren inguruko datu zehatzik ez dutela, datu falta dutela, adierazi du astean Izaro Elorza alkatea Goiena telebistako *Harira* saioan, eta ia Gipuzkoa osoan dagoen egoera beraren barruan kokatu: "Udaltzainek jarraituko dute behaketak egiten, baina esan digute jendea, orokorrean, oso ondo ari dela portatzen eta ostalariak zein merkataria neurriak hartzen, baliabideak jartzen eta oso ondo erantzuten ari direla". Egoerari aurre egiteko informazioa falta dutela ere esan zuen alkatea.



Izaro Elorza, martitzen arratsaldean, Goiena telebistako platoon. O.E.

Ekintzak antolatzen jarraitu

Kopuruaren gorakadaren arrazoiak zeintzuk diren ez dakitela aitortu zuen Elorzak, baina ez zuen lotu herriko ez-jaiekin: "Mugikortasunean aldaketak egon dira; lanera eta ikastera hiriburuetara joan gara, esaterako. Kirol ligak ere martxan hasi dira, talde kirolak... Hainbat faktore egon ahal izan dira, baina ikusten da zerbait orokorra dela. Azoka kultur gunean eskaintako ekintzetan, adibidez, 2.000 bat herritarrek hartu zuten

parte eta han ez zen kutsaturik egon". Ez-jaien balorazio positiboa egin zuen Elorzak: "Ikusi besterik ez dago, ekintza askotan sarrera guztiak agortu ziren. Herritarrek erantzun dute, eta eskertzekoa da hori. Egoki erantzun da bai kultur gunean, baita kalean ere". Horri lotuta, gaineratu zuen jarraituko dutela gauzak antolatzen, "kulturan aldeko apustua egiten, kultura segurua dela ikusi da eta".

Ez-jaien data horietan udaltzainen eraikinean egindako pintaketan harira, "puntuala"

izan zela deritzo Elorzak, eta ez duela uste berriz errepikatuko denik. Horri lotuta, GOIENArekin harremanetan jarri zen herritar batek adierazi zuen pintaketa hori beste batzuk baino azkarrago kendu zutela, eta Elorzak azaldu zuen irizpide hau erabiltzen dutela: "Pintaketa iraingarria dela ikusiz gero, momentuan ematen da abisua kentzeko. Gainerakoetan, beste balorazio bat egiten da". Egon dako botila festen jakitun, orokorrean horien berri puntuala jaso dutela nabarmendu zuen

Oñatiko alkateak, baina "arazorik ez" dagoela.

Finantza plan beharrik ez

Egungo momentuari helduta, Oñatiko alkateak "zerbitzu publikoen alde" egiteko unea dela aipatu zuen elkarrizketa saioan, eta sektore kaltetuen egoera leuntzen saiatu behar dela. "Tasaren azterketa sakona egin dugu eta horrekin hainbat hobari proposatu ditugu ostalariendako eta merkatarientzako, adibidez, zabor tasetan edo terrazetan, eta elbarritasunen bat duenarendako kirol tasetan".

Oñatiko Udalaren egoera ekonomikoari dagokionez, Elorzak hauxe uste du: "Udalak badu gaitasuna aurreikusitako aurrekontuak aurrera ateratzeko, pandemia egoera honetan beharrei erantzuteko eta gure esku-menekoak ez direnei ere erantzuteko. Badugu gaitasuna, eta ostean ere izango dugula uste dut". Gipuzkoako Foru Aldunditik, foru funtsen bitartez, %15eko murrizketa etorriko da, azkenean; Oñatira ekarrita, aurrekontutik 1,3 milioi euro gutxiago, gutxi gorabehera. "Datorren urtekoa ere aurreratatu digute, 2020ko itxierako aurreikuspenetik %10 gehiago aurreikusten dute. Eta horrekin jokatu dugu".

Oposizioan dagoen EAJ alderdiak behin baino gehiagotan adierazi du Oñatiko Udalaren egoera ekonomikoa ez dela hain ona eta finantza plan bat egiteko beharra dagoela. Alkateak, baina, adierazi zuen ez dutela horren beharrik ikusten: "Ez dut uste oso bideragarria denik lau urterako finantza plan bat. Egoera ezegonkorra da, ez dakigu zer gertatuko den datozen hilabeteetan. Kontu hartzailearekin hasieratik ari gara egoe-

raren jarraipena egiten, eta bere irizpideak hartzen ditugu kontutan aurrekontuak prestatzeko eta lehentasunak markatzeko, baina, hortik aurrera, ez dut uste horrelako finantza planik behar denik".

Proiektuak

Martxan dauden proiektuez eta egingo direnez ere mintzatu zen Elorza *Harira* saioan. Esaterako, baieztatu zuen urtarrilean igerilekua erabilgarri egongo dela eta gainerako fitness eta beste-lako gelak otsailerako edo martxorako egongo direla prest.

Azkoagainera joatea segurua izan dadin, biribildune bat egingo dute, eta bidea Lesezarri aldera. Natra inguruko obrak egiteko, aldiz, probak egiten ari dira, ezer egiten hasi baino lehen neurriak egokiak diren ikusteko. Bestalde, dendetan gastatzeko atera dituzten bonu erdiak dagoeneko gastatu direla ere esan zuen Elorza: 1.500 herritarrek alta eman dute eta 2.000 bonu erosi dira dagoeneko.

Azkenik, Madalena eta Garibai arteko errepide zatirako Aldundiak proiekturen bat baduela ere aurreratatu zuen: isla batzuk egin, errepidean produktu berezi bat bota eta abiadura murriztu, adibidez. 5G-ren inguruan, telekomunikazioa ez dela Udalaren eskumen eta ezin dutela gelditu; bai, ordea, ordenatu: "Udal ordenantza bidez ziurtatu daiteke egingo dutena egoki egiten dela".

DENDETAN ETA OSTALARITZAN ERABILTZEKO ATERATAKO BONUEN ERDIAK GASTATU DIRA

Mendiko federatuen txartela berritzeko garaia dator

Aloña Mendiko mendi sailak 2021erako federatuen txartelak berrituko ditu datorren hilabeteetan, azaroan. Dagoeneko federatuen kideei automatikoki eguneratuko diete txartela, baina federatu berriek bulegora joango beharko dute. Elkarteko bulegoan egongo dira lan hori egiteko, azaroaren 11n, 12an, 17an eta 18an, 19:00etatik 22:15era.

Posta elektronikoz ere eman daitezke datuak federatu txartela ateratzeko. Hilaren 21a aurretik bidali behar da mezua, hona: alonomendi.mendi@gmail.com. Oinarrizko federatu lizentzia estatu mailakoa da. Pirinioetara joateko, eskia edo snowboarda egiteko edo mendiko bizikletan ibiltzeko, gehigarriak ordaindu behar dira. Aloña Mendik azpimarratu egin du federatuta egotearen beharra mendian ibiltzeko; bere irteeretan parte hartzeko ere federatuta egon behar da.

Abonamendua egongo da aurtengo Musikegunetarako

Azaroan izango da Musikegunak egitasmoa eta aurtun aukera egongo da abonamendua ateratzeko. Azaroko lau domekatan izango dira kontzertuak: zortzi euro izango da sarrera eta lauretara joateko abonamendua, 25 euro. Udak webgunean edo Txokolateixan har daitezke. Musika klasikoko emanaldiak Santa Anan izango dira, 19:00etan.

Espainiako txapelduna da

Espainiako duatloi txapelketa irabazi berri du Miren Josune Bikuña oñatiarrak bere kategorian; sailkapen orokorrean bigarren egon zuen. Sorian izan zen lasterketa, hartu beharreko neurri guztiak hartuta. "Momentuan ezin izan nuen inorekin ospatu, ez zegoen eta inor. Arraroa izan zen, bai. Oso pozik nago", esan du kirolari oñatiarrak.





Leintz-Arizmendi taldeko jokalaririk bat, baloia buruarekin eman ostean. GOIENA

Bailarako bi klub ziren asteburuan jokatzekoak, eta batek uko egin dio

Kirol klub guztien ligak etenda edo hasi gabe daude, emakumezkoen futbol taldeen eta eskubaloituen kasuan izan ezik. Fagor Industrial Aloña-Mendik etxean jokatu du, Ford Mugarririk atsedena du, eta Leintz-Arizmendiko jokalariek ez jokatzeko erabaki dute

Xabi Gorostidi ARRASATE

Koronabirusaren hedapena galarazteko onartutako arau berriek are gehiago zaildu dute kirol taldeen ezjakintasun egoera. Panorama zaila zuten aurretik, eta ligak jokatu ahal izateko bidea lainoz beteta dago. Bailarako kirol klubak atea jo du GOIENAK, zein puntutan dauden jakiteko.

Futboleant, askotariko egoerak

Gipuzkoako Federazioak 15 egunez ligak geratzeko erabakia hartu zuen urriaren 23an. Hala, bailarako gizonezko futbol taldeak partidurik gabe geratu ziren bi astez. Ez, ordea, Leintz-Arizmendiren kasuan. Euskal Ligan jokatzeko dutenez, Euskal Federazioaren menpe daude, eta, horrek partidurik gabe geratuaren alde egin duenez, asteburu honetan jokatu behar zuten li-

gako lehen partidua, Gasteizen, domekan, Lakuaren aurka. Baina, egoera ikusita, ez jokatzeko erabakia hartu dute: "Jokalariek askok ez zuten begi onez ikusten partidua jokatzeara, eta gure kabuz uko egitea planteatzen ari ginen. Taldeko gehienok beterranoak gara, eta gure lanpostuak ditugu. Aisialdiagatik hamar eguneko konfinamendu bat izatera arriskatzeko ez zitzaigun zentzuko iruditzen, eta, azkenean, ez jokatzeko erabaki dugu. Futbol kontuetan, gauza askotan, emakumeak ilarrako azkenak izaten gara, eta

LEINTZ-ARIZMENDI TALDEKO JOKALARIEN EUREN KABUZ HARTU DUTE PARTIDURIK EZ JOKATZEKO ERABAKIA

harriztekoa da orain gizonezko batzuk gelditu egotea, eta gu ez".

Zentzu berean eman du iritzia Aloña Mendi futbol taldeko entrenatzaile Endika Ruizek. Euren kasuan, bigarren aldiz konfinatu behar izan dira jokalariek denboraldi honetan. "Jokalariek dira garestien ordaintzen dutenak. Futbola zaletasun bat da guretzat, eta gure senideak eta gure lanpostuak arriskuan jartzeko arriskua hor dago. Ilusioz beteta hasi genuen denboraldia, iaz mailaz igotzea lortu ostean, baina, gertakariak ikusita, oso zaila da behera ez etortzea. Denboraldi-aurreko lagunarteko batean taldeko batek positibo eman zuen, eta harekin batera jokatu zutenak konfinatu egin zituzten; aurkariak, ordea, ez. Kolpe gogor haren ostean, Elgoibarren aurka jokatu genuen ligako lehen partidua, eta hor

"EZ JOKATZEKO ERABAKI DUGU JOKALARI GEHIENOK; EZ ZEUKAN ZENTZURIK"



OLATZ LEGARDA
LEINTZ-ARIZMENDIKO KAPITAINA

"FUTBOLA AISIALDIA DA GURETZAT, ETA LANPOSTUEK ETA OSASUNAK LEHENTASUNA DUTE"



ENDIKA RUIZ
ALOÑA MENDIKO ENTRENATZAILEA

"EZ JOKATZEKO ASMOA AZALDU ARREN, JOKATZERA BEHARTU GINTUEN FEDERAZIOAK"



AITOR UGARTE
MEKALKI ALOÑA MENDIKO ENTRENATZAILEA

"15 EGUNERAKO ETEN DITUZTE LEHIAKETAK, BAINA SUSMOA DUT EGOERA GEHIAGO LUZATUKO DELA"



HERIBERTO ARRIOLABENGOA
ARAMAIOKO PILOTA TALDEKO ARDURADUNA

ere aurkari batek positibo eman zuen. Partidua jokatu eta sei egunera deitu zigun aztarnariak, eta talde osoa konfinatu behar izan dugu. Egoera oso etsikorra da talde osoarentzat, baina, batez ere, jokalarientzat".

Mondraren kasuan, entrenamenduak eteteko erabakia hartu du klubak. "Domekan hartu genuen erabakia. Alde batetik, txapelketak etenda zeudelako, eta baita Arrasateko egoera larria zelako, kolore gorriko herrien zerrendan sartu berri geundelako. Txapelketak berrartzen badira, talde nagusien entrenamenduak berrartuko ditugu, eta, bitartean, jokalariek euren kabuz entrenatzen arituko dira", azaldu du Xabi Etxeberriak, klubeko presidentek.

Saskibaloituen taldeak, gelditu

Aste honetan bertan behera geratu dira saskibaloituen taldeen txapelketak. Zentzu horretan, aipagarria da Mekalki Aloña Mendi taldekoei pasa den astean gertatutakoa. Sestaoko Salleko taldearen kantxan jokatu behar zuten, baina pandemiaren egoera ikusita zentzuzkoago ikusi zuten ez jokatzeko. "Oñati kolore

gorriko herrien artean egonda, egoera hobean dagoen herri batera joatea arriskutsuegia zela iruditu zitzaigun. Hala jakinaz genion Federazioari, baina jokatu egin behar genuela adierazi ziguten. Erabaki horren aurka geundenez, partiduren lehen segundotuan geldialdia egitea adostu genuen bi taldeek, protesta gisa", azaldu du Aitor Ugartek, taldeko entrenatzaileak.

Pilotaren ere, partidurik gabe

Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko pilota federazioek txapelketak 15 egunez gelditzeko erabakia hartu dute. "Bi aste iraungo du hartutako neurriak, baina susmoa dut egoera gehiago luzatuko dela. Gure kasuan, Arabako lehiaketa jokatzeko hasi berri geunden, ligaxka fasean", azaldu du Aramaioko Pilota Taldeko Heriberto Arriolabengoa. Entrenatzeko orduan, orain arte bezala jarraituko dute. "Ez dugu sei lagun baino gehiagoko talderik; beraz, orain arte bezala entrenatuko gara. Hori bai, higie eta distantzia neurriak zorrotz bete".

Errugbiaren zain

Euskal Errugbi Federazioak kontraktorik erabaki ezean, azaroaren 8an da hastekoa Euskal Ligako lehen maila. ARTko jokalariek, ordea, txapelketa "negura arte" atzeratuko dela uste dute, eta Federazioaren erabakien zain daude.

TXAPELKETA GEHIENAK, BEHIN-BEHINEAN, BI ASTEKO EPEAN EGONGO DIRA PARTIDURIK GABE

Egoerak behartutako Behobia birtuala, gertu

ATLETISMOA Koronabirusak bultzatuta abuztuan erabaki zuen Fortuna kirol elkarteak Gipuzkoako lasterketa entzutetsuena bertan behera uztea; baina, hutsunea betetzeko, korrikalariak aukera dute Behobia birtuala egiteko, azaroaren 2tik 8ra

Xabier Urzelai ARRASATE

Behobia-Donostiaren historiako 55 edizioetan antolatzaileek ehunka zailtasuni egin behar izan diete aurre, baina koronabirusak lortu du 2020ko edizioa bertan behera uztea. Hala ere, urtero irteera puntuan batzen ziren korrikalariak datorren asteburuan sumatuko duten hutsunea betetzeko, antolatzaileek beste aukera bat jarri dute abian, modu birtualean bada ere: "Abuztuan, ohiko formatuan ez egiteko erabakia hartu genuen. Baina Fortuna Kirol Klubaren diru-iturri nagusia da BSS, eta lasterketako diru-sarrerak kirolera bideratzen dira. BSS



Korrikalariak Bulebarreko zuzenean, iazko edizioan. GOIENA

gabe, klubaren bideragarritasuna arriskuan dago, eta etorkizunean lasterketa honen edizio gehiagoz gozatzea ere bai", adierazi dio GOIENari klubeko ordezkari Arantza Rojok: "Horregatik da hain garrantzitsua bultzatzea Behobia birtualaren lehenengo edizioa".

Izen-ematea, azaroaren 5a arte
Lasterketa birtual hori egiteko hainbat aukera egongo dira. Egun batean egin ahal izango da lasterketa osorik, edo 20 kilometroko distantzia hainbat saiotan bete ahal izango da. BSS-ren webgunean bertan eman daiteke izena - *Runnea Academy*-ren webera bideratuko du horrek-, eta izena ematearekin batera (15 euro) bertako aplikazioa deskargatu beharko da poltsikoko telefonora, eta, hain zuzen, aplikazio horrek berak erregistratuko du korrikalariak zenbateko distantzia bete duen korrikaldi bakoitzean: "Kilometroak erregistratzen dituzten pertsona guztiak parte hartzaile gisa agertuko dira probaren historian ere. Gainera, domina bat jasoko dute".

MENDI LASTERKETA

Oihana Kortazar, Azoreetako proban

Aurtengo denboraldian gutxi dira koronabirusa saihestuta antolatu ahal izan dituzten mendi lasterketak. Eta, hain zuzen, atzo hasi zuten urteko hitzordu handietako bat, Azores Trail Run (Portugal). Oihana Kortazar elgetarra da proban parte hartzen dabilen 100 korrikalarietako bat. Atletek 126 kilometro egingo dituzte lau etapatan.

BORROKA ARTEA Leire Rato, Espainiako txapelkun sambon

Eskoriatzako Atama taldeko Leire Rato irabazi zuen joan den asteburuan, Murtzian, Espainiako Combat Sambo Txapelketa. Espainiako borroka arte olinpiarren artean dagoen modalitate horretan, Rato 60 kilometro kategorian hartu zuen esku. Hala, urrezko domina horrekin, Atama klubak lorpenak pilatzen jarraitzen du.

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,
%100 EMATEN

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOKO HAUTESKUNDEAK

MANU DIAZ HAUTAGAIAREKIN ELKARRIZKETA

'HARMAILATIK'

AZAROAREN 2AN, ASTELEHENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

XABIER URZELAIK AURKEZTUA.



goiena
20 URTE ZUEKIN.



El dúo de *La Africana* zarzuela eskaini zuen iaz Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak. IMANOL SORIANO

Zarzuela emanaldirik ez aurten Amaia antzokian

2003an egin zuten 'Los gavilanes' obra "handia" aukeratu zuen Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko zuzendari Tere Gonzalezek aurtengo udazkenean berriz eskaintzeko asmoz, baina, pandemiaren eraginez, bertan behera utzi dituzte emanaldi guztiak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE *La tabernera del puerto* lanarekin, 2000n, estreinatu zen Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa. Harrezkero, urtero obra berri bat eskaini izan dute, eta urtero antzokia lau emanaldietan lepo betetzea lortu dute. Aurten, baina, ez da zarzuela emanaldirik izango, eta, taldekideak "penaz" dauden arren, ez egitearen aldeko hautua zergatik egin duten azaldu du Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko zuzendari Tere Gonzalezek: "Konfinamendua entseguekin hasteko geundela etorri zen. Ez genuen elkartzeko aukerarik, eta ez egitea erabaki nuen, arrazoi askorengatik, eta taldekideek bat egin zuten".

Zarzuela handia da, hiru ekinaldi ditu, eta, horregatik, ezinbestekoa zuten martxotik azarora bitartean prestatzea. "Uda ostean egoera hobetuko zen esperantza genuen, baina denbora gutxi zen entseguetarako. Eginez gero, gainera, edukiera erdira mugatuta, dirua galduko genuen, eta ezin genion aurre egin. Osasun kontuak ere aintzat hartuta, abestu daiteke maska-

**"EGOERA IKUSITA,
EZIN ZIUR ESAN
DATORREN URTEAN
EGIN AHALKO DUGUN"**

TERE GONZALEZ, ZUZENDARIA

rarekin, baina nekez antzeztu daiteke zarzuela tokitik mugitu barik, eta taularen gainean lagun asko daude une batzuetan".

'Los gavilanes' egitea zen asmoa Arrasateko elkarteak antzeztu zuen hirugarren obra, *Los gavilanes* -Jacinto Guerreroren musika eta Jose Ramos Martinen libretoa duena-, berriz Amaia antzokira ekartzea zen asmoa. "Oso polita da, eta berriz egiteko gogoia pizten dizun obra horietako bat da. Indiano baten istorioa da; diru mordo batekin itzuliko da bere herrira eta gazetako neska-lagunaren alabarekin maiteminduko da.... Eta, hortik hasita, istorio pila bat

ditu. Aurreko aldian, jendeari asko gustatu zitzaion. Zarzuela ezaguna da".

Entseguekin hasi barik zeuden, baina aurreko lanak eginak zizutuzten. "Bakarleriak aukeratuta zeuden eta abesbatzakoak ere hasteko prest. Dekoratuak egiten hastekoak ziren, baina gurean obratan ari direlako behin-behineko lokal batean gaude orain, eta, egia esan, txikia da halako lanak egiteko; horregatik, erakitzen aurreko lanetan ari ziren horiek, eta baita jantzien taldekoak ere".

Datorren urtean, auskalo

Egoera dagoen moduan ikusita, Gonzalez ez da ausartzen datorren urtean ere egiteko moduan izango diren baieztatzeraz: "Auskalo; sei hilabeteko alarma egoera ezarri dute, ez dakigu ordura artekoa izango den, baina, hala balitz, berandu hasiko ginatke entseguekin eta bestelako lanekin. *Los gavilanes* taularatzea da gure asmoa, baina ederra besteko obra luzea da".

Urteetan zehar jendearen joan-etorriak egon diren arren, talde finko bat da Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa; hala ere, zuzendariak dio beldur dela guztia bukatutakoan jendeak nola erantzungo duen. "Zarzelako lantaldea berriz konbokatzen dudanean, uste dut ondo erantzungo dutela, eta etorriko direla; bakarleriengatik ez dut ardura handirik; bereziki, abesbatzak kezkatzen nau, 60 lagun behar direlako. Urte asko daraman jende asko dago, baina egia da, era berean, esfortzu handia eskatzen duela; irailtik azarora bitartean hilabete oso lanpetuak dira guretzako, eta familiarekin edo lagunekin plan gutxi egiteko aukera izaten da".

Kooltur Ostegunak eten egin dituzte

Antolatzaileak irtenbide berriak aztertzen ari dira eguenetako kultura eskaintza bermatzeko

A. Aranburuzabala ARRASATE

COVID-19aren inguruko neurriak gogortu egin dira, eta, ondorioz, Kooltur Ekintza taldeak antolatzen dituen eguenetako kontzertuetan eragina izan du; atzo, Donostiako Lie Detectors taldearen kontzerturik ez zuten egin, eta ekimenaren bultzatzaileak irtenbide berriak aztertzen ari dira epe laburrean lotuta zizuztenak aurrera eraman ahal izateko. "Kultura segurua dela aldarrikatu nahi dugu eta asmo horrekin jarraitzen dugu, uste dugulako kulturak ezin duela atzerapausorik eman. Denboraldi berria hasteko moldaketa asko egin genituen; besteak beste, edukiera murriztu, publiko eserita eta maskara jantzi-ta, gela erabili beharra aretorea sartzeko eta irteteko orduan... Hala ere, horiei guztiei neurri murriztaile gehiago gehitu zaizkie, eta, egoera berrira egokitzeko moldaketa gehiago egin beharrean gaudenez, horiek aztertzen ari gara; izan ere, gure asmoa programazioa lehenbailehen berriz abiatzea da", azaldu dute Kooltur Ekintza taldekoek.

Rukula taldearen kontzertua izan ezik, aurreikusitako guztiak egin dituzte urrian, eta publikoaren "harrera ona" izan dute.

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,
%100 EMATEN

ARETXABALETAZ, UNAI ELKOROREKIN

"HARRIRA"
AZAROAREN 3AN, MARTITZENEAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA



goiena
20 URTE ZUEKIN.

"Dokumentala zuzenean musikatu dugu"

AITOR ETXEBARRIA 'EL_TXEF_A' MUSIKARIA

Beratu musika jaialdian izango da ibilbide handiko Gernikako musikaria: 'Markak' dokumentala eta 'Nihilism Part 1' diskoa aurkeztuko du; sarrerak, 'Oñati.eus' atarian

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Oñatiko musika jaialdia estreinatzeke irrikaz dago Aitor Etxebarria Gernikako musikaria. **Beratu jaialdia egingo da, eta zuhan izango zara. Pozik?**

Oso pozik! Izugarriko musikariak joaten dira Beratu jaialdiara jotzera, eta asko pozten gaitu aurtun gutaz pentsatu izanak. **Sortzaile moduan, ze garrantzi ematen diozu halako ekitaldiak antolatzen jarraitzeari?**

Beti egon dira gauzak kili-kolo kulturaren, eta are gehiago dirulaguntza erraldoiak hartzen dituzten jaialdi handietatik kanpo dauden ekitaldietan. Orain, imajinatu nola gauden denok... Programatzaileak eta musikariak kristoren lana egiten ari gara gelditzen zaizkigun indar gutxiak ateratzen, dena pikutara ez joateko, eta asko eskertzen da Beratuk, Kaiolak, Iparragirrek... egiten duten esfortzua.

Zer esango zenioke ekitaldietara joateko zalantzan dagoenari?

Lasai-lasai etortzeko; lehen pertsonan ikusi dut nolako neurriak hartzen diren kultura ekitaldietan, eta benetan dena mimo handiz zaintzen dela. Ez duena joan nahi, kultura maite ez delako da. Aurreko baten, Gernikako Lizeo antzokian hunkitu egin nintzen adin nagusiko hiru emakume kontzertu batean ikusi nituenen.

Markak dokumentalak ibilbide bat egin du. Zer kontatzen du?

Hannot Mintegiak Oier Plazaren laguntzarekin zuzendutako dokumentala da. Mina lehen pertsonan pairatu duen gizarte bat azaleratzen zaigu. Orain, bakean eta bizikidetzan bizitzeko egitekoari aurre egin behar dio gizarte horrek. Oso aukera ona da Gernikako bonbardaketa lehen pertsonan bizi izan zutenen testigantzak ikusi eta entzuteko, eta baita Gernikako gaur egungo gazteen energia berria sentitzeko ere.



Etxebarria eta taldekideak, *Markak* dokumentalaren soinu banda grabatzen a.e.

Beratu musika jaialdiaren egitaraua

Azaroak 4, eguaztena

- **Zinema emanaldia**
Markak dokumentala, Santa Ana antzokian, 19:30etan.

Azaroak 6, egubakoitza

- **Los Sara Fontan eta Sua taldeen kontzertuak** Santa Ana antzokian, 20:00etan.

Azaroak 7, zapatua

- **Aitor Etxebarriaren eta Gaizka Insunzaren kontzertua** Santa Ana antzokian, 20:00etan.

Azaroak 8, domeka

- **Hakima Flissiren kontzertua** Lazarraga lorategian, 13:00etan
- **Joseba Irazokiren kontzertua** Antixena gaztetxean, 18:00etan.

Zuzeneko musikarekin eskainiko duzue Oñatiko emanaldian ere?

Bai; dokumental osoa musikatu dugu. Asko gustatzen zaigun formatua da, eta beti alboan ditudan musikariak izango dira taularen gainean: Jatsu Argarate, Eñaut Zubizarreta, Hasier Oleaga, Ibai Etxebarria eta Leire Pikabea.

Bestetik, *Nihilism Part 1* lana aurkeztuko duzu Oñatin. Zelakoa da?

Iazko urte bukaeran kaleratu nuen, Primavera Sound eta Londresko Mute-kin batera. Bost urte luzez isilpean komposaturiko abestiak dira. Ez dira denak instrumentalak, baina ez da askorik abesten den disko bat. *Gore becerra* askoko diskoa da, dinamika askokoa. Zati oso isilak eta zati oso zaratsuak nahasten ditu. Isiluneak eta entzuten ez denak garrantzia dauka.

Gaizka Insunzarekin izango zara Oñatin. Biok elkarrekin jotzeko?

Bakoitzak bere proiektua aurkezteaz gain, ziur zerbait egingo dugula batera...

Orain ere grabazio estudioan zaudete. Zertan?

Koldo Almandozek zuzendutako *Hondar ahoak* telesailerako soinu bandarekin nabil asteotan.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko urriko sariak!



Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Saskia

Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
OSTATIKO BAKA

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harronamendak.org
Gazteak eta ikasleak ez dira sartzen.

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" (bazkidearen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrez dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jabearen dagoen datu pertsonal Goiena Komunikazio Zerbitzuen itxeratu automatizatuen sartze dirala (Etu-bileta lortzen helburu) balena da indarrez dagoen zuzeneko gaitza. Eskubidea eragoz dezake, baina ez du eraginik bere erabakietan. Hala ere, ez du eraginik bere erabakietan. Hala ere, ez du eraginik bere erabakietan. Hala ere, ez du eraginik bere erabakietan.

Irabazi bi lagunendako otordua

DUKIENA JATETXEARI ESKER

Begiritu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: Azaroaren 3a

📞 943 25 05 05 📧 kluba@goiena.eus

📍 KLUBA Jabetzea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



ESKAINZA BEREZIA!

Urritik abendura bazkideak: 30€

Deitur: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

HILDAKOAK

- Manuel Martinez Escobar.** Bergaran, urriaren 14an. 80 urte.
- Timoteo Okina Isas-isasmendi.** Aretxabaletan, urriaren 14an. 84 urte.
- Juan Angel Fernandez Lopez.** Arrasaten, urriaren 16an. 62 urte.
- Rosario Urrutia Galdos.** Arrasaten, urriaren 16an. 87 urte.
- Samuel Gomez Quintana.** Arrasaten, urriaren 16an. 90 urte.
- Marina Karetxe Urrejola.** Aramaion, urriaren 16an. 85 urte.
- Jose Antonio Armendia Zabala.** Arrasaten, urriaren 17an. 82 urte.
- Ana M. Zugazaga Barreinkua.** Arrasaten, urriaren 17an. 73 urte.
- Kontxi Arrieta Urisabel.** Arrasaten, urriaren 19an. 74 urte.
- Maria Concepcion Larunbe Larunbe.** Arrasaten, 19an. 97 urte.
- M. Angeles Ibarrodo Agirre.** Arrasaten, urriaren 20an. 63 urte.
- Guadalupe Mora Muñoz.** Arrasaten, urriaren 20an. 95 urte.
- Maria Rodriguez Anguas.** Arrasaten, urriaren 22an. 82 urte.
- Juan Wic Telles.** Bergaran, urriaren 23an. 84 urte.
- Rosario Hidalgo Marquez.** Arrasaten, urriaren 24an. 97 urte.
- Isidoro Davila Guerra.** Arrasaten, urriaren 24an. 87 urte.
- Jose Ramon Irueta Balentziaga.** Bergaran, urriaren 24an. 66 urte.
- Pako Bergaretxe Unamuno.** Arrasaten, urriaren 25ean. 81 urte.
- Jose Antonio Ondarra Auzmendi.** Bergaran, urriaren 26an. 82 urte.
- Juan Maria Ugarte Markaide.** Arrasaten, urriaren 27an. 81 urte.
- M. Cruz Muruamendiaraz Igartua.** Bergaran, urriaren 27an. 77 urte.
- Jose Luis Galdos Guridi.** Oñatin, urriaren 27an. 87 urte.
- Ander Nafarrate Leibar.** Aramaion, urriaren 28an. 35 urte.
- M. Carmen Larrañaga Loidi.** Bergaran, urriaren 28an. 79 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 30	SANCHEZ: Euskal Herria plaza, 15 / 943 79 09 74
Zapatua, 31	ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Domeka, 1	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Astelehena, 2	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Martitzena, 3	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
Eguaztiena, 4	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Eguena, 5	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 30	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Zapatua, 31	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Domeka, 1	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Astelehena, 2	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Martitzena, 3	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguaztiena, 4	MÓZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguena, 5	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 30	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 31	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 1	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 2	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 3	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztiena, 4	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 5	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2020ko abenduaren 31ra arte.
ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30	
BERGARA GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2020 osoan:
ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63	

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

URTEURRENA

Maria Joxepa Zumalde Zumalde



Paulo Zumalderen alarguna
2019ko urriaren 31n hil zen, 100 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urriaren 31n, 19:00etan, Araozko parrokian.

—
*Iratargi amandria
zeruan ze barri?
Zeruan barri onak
orain eta beti.*

Aldez aurretik, mila esker.
Oñatin, 2020ko urriaren 30ean.

OROIGARRIA

M. Carmen Larrañaga Loidi



2020ko urriaren 28an hil zen, 79 urte zituela.

—
*Amama,
ez dugu inoiz zure irribarrea ahaztuko.
Gugan izango zaitugu beti.*

Jon, Maria, Beñat, Aitzol eta Mikel.
Bergaran, 2020ko urriaren 30ean.

ESKER ONA



Maria Cruz Muruamendiaraz Igartua



2020ko urriaren 27an hil zen, 77 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2020ko urriaren 30ean.

ESKER ONA



Ander Nafarrate Leibar

2020ko urriaren 28an hil zen, 35 urte zituela.

Haren gurasoak: Iñaki eta Petri.
Arreba: Amaia eta Jon Sasigain.
Osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

—
Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

—
*Haizeari esango diogu
Belarrira esateko
Zauden lekuan zaudela
Ez zaitugula inoiz ahaztuko.*

Aramaion, 2020ko urriaren 30ean.

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguruia izan,
zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko
eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.



BADESLEA

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05 edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoiengan.



TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4



6

**1. Erreka garbitzen**

Aste Berdeari amaiera emateko, domeka goizean erreka garbiketa egin zuten Elgetan. Hogei boluntario inguru ibili ziren errekatik eta inguruetatik zaborra ateratzen.

2. Erakustaldi ederra

Ikuskizun polita eskaini zuten kirolariak Aramaioko pilotalekuan. Bestalde, Hirugarren Mailako finalerako sailkatu dira Luis Polanco eta Julen Aranberri.



5

4. Urrezko ezteiak

Fermin Iribar eta Asun Arruabarrena urriaren 28an ezkondu ziren, orain 50 urte. "Zorionak, aitaita eta amama! Beste urte pilo bat osasuntsu pasatu itzazue! Besarkada bana".

5. Urrezko ezteiak

Bene Zubizarretak eta Anton Bidaburuk 50 urte bete dituzte ezkontuta. "Horrela jarraitu beste zati luze batean. Ederto pasatu genuen. Patxo bana, familiaren partetik".

6. Zilarrezko ezteiak

Enkarni Fuentesek eta Pablo Rodriguezek 25 urte bete dituzte ezkontuta. "Familia osoaren eta, batez ere, Yune eta Unai seme-alaben eta loba Landerren partetik, zorionak, bikote!".

3. Gorputz adierazmena lantzen

Azalerako *ipuinak* izeneko tailerra egin zuen Saroa Bikandik Arrasaten. Maskara gardenarekin gidatu zuen saioa, ahalik eta kontaketa adierazkorrena egiteko.

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



BERGARA
Naia Ibarzabal Aranzabal
Azaroaren 5ean, 8 urte. Zorionak, maitxia. Muxu handi bat.



ARRASATE
Aaron Fernandez Jimenez
Azaroaren 2an, 6 urte. Zorionak, Aaron! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat familia osoaren partetik!



ARAMAIO
Nerea Kortabarria Aranzabal
Azaroaren 2an, 5 urte. Zorionak, Neretxo! Gure familiako superheroia zara! Jarraitu gure bihotzak alaitzen! Super ondo ospatuko dogu!



BERGARA
Eider Leturia Zurutuza
Azaroaren 1ean, 3 urte. Gure etxeko printzesa larroxak hiru urte. Besarkada bat, maitxe zaibugun danon partetik. Zorionak!



BERGARA
Oier Rodrigo Sanchez
Urriaren 31n, 5 urte. Zorionak, Oier! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Besarkada eta patxo handi bat, etxekoen partetik!



ARRASATE
Saioa Bergaretxe Astigarraga
Urriaren 30ean, 9 urte. Zorionak, polit hori. Muxu pila Arrateren, aitatxoren, amatxoren eta aittitxeren eta amamaren partetik.



ESKORIATZA
Kimetz Karpio Azpitarte
Urriaren 30ean, 9 urte. Bederatzi urte, gure Kimetz. Muxu eta besarkada potolo bat. Amama Resu, aitita Txomin eta osaba Gorka.




ARRASATE
Ekain Zabaleta Urteaga
Urriaren 30ean, 6 urte. Zorionak eta muxu potolo bat aiton-amonen, tia Leireren eta, batez ere, Iraitxoren partetik. Ondo pasatu!



ESKORIATZA
Eleder Garcia Hermosel
Urriaren 29an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure eguna! Muxu handi-handi bat!




OÑATI
Paul Anduaga Arregi
Urriaren 29an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo handi bat etxeko danan, eta bereziki, lehengusu-lehengusina Sara, Martin eta Maddalenen partetik!



ANTZUOLA
Amets Beitia Otegi
Urriaren 29an, 8 urte. Zorionak, maitia. Txokolatzeko patxoak aitatxoren eta amatxoren partetik.



ESKORIATZA
Jabier Etxebarrieta 'Patas' eta Lierni Altuna
Urriaren 29an, 56 urte Patasek eta azaroaren 1ean, 47 urte Liernik. Zorionak, bikote, eta ondo-ondo pasatu zure eguna, familia osoaren partetik. Muxu handi bat biontzako.




ESKORIATZA
Iker Elorza Agiriano
Urriaren 28an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Oso-oso ondo pasatu zure egunean. Besarkada eta belarri tirakada bat, zure familixaren partetik.



OÑATI
Ibai eta Luka Arbelaitz
Urriaren 28an, 4 urte. Zorionak, bikote! Ondo-ondo ospatu zuen eguna eta topera disfrutatu! Asko matte dun danon partetik!



BERGARA
June Iturrospe Arrondo
Urriaren 28an, 5 urte. Zorionak, June! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, familixa danaren partetik.



ARETXABALETA
Jose Ignacio Isasmendi Zubillaga
Urriaren 27an, urtebetetzea. Zorionak, aitita Inazio! Muxu eta besarkada handi bat etxeko guztien partetik. Batez ere, biloba Oinatx, Xanet eta Inar.




BERGARA
Oihana Olasolo
Urriaren 27an, 37 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu egun berezi hau. Muxu pila bat, Eskoriatzako familia osoaren partetik.




ARRASATE
Leire Arregui Vicente
Urriaren 26an, 28 urte. Zorionak, artista! Oso ondo ospatu zure eguna, Leire. Muxu asko 'Distrito33'-ko bizilagun guztien partetik.



OÑATI
Haizea Aramburu Moreno
Urriaren 26an, 12 urte. Zorionak, Haizea. Oso ondo pasatu zure egunean, disfrutatu eta poz-pozik egon. Ikaragarri maite zaitugu, batez be zure ahizpek, miresten zaituzte eta! Musu.



ARRASATE
Aitor Canales Losa
Urriaren 23an, 11 urte. Zorionak, Aitorrxu! Oso ondo pasatu zure eguna. Musu asko familia osoaren eta 'Distrito 33'-ko bizilagunen partetik. Besarkada handi bat!



ARRASATE
Aimar Uribebarria Grande
Urriaren 21ean, 14 urte. Zorionak, Aimar! Egun zoragarria pasatu, mutikoa! Muxu asko, 'Distrito 33'-ko bizilagun guztien partetik.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 30

OÑATI Udalgintza eraldatzaileari buruzko jardunaldi telematikoa
Koopfabrikak antolatuta. Debalde, baina aurrez eman behar da izena. *Arantzazun, 10:00etan.*

ELGETA 'Ipuinen ordua'

Boluntario taldearen eskutik, 5 urteko gelako eta LH1-LH2 mailetako neska-mutikoendako. Edukiera mugatua. *Liburutegian, 17:15ean.*

OÑATI Panderoko ate irekiak

Panderoa jotzeko eta ezagutzeko ate irekiak gaur; 6 urtetik gora, adin mugarik gabe. *Musika eskolan, 17:30ean.*

ARAMAIO Gaba Baltza

17:30ean, mozorroak jantzi, eta herririk herri ibiliko dira ipuinak kontatzen. Ostean, bideo lehiaketaren emanaldia eta sari banaketa. *Kultura etxean, 17:30ean.*

BERGARA 'Heriotzarako erromatar ohiturak Soriako Tierras Altas eskualdean' erakusketa

Euskararen lehen testigantzei buruzko bilduma inauguratuko dute gaur, egubakoitza. Ikusgai egongo da abenduaren 20ra arte. *Laboratoriumen, 17:30ean.*

OÑATI Beñaranks Ta Bombadil eta Erroka taldeak

Reggae eta elektrofolk doinuak. Sarrerak, bost euro. Langabeendako eta ikasleendako, hiru euro. *Gaztetxean, 18:00etan.*

OÑATI 'Nordic walking' ikastaroa

Athlonek emango du. Aurretik eman behar zen izena. Nork bere bastoiak eraman behar ditu. *Berdura plazan, 18:00etan.*

ARRASATE Mursegoren 'Lapur(ari)ketak' emanaldia
Bibliotekaren Egunaren harira, gazte eta helduendako emanaldia. Edukiera mugatua. *Kulturaten, 19:00etan.*

ARETXABALETA 'Paisaian margotzen' erakusketa: gaur da azken eguna

Matilde Sainz Osinagaren akuarela lanek eta Arantza Ozaetaren testuek bat egingo dute bilduma honetan. *Arkupen, 19:00etan.*

ZAPATUA 31

ARRASATE 'Historia ikuspegi energetikotik' hitzaldia

Herrixa Bizirik kultura eskaintzaren baitan. Irekia, edukiera mugatuarekin. *Gaztetxean, 10:30etan*

BERGARA 'Titiriscopio' ikuskizuna

Arawake (Gaztela eta Leon) taldearen ikuskizuna Helduendako Nazioarteko Txotxongiloen XV. Mostraren baitan. Sarrerak, *Tickets.kutxabank.es* atarian. *San Martin plazan, 11:30ean.*

ARRASATE Hekatombe taldea

Kontzertu akustikoa egingo dute, Herrixa Bizirik kultura eskaintzaren baitan. Sarrera, borondatea. *Gaztetxean, 12:30ean.*

ELGETA Marrazki lehiaketa: lanak aurkezteko eguna

Gaia da *Zer irakurtzen dut?* eta gaur da lanak aurkezteko eguna. Adinaren arabera, hiru maila: 5-8 urte, 9-12 urte eta 13-16 urte. *Liburutegian, 14:30ean.*

ESKORIATZA 'Scape room'-a

8-12 urte arteko umeendako. Lauko edo bosteko taldeak egingo dituzte. Izena aurrez eman behar da: urriaren 30a da azken eguna. *Ludotekan, 16:30ean.*

BERGARA 'Titiriscopio' ikuskizuna

Arawake (Gaztela eta Leon) taldearen lana, Helduendako Nazioarteko Txotxongiloen XV. Mostraren baitan. *San Martin plazan, 17:00etan.*

ESKORIATZA 'Scape room'-a

12-17 urte artekoendako. Bosteko taldeak egingo dituzte, eta bi txandatan egingo dute jolasa. *Ibarraundin, 17:00etan eta 19:30ean.*

ANTZUOLA 'Altza!' ekitaldi

politikoa Gure Eskurekin
Ekitaldian egongo dira Erika Olaizola, Iraia Elias eta Laura Penagos aktoreak, Amets Arzallus bertsolaria, Eñaut Elorrieta musikaria eta Dupla taldea. *Eskolako patioan, 17:30ean.*

ARAMAIO Puro Relajo taldea

Erretiratuek lehentasuna izango dute. Sarrerekin batutakoa Aita Mari proiektura bideratuko dute. *Kultura etxean, 17:30ean.*

ARRASATE Rebel Noise eta Txerrikumeak taldeak

Kontzertua egingo dute, Herrixa Bizirik kultura eskaintzaren baitan. Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean, 18:00etan.*

BERGARA 'André eta Dorine' ikuskizuna

Kulunka Teatro taldearen lana, Helduendako Nazioarteko Txotxongiloen XV. Mostraren baitan. Sarrerak, *Tickets.kutxabank.es* atarian. *Seminarixooan, 19:00etan.*

BERGARA 'Psike' ikuskizuna

Markeliñe taldearen lana, Helduendako Nazioarteko Txotxongiloen XV. Mostraren baitan. Sarrerak, *Tickets.kutxabank.es* atarian. *San Martin plazan, 20:30ean.*

ESKORIATZA Beldurrezko zinea: 'El hijo'

Tim Williamsek zuzendutako pelikula. Edukiera mugatua. *Zaldibar antzokian, 22:00etan.*

DOMEKA 1

BERGARA 'Titiriscopio' ikuskizuna

Arawake (Gaztela eta Leon) taldearen ikuskizuna, Helduendako Nazioarteko Txotxongiloen XV. Mostraren baitan. Sarrerak, *Tickets.kutxabank.es* atarian. *San Martin plaza, 11:30ean.*

BERGARA 'Zientzia irudikatzen' erakusketa

EHUko Ilustrazio Zientifikoko graduondoko ikasleek egindako



GOIENA

ARRASATE Indai musika taldea

Yune Nogueirasek, Leire Moñuxek eta Nerea Aginagaldek sortu zuten taldea konfinamenduan, eta oraingoan, emanaldi akustikoa egingo du hirukote bergararrak. Sarrera: borondatea. *Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 20:00etan.*

lanen bilduma ikusgai, azaroaren 15era arte. *Aroztegin, 12:00etan.*

ARRASATE Bingo musikatua

'Herrixa Bizirik kultura eskaintzaren baitan. *Gaztetxean, 12:30ean.*

OÑATI Oñatiko kondeen kriptara bisita

Parrokiaren aldare nagusiaren azpian dagoen krypta ezagutzeko. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

ARRASATE Kalabaza lehiaketako sari banaketa

Herrixa Bizirik kultura eskaintzaren baitan. *Gaztetxean, 14:00etan.*

ESKORIATZA 'Scape room'-a

12-17 urte artekoendako. Bosteko taldeak eta bi txanda. *Ibarraundin, 17:00etan eta 19:30ean.*

ARETXABALETA 'Skratz' antzezlana

Familia guztiarendako emanaldia. Protagonista Skratx da. Superheroi izatetik antiheroi izatera nola pasa den kontatuko die ikusleei David Gutierrezek. Sarrerak, hiru euro. *Zaraia aretoan, 17:00etan.*

ARRASATE Leire Etzezarreta eta Aitor eta Pello musikariak

Kontzertu akustikoa egingo dute, Herrixa Bizirik kultura eskaintzaren baitan. Sarrera, borondatea. *Gaztetxean, 18:30ean.*

BERGARA 'Rodó' ikuskizuna

Chapertons Comic Teatre (Katalunia) taldearen ikuskizuna, Helduendako Nazioarteko Txotxongiloen XV. Mostraren baitan. Sarrerak, *Tickets.kutxabank.es* atarian. *Seminarixooan, 19:00etan.*

ARRASATE 'Ave osos' antzezlana

El Mono Habitado taldearen lana. 40 urteko gay bikote batek jakingo du Mesias berriaren guraso izango dela. Sarrerak, hamar euro. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

ASTELEHENA 2

ARRASATE Alberto Iñurrategiren hitzaldia

Porrotaren alde delako berbaldia, Goienagusiren ikasturtearen baitan. *Kulturaten, 10:00etan.*

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko elkarretaratzea. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko elkarretaratzea. *Herriko Plazan 12:00etan.*

MARTITZENA 3**ARRASATE 'Konfinamenduan margotzen' erakusketa**

Montse Roldanek egindako akuarela lanak ikusgai martitzenetik zapatuta, azaroaren 22ra arte. *Goxoan, 10:00etan.*

ARRASATE Gazte txokoak zabalik

Musokolakoa, San Andreskoa eta Erguingoa. *Hiru gazte txokoetan, 17:00etan.*

ARRASATE 'In memorian' saioa

Oroitzapen ekitaldia, San Felipe Elkarlaguntzako kide Maite Urzainen eskutik. Izena emateko: 943-77 30 22 telefonoa edo *funeraria@sanfelipe.eus* helbidea. *Kulturaten, 18:30ean.*

BERGARA 'Elikadura mitoak' hitzaldia

Bittor Rodriguezek egingo du berba, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldien baitan. Edukiera mugatua. Aurrez eman behar da izena: 943-76 90 03 edo *laboratorium@bergara.eus*. *Laboratoriumen, 19:00etan.*

EGUAZTENA 4**BERGARA Karbono dioxidoari buruzko hitzaldia**

Conoce qué se puede hacer con el CO2 en lugar de echarlo a la atmósfera izeneko berbaldia egingo du Susana Perezek, Goienagusiren ikasturtearen baitan. *Seminarixoa, 10:00etan.*

ARRASATE Sasoibide irteera

Anporreta inguruan dagoen Loo tontorrera joango dira. *Biterin, 16:00etan.*

BERGARA Eguaztenetako azoka

Etzeko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 18:00etan.*

OÑATI 'Markak' dokumentalaren soinu bandaren aurkezpena

Aitor Etxebarria musikari gernikarrak zuzeneko emanaldian aurkeztuko du soinu banda, Beratu

jaialdiaren baitan. Sarrerak, zazpi euro.

Santa Anan, 19:30ean.

EGUENA 5**ARRASATE Sasoibide: irteera**

Arrasateko adierazpen artistikoak ezagutzeko ibilaldia. *Biterin, 10:00etan.*

OÑATI Garbigune ibiltaria

Egun osoan egongo da, BM supermerkatuaren aurrean. *Olakuan, 10:00etan.*

BERGARA 'Emakumeen esku, sendabelarrak' hitzaldia

Kris Lizarragaren hitzaldia, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldien baitan. Edukiera mugatua. Aurrez eman behar da izena: 943-76 90 03 edo *laboratorium@bergara.eus*. *Irizar jauregian, 17:30ean.*

ARRASATE 'English conversation group'

Jay Mann koordinatzailearen gidaritzapean egingo dute. *Kulturaten, 19:30ean.*

EGUBAKOITZA 6**ELGETA 'Ipuinen ordua'**

Boluntario taldearen eskutik eta liburutegiak antolatuta ipuin kontaketa 2, 3 eta 4 urteko geletako neska-mutikoendako. *Liburutegian, 17:45ean.*

OÑATI Sua eta Los Sara Fontan taldeak

Bizkaiko taldeak *Ordu beltzak* diskoa aurkeztuko du eta Bartzelonako bikoteak biolin eta bateria doinuak bateratuko ditu, Beratu jaialdiaren baitan. Sarrerak, zazpi euro. *Santa Anan, 20:00etan.*

ARETXABALETA 'Me too' antzezlan

Feminismoaren inguruko antzezlan laburra taularatuko dute Ainhoa Aierbek eta Tessa Andonegik, euskaraz. Sarrerak, lau eurotan, leihatilan. *Zaraia aretoan, 20:30ean.*

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

Un mundo normal
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Mina y el mundo de los sueños
Zapatua: 16:30.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

Verano del 85
Egubakoitzetik domekara: 20:00
Astelehena: 19:30.

Pinocho
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR**COLISEO**

Eso que tu me das
Zapatua eta domeka: 17:00.

El club de los divorciados
Zapatua eta domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Una pastelería de Notting Hill
Zapatua eta domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Trolls 2
Zapatua eta domeka: 16:00.

Eso que tú me das
Zapatua eta domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30

GASTEIZ**FLORIDA**

Trasto
Zapatua eta domeka: 12:00.

Pinocho
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 17:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30.

Pequeño gran lobo
Zapatua eta domeka: 12:00.

Como perros y gatos
Zapatua eta domeka: 12:00.

El bosque del lince ibérico
Zapatua eta domeka: 12:00.

Vicky el vikingo

Zapatua eta domeka: 12:00.

Akelarre
Egubakoitzetik domekara: 16:35, 20:15.
Domeka: 20:15.

Falling
Egubakoitzetik domekara: 20:15.
Astelehenetik eguenera: 19:50.

Ane
Eguaztena eta eguna: 17:40, 20:00.

Corpus Christi
Egubakoitzetik domekara: 16:35, 20:00.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

La voz humana
Egubakoitzetik domekara: 19:00.

Trolls 2
Egubakoitzetik domekara: 16:15, 18:15.

Regreso a Hope Gap
Egubakoitzetik domekara: 20:00.

Sentimental
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 18:30, 20:15.

Blumhouse: jóvenes y brujas
Egubakoitzetik domekara: 16:25, 18:25, 20:25.

Emma
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 19:50.
Astelehenetik eguenera: 17:20, 19:45.

La brujas de Roald Dahl
Egubakoitzetik domekara: 16:15, 18:20, 20:25.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

GORBEIA

Trasto
Zapatua: 16:15.
Domeka: 12:00, 16:15.

Pinocho
Egubakoitzetik eta zapatua: 19:15.
Domeka: 12:00, 19:15.

Eso que tú me das
Egubakoitzetik eta zapatua: 18:35.
Domeka: 12:00, 18:35.

Akelarre
Egubakoitzetik domekara: 20:25.
Astelehenetik eguenera: 17:20.

Como perros y gatos
Zapatua: 16:20.
Domeka: 12:00, 16:20.

El arco mágico
Zapatua: 16:25.
Domeka: 12:00, 16:25.

El bosque del lince ibérico
Egubakoitzetik eta zapatua: 20:10.

eguenera: 17:30, 20:00.

Domeka: 12:00, 20:20.
Astelehenetik eguenera: 19:50.

Ane
Egubakoitzetik domekara: 18:15, 20:20.

No mataras
Egubakoitzetik domekara: 20:10.

Trolls 2
Egubakoitzetik domekara: 17:15.

El secreto. Atrévete a soñar
Egubakoitzetik domekara: 18:00.

Stardog y turbocat
Zapatua: 16:20.
Domeka: 12:00, 16:20.

El club de los divorciados
Egubakoitzetik domekara: 18:10.

El arco mágico
Zapatua: 16:25.
Domeka: 12:00, 16:25.

Jóvenes y brujas
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:20.

Nación cautiva
Astelehenetik eguenera: 19:50.

Domeka: 12:00, 18:15, 20:20.
Astelehenetik eguenera: 17:20, 19:50.

Emma
Egubakoitzetik domekara: 17:20, 19:50.

La brujas de Roald Dahl
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:10.

La voz humana
Egubakoitzetik domekara: 17:05.

Sentimental
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 18:45, 20:30.

Trolls 2
Egubakoitzetik domekara: 18:25, 20:25.

El club de los divorciados
Egubakoitzetik domekara: 18:10.

El bosque del lince ibérico
Egubakoitzetik eta zapatua: 20:20.

KRITIKA**Ane ★★★★★**

Zuz.: David Perez Sañudo. **Herr.:** Espainia (2020). **Aktoreak:** Patricia Lopez Arnaiz, Mikel Losada.

Familiaren arteko gatazka**ANTONIO ZABALA**

Ane-k familiako gatazka bat gizartearen gazta baten barruan sartzen du. 2009. urtean, Gasteizko auzo baten, abiadura handiko trenaren lanen ondorioz, hainbat familiak euren etxeetatik irten behar izan zuten, beste leku batera joateko. Lide trenaren lanetako zaindaria da, eta *Ane*, alaba, trenaren obrak oztopatzeke ia edozer gauza egiteko kapaz da. Kaleko giro nahasiak pertsonen arteko harremanak eragozten ditu. Filmaren momentu batean, Lidek, bere senar ohiari Anerekin

izandako eztabaida kontatzerakoan, "nolako enborra, halako ezpala" esango dio alabari. Esaera zaharrak nahiko ondo islatzen du bien izaera. Bata bestearengandik nahiko urrun daudela ematen badu ere, segituan ohartuko gara euren izaera nahiko antzekoa dela eta bien portaeran paralelismo bat baino gehiago gertatzen dela. Biak zakarrak, oldarkorrek, erantzunkorrek eta burugogorrek dira. Amak bizi hartutako erabakien pisua ezagutzen du dagoeneko.

Alaba horien pisua ezagutzen hasiberria da.

Ane film interesgarria da. Planteatutako istorioa, agertzen diren pertsonaiak eta horien arteko gatazkak, giro konkretu batean gertatuta, sakontasun dramatikoa ematen diote.

Hori horrela, ez zen beharrezkoa eszena batzuetan naturalismo artifizialean erortzea: Lide denbora guztian freskagarri bat edaten, zigarroei buruzko eztabaida edo eskola gatazka azaltzeko modua, besteak beste.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Fedea

COVID-19arekin lotutako adierazleak larriagotu egin dira. Bigarren olatuan ere euskal lurraldeek emaitza eskasak agertzen dituzte eta neurri gogorrek ezarri dira, beste behin.

Komunikabideetan eta kalean ikusi dugu herritarrak ez gabiltzala beti arduratsu. Pandemiari aurre egiteko modu batzuk jendearen eskuetan daude: higiena, pertsonen arteko distantzia, maskaren erabilpena, harremanak murriztea, itxialdiak betetzea... Beste zenbait ez daude herritar soilen ahalmenen baitan, agintarienetan baizik. Hasierako kolpearen ostean hainbat neurri hartu zituzten: ekipamenduen hornidura, ospitaletako ohe bereziak gehitzea, testak egitea, protokoloak arautzea... birusaren aurretik egoteko. Hala ere, pandemiaren arrastoa jarraitzeko oinarriak tresna diren aztarnariei dagokienez, ez zuten arduratsu jokatu: uztailan, birusak gure artean gutxienez lau hilabete zeramatzanean, 33 aztarnari besterik ez zegoen EAEn – gaur, lauhun inguru dira. Espainiako Estatuko aztarnari kopuru urria buruan izango zuen Cañizares kardinal espainiarrak esan zuenean: "Konfiantza Jaungoikoan jarri beharra dago". Zaindu gaitezen.

EUSKARALDIA, GERTU!

21
EGUN FALTA
DIRA

Dendako bezeroei esker euskal hiztegia osatzen

Euskaltegia joateko aukerarik ez duen arren, euskaraz bizi izatea da Abderrahim El Kitaoui Fajri marokoarraren ametsa, eta horretan dihardu, fruta-dendako bezeroen laguntzarekin euskarazko hiztegi pertsonala poliki-poliki gogoz eta ilusioz osatzen

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Iazko Euskaraldiak norbanakoen istorio polit asko azaleratu zituen, eta azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo duten bigarren aldiak ere lagun askoren bizipenak ezagutzera emango ditu. Istorio txiki eta anonimo horiek euskal komunitatea osatu eta indartu egiten dute; izan ere, istorio txiki eta pertsonal guztiak beharrezkoak dira euskal komunitatearen erakusleho aberasgarria osatzeko.

Abderrahim El Kitaoui Fajri

Orain dela zortzi urte Arrasaten bizi den marokoarra da Abderrahim El Kitaoui Fajri. Bi alabaren eta seme baten aita, eta, orain dela hiru urtetik, Arrasateko Garibai etorbidean dagoen Udalatx fruta-dendako jabea.

Euskara maite du, eta "ingratzeko tresna baliagarria" da beretzat. Ez da sekula euskaltegia joan, eta dio etxeko txikiak eta dendako bezeroak dituela, bereziki, euskara irakasle. "Euskara gustatzen zaidalako hasi nintzen ikasten. Jende ona dago hemen eta asko laguntzen didate; jendearengana gerturatzen laguntzen dizu euskarak. Ez daukat eskolara joateko astirik,



Abderrahim El Kitaoui Fajri, Udalatx fruta-dendan. AITZIBER ARANBURUZABALA

baina hitz eta esaera berriak ikasteko belarriak zabalik ditut beti dendan eta kalean. Etxean ere, emaztea eta biok semearen eta alaben laguntzarekin saiatzen gara euskarazko hitz berriak eta esaera gehiago ikasten".

Arabiera, euskararen truke

Belarriprest rola izan zuen aurreko aldiak eta aurten ere hala egingo du, eta dagoeneko harro eta pozik du *belarriprest* dela erakusten duen txapa edo ikurra soinean jantzita.

Oraingoan, baina, pauso bat aurrerago eman du, eta Udalatx fruta-denda aurtengo Euskaraldiarekin bat egiten duten entitateen zerrendara batu du. "Bi lagunek egiten dugu lan dendan, eta, gure artean arabiarrez jarduten dugun arren, bezeroekin ahalik eta euskara gehien erabiltzen saiatzen jarraitzea da gure asmoa".

Dendan salgai dituen produktu guztien izenak euskaraz esaten daki dendariak, eta erosketagatik ordaindu beharrekoaren zenbatekoa bezeroari euskaraz esaten ere abila da. "Ez dakizkidan euskarazko izenak eta bestelako hitzak bezeroei paper txo batean idazteko eskatzen diet, eta modu onez eta pozik egiten dute. Orokorrean, asko baloratzen dute egiten dugun ahalegina; egia da gertatu izan zaidala inoiz bezero bati euskaraz berba egin eta hari ez gustatu izana eta gaztelaniaz berba egiteko eskatzea berak, baina gutxienezkoak dira horiek; orokorrean, txalotu egiten didate. Trukean arabieraz agurrak eta hitz solteak irakasten dizkiet hala eskatzen didaten bezeroei. Guztiok irabazten dugu trukean".

"Sekula ez da berandu"

Euskara ikastea zaila den galdetuta, zalantzarik barik, ezetz dio Udalatx dendako saltzaileak, eta poliki-poliki ahalegina egitera gonbidatu ditu kezka hori dutenak. "Sekula ez da berandu ikasten hasteko. Hiru urte daramatzat dendan eta asko ikasi dut bezeroen laguntzarekin. Egunean hitz bat ikasiz gero, hileko 30, behintzat, ikasiko dituzu, eta, urteko batez bestekoa eginez gero, 360 hitz berri dira".

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,
%100 EMATEN

ORAIN NAHIERAN IKUS DEZAKEZU



GOIENA
URTE
ALBISTE

ISAIAS CARRASCOREN HILKETA

GOIENA: 20 URTE 20 ALBISTE,
ERREPORTAJE SORTA
ARRASATE ASTINDU ZUEN ATENTATUA



Erreportajea nahieran ikusteko, eskaneatu QR kode hau telefonoarekin.

goiena
20 URTE ZUEKIN.